

# Jakin168

iraila-urria  
2008



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



KULTURA SAILA

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*



## ZENBAKI HONETAN

**7**

### GAI NAGUSIA Bolognako prozesua

- 11** Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua: aurrerapausoak eta erronkak  
**TONTXU CAMPOS**  
**PATXI JUARISTI**
- 23** Bolognaren alde  
**JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS**  
**NEKANE BALLUERKA**
- 35** Unibertsitatea etekin ekonomikoaren bila  
**JOSE MIGUEL CAMPILLO**
- 47** Mondragon Unibertsitatearen bidea  
Europar Goi-mailako Hezkuntza Eremuan  
**JOXE MARI AIZEGA**
- 61** *Iritzi bilketa*: Bolognako prozesuaren indargune eta ahulguneak  
**ASKOREN ARTEAN**

## EGUNEN GURPILEAN

- 109** **XABIER GANTZARAIN**  
**INAKI IRAZABALBEITIA**  
**UXUE ALBERDI**  
**LIONEL JOLY**  
**JOXE ARANZABAL**  
**AITOR ZUBEROGOITIA**

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

**Jakin**

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia  
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07  
jakin@jakingunea.com  
www.jakingunea.com

---

2008ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	50 €	—
Ale arrunta	8,30 €	10,50 €
KANPOAN		
Harpidetza	55 €	—
Ale arrunta	9,15 €	12,40 €



## THE BOLOGNA PROCESS

### European Higher Education Area: advances and challenges

Tontxu Campos, the Minister of Education, Universities and Research of the Basque Government, and Patxi Juaristi, Director of Universities, refer to the objectives set out by the European Higher Education Area as well as the steps that have been taken both in universities from the Autonomous Region of the Basque Country and within the Department of Education of the Basque Government itself towards adaptation to the aforementioned European framework. **TONTXU CAMPOS / PATXI JUARISTI**

### In favour of Bologna

Juan Ignacio Pérez Iglesias, the Rector of the University of the Basque Country, and Nekane Balluerka, Vice-rector of Quality and Innovation in Teaching, describe the main features of the Bologna Process, reflect on the transformation of the teaching model that it promotes, discuss the arguments that have been used against it and, lastly, carry out a global assessment regarding its implications. **JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS / NEKANE BALLUERKA**

### The university in search of financial benefit

The university professor, Jose Miguel Campillo, offers his critical opinion about the general context of the Bologna Process —a process that would end up imposing a privatizing, mercantilist and elitist model of the university in accordance with neo-liberal ideology, and a far cry from the values of the left. **JOSE MIGUEL CAMPILLO**

## The path followed by Mondragon University in the European Higher Education Area

Joxe Mari Aizega, the Vice-rector of Mondragon University, presents us with the specific experience of his university in the process of adaptation to the European Higher Education Area: the Mendeberry project, a new education model that constitutes an attempt at responding to the challenges of higher education. **JOXE MARI AIZEGA**

## Opinions regarding the Bologna Process

The magazine has been directed towards around several social agents who work in the education sector and persons linked to the university, with the aim of gathering together the stances they maintain regarding the issue of the Bologna Process. Specifically, the questions that have been formulated revolve around the following two points: opinions about its strong and weak points, reasons in favour and against the process, and an assessment of the implications it is having and is going to have within the field of the Basque university. **VARIOUS AUTHORS**

## NEWS TODAY

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. Current affairs in the field of art, technoscience, literature, socio-linguistics, communication and globalization will be analyzed this year. This section draws on various specialists: Xabier Gantzarain, Inaki Irazabalbeitia, Uxue Alberdi, Lionel Joly, Joxe Aranzabal and Aitor Zuberogoitia. **VARIOUS AUTHORS**

## ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 168. zenbakia da eta 2008. urteko bosgarrena.

Zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean Bolognako prozesuaren inguruko auziari heldu diogu. Izan ere, 1999ko ekainean Europako hogeita bederatzetako herrialdeetako ministroek Bolognako Adierazpena sinatu zutenean, Europako unibertsitate sistema ezberdinak bateratzeko xedez sortutako Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparrua (GHEE) sustatzeko helburua ezarri zuten. Bateratze prozesu horretan 46 estatuk hartzen dute parte gaur egun, eta 2010ra arteko epea dute GHEEra behar bezala egokitzeke. Bolognako prozesuak dakarren unibertsitate ereduak, dena den, ez du unibertsitateari lotutako sektore guztien erabateko adostasuna jaso. Eztabaida publiko horri nahi dio ekarpena egin zenbaki honek, Bolognako prozesuaren ezaugarri nagusiak argituz, batetik, eta prozesuak eragiten dituen aldeko eta aurkako argudio eta iritziak ere bilduz.

Bost atalek osatzen dute sail monografiko hau. Lehenik lau artikulua dotoz, eta, ondoren, gai nagusiaren inguruan burututako iritzi bilketa bat.

Lehen artikuluan, beraz, Tontxu Campos eta Patxi Juaristik Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren helburu eta erronka nagusiak zehazten dituzte. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru unibertsitateek eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak berak GHEEra egokitzeke emandako pausoak ere azaltzen dituzte.

Juan Ignacio Perez Iglesias eta Nekane Balluerkak, bigarren artikuluan, Bolognako prozesuaren ezaugarri nagusiak aurkezten dituzte, irakaskuntza-ikaskuntza eredu berriaren inguruko gogoeta egiten dute, prozesuaren aurka erabilitako argudioak eztabaidatzen dituzte eta, azkenik, prozesuaren balorazio orokorra egiten dute.

Hirugarrenean, Jose Miguel Campillok Bolognako prozesuaren testu-iragazki orokorrari buruzko iritzi kritikoa garatzen du. Izan ere, egilearen us-

tez, prozesu horrek pribatizazioan, merkantilizazioan eta elitizazioan oinarritutako unibertsitate eredua ekarriko du, ideologia neoliberalari meneginez eta ezkerreko balioetatik urrun.

Joxe Mari Aizegak, azken artikuluan, Mondragon Unibertsitateak Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparrura egokitzeko egindako ibilbidearen esperientzia aurkezten du. Hortxe kokatzen da, hain zuzen ere, Mendeberrri proiektua, goi-mailako irakaskuntzaren eskakizun eta erronkei erantzuteko sortutako hezkuntza eredu berria.

Sail honetako azken atalean, hezkuntza munduarekin zerikusia duten hainbat gizarte-eragilerengana eta komunikabideetan-eta auzi honen inguruan iritzia eman duten unibertsitateko hainbat kiderengana jo dugu iritzi eske. Honako auziak planteatu dizkiegu: batetik, Bolognako prozesuaren indargune eta ahulguneei buruzko iritzia, prozesuaren aldeko eta aurkako argudioen aurkezpena; bestetik, prozesu hori Euskal Herriko unibertsitatearen esparruan izaten ari den eta izango duen eraginaren inguruko gogoeta. Guztira hamaika iritzi bildu ditugu.

*Egunen gurpilean* saileko idazlanak datoz azken orrialdeetan. Azken bi hilabeteotako berrien iruzkin labur eta biziak egin dituzte Xabier Gantzarainek Arterari buruzko atalean, Inaki Irazabalbeitiak Teknozientzian, Uxue Alberdik Literaturan, Lionel Jolyk Soziolinguistikan, Joxe Aranzabalek Teleepolisen, eta Aitor Zuberogoitiak Glokalian. ¶



# Bolognako prozesua

- 11** Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua:  
aurrerapausoak eta erronkak  
**TONTXU CAMPOS**  
**PATXI JAURISTI**
- 23** Bolognaren alde  
**JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS**  
**NEKANE BALLUERKA**
- 35** Unibertsitatea etekin ekonomikoaren bila  
**JOSE MIGUEL CAMPILLO**
- 47** Mondragon Unibertsitatearen bidea  
Europar Goi-Mailako Hezkuntza Eremuan  
**JOXE MARI AIZEGA**
- 61** *Iritzi bilketa*: Bolognako prozesuaren indargune eta  
ahulguneak  
**ASKOREN ARTEAN**

# Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua: aurrerapausoak eta erronkak

**TONTXU CAMPOS**  
**PATXI JUARISTI**

Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua eta  
Unibertsitate Zuzendaria

Goi-mailako hezkuntzaren eremua, oro har, eta bereziki unibertsitateak aldatzen ari dira. Horretan zerikusi handia dute ezagutzaren gizartean izandako aldaketek, ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-prozesuetan (I+G+B) unibertsitateak nagusi izatea faboratzen baitute. Alegia, herrialde baten garrantzia zientzian eta teknologian ezagutza berria sortzeko ahalmenaren arabera neurtzen denez, ezagutzak sortzeko zentroak —bereziki, unibertsitateak— funtsezko erakundeak bihurtu dira, eta, ondorioz, herrialde guztiak horien emaitzak hobeagotzen saiatzen dira.

Ezagutzaren gizartean gertatzen ari diren aldaketei lotuta, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua (GHEE) sortu da, eta horrek ere eragin handia izan du Europako goi-mailako hezkuntzan. Esanak esan, unibertsitatea ulertu eta kudeatzeko, irakatsi eta ikertzeko modu berriak agertu dira.

## Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua (GHEE) 1998ko maiatzean sortu zela esan daiteke; hain zuzen ere,

Frantzia, Erresuma Batua, Italia eta Alemaniako unibertsitateen ardura zuten ministroek Sorbonako Aitorpena sinatu zutenean. Aitorpen horretan, ezagutzaren Europa indartu behar zela adierazi zuten, eta Europako unibertsitate sistemak bateratzeko beharra proposatu. Alegia, GHEE sortzeko erantzukizuna hartu zuten, eta, horrekin batera, esparru honetan mugikortasuna eta lanerako aukerak erraztu behar zirela erabaki.

Lehen bilera haren ostean, 1999ko ekainean, Europako hogeita bederatzi herrialdetako hezkuntza ministroak bildu ziren Bolonian. Ministro horiek Sorbonako Aitorpenean ezarritako oinarriari atxiki zitzaizkien, eta GHEE sustatzeko helburuak jarri zituzten. Boloniako Aitorpena bezala eza-gutzen da bilera horren emaitza.

Ordutik, hezkuntza ministroak bi urtez behin bilduz joan dira, ematen dituzten aurrerapausoak ebaluatzeko eta hartu beharreko neurri berriak ezartzeko. Horrela, ondorengo bilerak Pragan (2001), Berlinen (2003), Bergenen (2005) eta Londresen (2007) izan dira.

Gaur egun, bateratze prozesu honetan Europako 46 estatuk parte hartzen dute, eta horretan dabilzan ministroen azken helburua da titulazio-sistema malgua, ulerterraza eta konparagarria ezartzea, ikasleen lan-aukerak handitzeko, beren mugikortasuna errazteko eta GHEEren nazioarteko lehiakortasuna indartzeko.

Estatuak 2010. urtera arteko epea dute egin behar dituzten aldaketa guztiak egiteko eta GHEEen behar bezala integratzeko.

## GHEEren helburuak

Oro har, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak sei helburu ditu:

1. Erraz uler eta konpara daitekeen titulazio-sistemara eta kalifikazio-sistemara egokitzea. Horretarako, tituluaren gehigarri europarra sortu da.

2. Herrialde guztietarako baliozkoa izango den kreditu sistema sortzea. Horretarako, ECTS kredituak (European Credit Transfer System) sortu dira.

3. Hiru ziklotan antolatutako unibertsitate ikasketak bultzatzea: Gradua, Masterra eta Doktoregoa.

4. Goi-mailako hezkuntzaren arloan europar mailako lan-kidetza sustatzea.

5. Esparru komun horren barruan ikasleen eta irakasleen mugikortasuna bultzatzea.

6. Garapen kurrikularrari garrantzia ematea, ikaslearen prestakuntza osatzeko.

Helburu horiek guztiak behar bezala betetzen badira, bere ikasketak bukatzen dituen ikasle batek Europa osoan zehar baligarria izango den titulu ofizial bat lortuko du; eta titulu horri atxikita Tituluaren Gehigarri Europarra izeneko dokumentua. Dokumentu horrek GHEEn normaldutako formatua du, eta tituludun bakoitzarentzako, modu pertsonalizatuan, egindako ikasketak, lortutako emaitzak eta eskuratutako gaitasun profesionalak agertzen ditu.

Tituluaren Gehigarri Europarraren bidez, errazagoa izango da egindako ikasketak Europako beste estatu batzuetan onartzea eta langileei Europar Batasunean joan-etorri askean ibiltzeko aukera ematea. Alegia, Tituluaren Gehigarri Europarrak titulazioen aitoren errazagoa ahalbidetzen du, baita ikasleak Europako lan merkatuan sartzea eta mugitzea erraztu ere.

Tituluaren Gehigarri Europarra ezartzearekin batera, ECTS sistema edo Kredituen Transferentziarako Europar Sistema ezarri behar dute herrialdeek. ECTS sistema Europako herrialde gehienetan dago ezarria, eta unibertsitateko ikasketa planetan zehazten diren helburuak lortzeko ikasleak egin behar dituzten lanen neurri bateratu bat da.

Egia esan, desberdintasun garrantzitsuak daude gaur egun erabiltzen den kreditu sistemaren eta ECTS sistemaren artean. Hain zuzen ere, kredituak, gaur egungo sisteman, irakasleak ematen dituen ikastorduak islatzen ditu. Zehatzago

esanda, gaur egungo kreditu bat 10 irakastorduri dagokio. ECTS delako kreditua desberdina da. Izan ere, ikasketa plan batean programatutako helburuak gainditzeko ikasleek egin behar duten lan karga neurtzen du: eskola orduak, bakarkako ikasketa orduak, azterketak, praktikak, mintegiak... Erreferentzia modura, ECTS kreditu bakoitzak laneko 25 eta 30 orduen artean islatzen du.

Irakasgai bakoitzak duen ECTS kreditu bakoitzeko, 7,5 eta 10 ordu bitartean eskola orduak izango dira. Klase magistral edo teorikoak, gehienez ere, ikastordu kopuruaren %60 izango dira. Gainontzekoa, beraz, lantzen den irakasgaiaren ezaugarrietara hobekien egokitzen diren praktika, tailer edota mintegiei dagokie. Zentzu honetan, kontuan izan behar dugu sistema berri honen baitan, irakasleen egiteko nagusia ikasten irakastea dela. Alegia, irakaslea ez da bakarrik ezagutzak ematera mugatuko, baizik eta lan, mintegi, ebaluaketa eta azterketak antolatu behar ditu. Hain zuzen ere, azken helburua da ikasleek lanerako eskaerei behar den bezala erantzutea baimentzen duten gaitasun eta ezagutzak eskura ditzatela. Horrekin batera, hezkuntza sistema berri honek ikasleen jarrera aldaketa eskatzen du. Hau da, ikasleak ezagutzaren hartzaile soila izateari utzi behar dio eta ikasketa prozesuan jarrera aktibo eta autonomia hartu behar du.

Aldaketa guztiak gauzatzen direnean, hiru ziklo nagusi izango dira unibertsitatean. Gradua (240 kreditu), masterra (60 eta 120 kreditu artean) eta doktoregoa (master ikasketak gehi ikerketa). Ikasturte bakoitzak, gehienez, 60 ECTS izango ditu eta, hortaz, graduak 4 urteko iraupena izango du, maste-rrak 1 edo 2 urtekoa eta doktorego-kurtsoek 2 urtekoa, doktorego-tesia aurkezteko behar den denbora gehituta. Graduko ikasketak ezartzearekin, egungo diplomatura eta ikasketa teknikoak eta gaurko ingeniarietza eta lizentziaturak desagertu egingo dira. Horiek guztiak graduko ikasketa bihurtuko dira.

Honela, bada, ikasturte bakoitzak 60 ECTS izango dituela kontuan hartzen badugu eta ECTS kreditu bat laneko 25 eta 30 ordu ingururi dagokiola, ikasturte bakoitzean ikasleak

ikasten egingo duen ordu kopurua 1.500 eta 1.800 artekoa izango da.

## GHEEra UPV-EHUK, MUK eta UDK eman dituzten pausoak

Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateak aspalditik dabilta lanean GHEEra egokitzeko. Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU), Deustuko Unibertsitateak (UD) eta Mondragon Unibertsitateak (MU) hainbat pauso eman dituzte Europako trenan ez galtzeko.

Alde batetik, hiru unibertsitateek egin dituzten plan estrategikoei garrantzi handia ematen diote GHEEra egokitzeari, Europako unibertsitate-esparruan lehiakorrak izateko helburuarekin.

Hortik abiatuta, ECTS kreditu sistema eta GHEEtik bultzatu nahi den irakaskuntza eta tutoretza ereduak barneratzeko aholkularitza eta laguntza programak abiarazi dituzte. UPV/EHUK kreditu europarra unibertsitateko irakaskuntzetan barneratzeko AICRE eta SICRE programak abiarazi zituen 2004-2005 ikasturtean. Horrekin batera, irakaskuntzaren berrikuntza sustatzeko programa garatu du, IBP programa deitua (Irakaskuntzaren Berrikuntzarako Programa). Programa horrek laguntza eta aholkularitza ematen die egungo titulazioak ECTS kredituetara egokituz doazen fakultate eta unibertsitate-eskolei.

MUK Mendeberrri izeneko hezkuntza-eredua abiarazi zuen 1999an. Egitasmo horrek GHEEren baitan bultzatu nahi diren irakasteko eta ikasteko ereduak hartzen ditu oinarritzat, eta, ondorioz, ikasleen gaitasunen garapena bilatzen du. Horrekin batera, MUKo titulazioetan ECTS kreditua erabiltzen da.

UDren esparru pedagogiko berriak ECTS proiektuaren ikuspegia barneratzen du. Horrekin batera, bost titulazioetan proba pilotuak egin ditu, Europako ereduaren esperimentatzeko eta ereduaren zailtasunak eta premiak aztertzeko.

Aipatzekoa da hiru unibertsitateek Tituluaren Gehigarri Europarra emateko prozedura aplikatzen dutela. Gainera, GHEEra egokitutako hainbat master eskaintzen ari dira 2006-2007 ikasturtetik. Era horretan, 2008-2009 ikasturtean, UPV/EHUK GHEEra egokitutako 53 master eskainiko ditu, MUK 7 eta UDK 37.

Kontuan hartzekoa ere bada Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateak aspalditik dabiltzala GHEEra egokitutako graduak titulazio ofizial berrien inguruan gogoeta sakona egiten, etorkizuneko ikasketak zehaztu asmoz. UPV/EHUK, UDK eta MUK pauso asko eman dituzte arlo horretan. Horrela, MUK GHEEra egokitutako 7 gradu eskainiko ditu 2008-2009 ikasturtean. Hain zuzen ere, MU izango da GHEEra egokitutako graduak eskainiko dituen lehen euskal unibertsitatea. Are gehiago, itxura guztien arabera, 2009-2010 ikasturterako unibertsitate horrek eskaintzen dituen titulazio ia guztiak egokituta izango ditu.

UDK 2009-2010 ikasturtean eskainiko ditu GHEEra egokitutako 19 titulazio. UPV/EHUn gauzak geldoago doaz, eta badirudi 2010-2011ra arte itxaron beharko dela GHEEra egokitutako titulazio ofizial berriak ezartzeko.

GHEEren helburuetariko bat da Europako goi-mailako hezkuntzaren arloan europar mailako lankidetzak sustatzea eta esparru komun horren barruan ikasleen eta irakasleen mugikortasuna bultzatzea. Zentzu honetan, hiru unibertsitateek lan asko egin dute beste unibertsitate batzuekiko lankidetzak sustatzen, eta azken urteotan hainbat hitzarmen sinatu dituzte nazioarteko doktorego sareetan sartzeko edota nazioarteko ikerketa-zentroekin lankidetzan aritzeko.

Mugikortasuna errazteko eta atzerriko beste unibertsitate batzuetako ikasle eta irakasleak erakartzeko, hiru unibertsitateek eleaniztasun planak ere garatu dituzte; apurka-apurka, handituz doa ingelesez eskaintzen diren ikasgaien kopurua. UPV/EHUn, adibidez, hainbat irakasgai eskaintzen dira ingelesez eta 130 irakasletik gora daude akreditatuta, Eleaniztasun Planaren arabera, atzerriko hizkuntzaren batean

irakasteko. 2008-2009 ikasturtean, hizkuntza horretako irakaskuntza-eskaintza handituz joatea aurreikusten da.

GHEEn dagoen beste arlo garrantzitsu bat da kalitatearen inguruko kezka. Ildo horretatik, hiru unibertsitateek modu desberdineko ebaluaketak bultzatu eta abiarazi dituzte (UNIQUALEk<sup>1</sup> eta ANECAk<sup>2</sup> egindako ebaluaketak), eta AUDIT programan<sup>3</sup> eta DOCENTIA programan<sup>4</sup> parte hartzen ari dira. Horrekin batera, ahalegin garrantzitsuak egin dira eskaintzen diren titulazioetan Estatuko Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak ematen dituen kalitate-aipamenak lortzeko.

## GHEEra egokitzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako pausoak

Bolognako Adierazpenean ezarritako helburuek eta horiek betetzeko garatu beharreko jarduerak asko eskatzen diete unibertsitateei, baina baita botere publikoei ere. Horrela, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ere pauso erabakigarriak eman ditu Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten unibertsitateak GHEEra arazorik gabe egokitzeko. Zehazki, 2007ko abenduan, 2007-2010 unibertsitate plana onartu zuen. Plan horren helburu orokorra da «*Euskal Herriko unibertsitate-sistema Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura eta Ikerketaren Europako Esparrura pixkanaka egokituz joatea*». Helburu orokor horretatik abiatuta, planak bederatzi helburu zehazten ditu:

1. Unibertsitate-irakaskuntzako prozeduretan berrikuntza sustatzea.
2. Euskal unibertsitate-sistemak nazioarte mailan integratzea.
3. Unibertsitateko zerbitzuak modernizatzeke ekintzak bultzatzea.
4. Euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea hobetzea.
5. Unibertsitatearen, enpresaren eta gizartearen arteko harremanak hobetzea.



6. Euskal unibertsitate-sistemaren ekoizpen zientifiko eta teknologikoaren hazkuntza sustatzea.

7. Unibertsitatearen esparruan euskara sustatzea.

8. Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa-esparru egonkorra ezartzea, unibertsitate publikoak bere helburuak lortzeko duen ahalmena handitzeko helburuarekin.

9. Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate pribatuekiko harreman-esparru egonkorra ezartzea.

Helburu horiek guztiak lortzeko, 1.271.721.808 € erabiliko dira (%98,18 UPV/EHU, %0,91 UDn eta %0,91 MUn). Zentzu honetan, kontuan izan behar dugu GHEE gauzatze-ko berariazko baliabideak behar direla, eta aurrekontu garbirik izan ezean, birmoldaketa horrek porrot egin dezakeela.

## Zeintzuk dira GHEEren erronkak Euskal Herriko unibertsitate eta erakunde publikoentzat?

Arestian ikusi bezala, Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateek pauso ugari eman dituzte GHEE-ra egokitzeko. Besteak beste, hiru unibertsitateek ECTS sistema unibertsitateko irakaskuntzetan barneratzeko programak bultzatu dituzte. Dena dela, aipatzekoa da, kasu gehienetan, irakasleek beren borondatez parte hartzen dutela programa horietan, eta, ekimen horiek, beraz, esperientzian parte hartzea erabaki duen irakasleak ematen dituen irakasgaiak aukeratu dituzten ikasleei baino ez dietela eragiten.

Bestalde, argi dago abiadura desberdinak daudela GHEE-ra egokitzeko prozesuan. Graduondoko ikasketei dagokienez, Euskal Unibertsitate Sistemako hiru unibertsitateak GHEE-ra egokitutako hainbat master eskaintzen ari dira 2006-2007 ikasturtetik, eta, arlo honetan, antzerako abiadura daramate; baina graduako tituluei dagokienez, abiadura desberdinak daude hiru unibertsitateen artean: MUn 2008-2009 ikasturtetan hasi dira gradu berriak eskaintzen, UDn 2009-2010ean hasiko dira eta UPV/EHU 2010-2011n. Abiadura desber-

din horiek nolabaiteko desorekak sortzen dituzte sistema-  
ren baitan.

Ezin da ukatu pauso asko eman direla ikasle, irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako langileen mugikortasuna bultzatzeko, baina oraindik ere asko dago egiteko arlo hone-  
tan. Nazioarte mailako harreman gehiago behar dituzte gu-  
re unibertsitateek, mugikortasuna errazteko eta nazioarte  
mailan ezagunak bihurtzeko. Horrekin batera, beharrezkoa  
da eleaniztasun planak indartzea. Izan ere, mugikortasuna  
eta atzerriko unibertsitateekiko harremanak ez dira bene-  
tan sendotuko, ingelesez eta atzerriko beste hizkuntzetan  
eskaintzen diren ikasgaien kopurua handitzen ez bada.

Bestalde, Estatuko zein Estatuz kanpoko ikasle, irakasle  
eta ikerlariak erakartzeko, ezinbestekoa da kalitatearen al-  
deko apustu sendoa egitea. Azken urteotan gure uniberti-  
sitateek ezagutu duten ikasleen galera kanpoko ikasleekin  
orekatu nahi bada<sup>5</sup>, ebaluaketaren kultura hedatu behar da,  
eta kalitatezko irakasleak, azpiegiturak eta ikasketak eskaini  
behar dira. Egia esan, gure unibertsitate sistemaren kontrae-  
sanetariko bat da, alde batetik, unibertsitateko agintari, ira-  
kasle eta ikerlariak onartzen dutela etengabeko ebaluaketa  
ezinbestekoa dela gure unibertsitateen kalitatea hobetzeko,  
baina, bestetik, jarrera ezkor asko daudela ebaluaketen emai-  
tzak bere ondorio guztiekin onartzeko. Egiatan, gure uniber-  
tsitate sistemari asko kostatzen ari zaio onartzea ebaluaketa-  
rik gabe ez dagoela kalitaterik, ezta garapen zientifiko-tek-  
nologikorik ere.

Kalitatearekin lotuta, datuek erakusten dute ikerketa dela  
euskal unibertsitate-sistemaren alderdirik ahulena. Zentzu  
honetan, GHEEra behar bezala egokitzeko, beharrezkoa da  
tesi- eta doktore-kopurua, argitaratutako artikulua zein  
erregistratutako patenteen kopurua gehitzea, baita enpresa-  
rekiko harremanean sakontzea ere.

Bestalde, argi adierazi behar da GHEEk ez duela bilatzen  
hezkuntzaren homogeneousutasuna, baizik eta European barre-  
na egindako ikasketen onarpena errazteko alderagarriak di-

ren prestakuntza programak hedatzea. Unibertsitateen eta erakunde publikoen lana da homogeneotasuna ekidin eta erakargarriak izango diren titulazioak bultzatzea. Kanpoko ikasle, ikerlari eta irakasleak erakarri nahi badira, beste inork eskaintzen ez dituen ikasketak eskaini behar dira.

Kontu handiz ibili behar da GHEE Europar Batasuna osatzen duten errealitate sozial, kultural eta ekonomiko desberdinetara egokitzerakoan; hau da, ikasketak zehazterakoan, herrialde bakoitzeko berezitasunak (hizkuntza, produkzio sistema, ekonomia...) hartu behar dira aintzat. Gure kasuan, Bolognako prozesua Euskal Herriko berezitasun linguistiko, kultural eta sozioekonomikoak kontuan hartuta bultzatu behar da. Gure unibertsitateetan atzerriko hizkuntzen presentzia handitu behar da, baina euskararen inguruan azken urteotan eman diren aurrerapausoetan atzera egin gabe<sup>6</sup>.

Beste erronka garrantzitsu bat da ikasteko sistema aldatzea. Apunteak besterik gabe buruz ikasi ordez, hezkuntza praktikoagoa izatea lortu behar da. Horretarako, beharrezkoa da ikasle gutxiagoko taldeak sortzea. Funtsezko alderdiak buruz ikastearekin batera, gaiak eztabaidatzea eta praktikak egitea ikasteko metodo gisa hartu behar da. Eta horrek eskatzen duena da ikasketa unibertsitarioekiko jarraera aldatzea. Unibertsitateak ezagutzak ikastea eta egungo gizarterako beharrezkoak diren ahalmenak eta gaitasunak garatzea ahalbidetzen duen hezkuntza-eredua ezarri behar du. Hori dela eta, ezinbestekoa da unibertsitatearen egitura tradizionalak, irakaskuntza-metodoak, irakasleen eginkizuna, etab. barru-barrutik aldatzea. Eskola magistralen ordez, irakatsi eta ikasteko metodologia berriak modu intentsiboan erabili behar dira. Beste berba batzuekin esanda, unibertsitateak berriro orientatu behar dira, ikasleak irakaskuntza-sistemaren ardatz nagusia izan daitezen. Ildo horretatik, beharrezkoa da unibertsitate-ikasketak bertan behera uztearen inguruan hausnarketa egitea, horren inguruan neurri egokiak hartzeko, baita ikasle berriak hobeto moldatzeko bideak bilatzeko edo eskola-uztean eragiten duten elementuak murrizte-

ko. Ezin da ahantzi Estatuko unibertsitate-sisteman eskola uztearen batez besteko tasa %28koa dela eta UPV/EHUn ikasketak bertan behera utzi zituztenen tasa %26koa izan zela 2004-2005 ikasturtean (CRUE 2006). 2003ko eta 2006ko PISA azterlanean emaitzarik onenak lortu zituen Finlandian, aldiz, 2005eko datuen arabera, graduako eta masterreko ikasleetatik %5,4k utzi zituzten beren ikasketak eta %4,7k unibertsitatea utzi zuten (Finish Ministry of Education 2007).

Esanak esan, bizitzen ari garen garai honetan, beharrezkoa da unibertsitate-proposamena berriz hausnartzea eta etorkizunera begira planifikatzea, hori guztia, ezagutzaren gizartean lehentasunezko posizioak bilatzeko eta, azken batean, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko. Ea GHEEren baitan bultzatzen ari diren aldaketek hori lortzea errazten duten.¶

- 
1. UNIQUAL, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sortu du, goi-mailako hezkuntzaren baitan kalitatearen kultura sustatzeko. Zehatzago esateko, UNIQUALen helburua da euskal unibertsitate-sisteman kalitatea ebaluatzea, egiaztatzea eta ziurtatzea.
  2. Estatu mailako Kalitate eta Ziurtapenaren Ebaluazio Agentzia.
  3. AUDIT, ANECA, AQU eta ACSUG agentziek elkarlanean garatu duten programa da. Unibertsitateei zuzenduta dagoen ekimen horren bidez, irakaskuntzen kalitatea ziurtatzeko jarduerak bultzatu nahi dira.
  4. Irakaskuntza lana Ebaluatzeko Programa (DOCENTIA) ANECAk sortu du, unibertsitateko irakasleen kalitatea bermatzeko prozedurak sortzeko.
  5. 2001-2002 ikasturtetik 2006-2007 ikasturtera, ikasle-kopurua %13,7 murriztu da Euskal Herriko Unibertsitatean, %37,8 Deustuko Unibertsitatean eta %2,8 Mondragon Unibertsitatean.
  6. Euskarari dagokionez, egoerarik onena MUn aurkitzen dugu. Bertan eskaintzen diren kredituen %64 euskaraz dira. UPV/EHU tarteko egoeran egongo litzateke, hots, %49rekin. UDK du egoerarik kaskarrena, eskaintako kredituetatik %25 baino ez baitira euskaraz.

### **Bibliografia**

- CRUE - Conferencia de Rectores de las Universidades Españolas (2006): *La universidad española en cifras, 2006. Información académica, productiva y financiera de las universidades españolas. 2004. Indicadores Universitarios. Curso Académico 2004-2005*, Madril, Observatorio Universitario.
- Eusko Jaurlaritz (2008): *2007-2010eko Unibertsitate Plana. Euskal Unibertsitate-Sistamarako Plana*, Gasteiz.
- Finish Ministry of Education (2007): *Universities 2006. Annual Report*, Helsinki, Ministry of Education.
- UPV/EHU (2007): *Eremu berria, aukera berriak. 2010*, Leioa, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

# Bolognaren alde

**JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS  
NEKANE BALLUERKA**

UPV/EHUko errektorea eta  
Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzarako errektoreordea

Europako Unibertsitate Esparrua sortzeak eta eremu horretan Euskal Herriko unibertsitateak sartzek onura nabarmenak ekarriko ditu, bai unibertsitate kideoi, bai euskal gizarteari berari ere. Datozen lerrootan eskainiko ditugu baieztapen hori oinarritzeko zioak.

Hiru atal nagusitan egituratu dugu gure ekarpena. Haste-ko, Bolognako prozesuaren ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu. Ondoren, prozesu horren osagai funtsezkoa den ECTS kredituetan (European Credit Transfer System) oinarrituriko irakaskuntza-ikaskuntza ereduaren inguruko gogoeta egingo dugu. Hirugarren atal batean prozesuaren aurka erabili diren argudioak eztabaidatuko ditugu eta argudio horien aurkako arrazoiak emango ditugu. Eta azkenik, prozesuaren balorazio orokorra egingo dugu, euskal gizartearentzat duen garrantzia azpimarratuz.

## Ezaugarri nagusiak

Europa osoan tituluaren sistema erkagarria eta ulergarria sortzea da Europako Unibertsitate Esparruaren helburua.

Ikasleak Europa barnean mugitzea erraztu eta lan aukerak sustatu nahi dira sistema horren bitartez. Gaur, Europako estatu bakoitzak bere unibertsitate sistema du, eta sistema horietan eskuratzen diren tituluak ez dira erraz onartzen gainontzeko estatuetan. Mugikortasuna, beraz, mugatua da. Hori dela eta, tituludunen mugikortasuna erraztuko da herri jakin batean egindako ikasketak beste herrietan onartzen eta eskuraturiko tituluak aitortzen badira. Europako Goi Hezkuntzako sistemaren lehiakortasun maila indartu nahi da horrela. Gaur, 45 estatu ari dira esku hartzen esparrua sortzeko prozesuan.

Prozesuaren ondorioz unibertsitate tituluak homologagarriak izango dira, baina horrek ez du esan nahi uniforme edo klonikoak izango direnik. Izan ere, berez gertatuko da homologazio hori eta, horri esker, edozein unibertsitatean egindako ikasketak aitortuak izango dira Europako herri guztietan. Tituluen egitura antzekoa izango da unibertsitate guztietan, baina desberdinak izan ahalko dira edukiak eta ikasketen soslaiak. Hortaz, eredu berbera ezartzen ari da Europako unibertsitate gehienetan, baina euren eskaintza dibertsifikatzeko eta berezitzeko aukera gehiago izango dituzte unibertsitateek.

Homologagarriak eta erkatzeko modukoak izan ahal izateko, zenbait baldintza bete beharko dituzte ikasketek, eta horri dagozkio prozesuaren osagai garrantzitsuenetakoak. Hasteko, eta lehen esan bezala, antzekoa izango da ikasketen egitura unibertsitate guztietan. Ikasketak bi ziklotan egongo dira banaturik, graduiko ikasketena batetik eta graduondokoen bestetik. Horrek esan nahi du graduiko ikasketak izango direla gaur egungo lizentziaturak, diplomaturak eta ingeniaritzak. Espainiar Estatuko unibertsitateetan 240 kreditukoa izango da ikasketa horien «tamaina» (Europako beste herri edo estatuetan 180 kreditukoak izango dira graduiko ikasketak, tarte hori, 180 eta 240 kredituen artekoa, onargarria baita). Oraingo ikasketen ezaugarriak erreferentziazat hartzen baditugu, 4 urteko iraupena egokitzen zaio kreditu kopuru

horri. Graduondoko ikasketak, berriz, bi mailatakoak dira, masterreko tituluari dagokiona eta doktorego tituluari dagokiona. Masterreko titulua lortzeko 60 edo 120 kredituko ikasketak burutu eta gainditu behar dira. Ikasketa horiek espezializatuak dira eta, neurri handi batean, graduiko ikasketak baino diziplinartekoagoak. Doktore gradua lortzeko, master bat —doktoregoaren arabera izan behar duena— gainditua eduki behar da, eta horrez gain, doktorego tesi gisa defenditu behar den ikerketa lan bat ere egin behar da. Lan horren iraupena ez dago finkatua, gaiaren eta doktoregaiaren arduraldiaren arabera baita, baina 4 urteko iraupena normaltzat hartzen da bestelako jarduerarik burutzen ez denean. Esan bezala, ebaluatuko duen batzordearen aurrean defenditu behar da tesi lan hori. Doktore maila da erdiets daitekeen akademia mailarik gorena.

Tituluen homologaziorako, baina, ez da nahikoa ikasketen egitura bateratzea. Izan ere, ikasleek egin behar duten lana ere berdin neurtu behar da unibertsitate desberdinetan; hau da, neurtzeko unitate bera erabili behar da toki guztietan, eta ECTS kreditua da akademia lana neurtzeko erabiltzen den unitate hori. Ikasle baten 25 orduko lanaldia neurtzen du ECTS kreditu batek, eta lanaldi horren barruan ikasketekin zerikusia duten jarduera guztiak sartzen dira. Beraz, eskola orduak ditugu alde batetik, teorikoak eta praktikoak, mintegiak barne. Baina horrez gainera, ikasle bakoitzak etxean edo liburutegian egindako lana ere sartzen da. Izan ere, 25 ordu horietako zati txikiena, hamar ordu baino gutxiagokoa baita, ikasgela, laborategi edo mintegian, irakaslea aurrean izanik, egindako lanari dagokio; baina gehiena etxean edo liburutegian egindako lanari dagokio. Kontuak atereaz gero, berehala ikusten da ikasturte batean ikasle batek egin behar duen lanaldia 1.500 ordukoa dela, gutxi gorabehera, ikasturte oso bat (60 kreditu inguru) egin nahi badu. Ikaslearen lanaldia neurtzeko unitatearen aldaketak berekin ekarriko du ikaslearen formaziorako eta gizarte osorako garrantzitsua izango den Bolognako prozesuaren



beste ezaugarri bat, hots, hezkuntza eredu berri bat. Aldaketa horrek izan ditzakeen ondorioak sakonak iruditzen zaizkigunez gero, hurrengo atalean gai horri helduko diogu.

Homologaziorako hirugarren osagaia titulu-gehigarri europarra dugu. Bertan jasotzen dira ikasleak bere ibilbide akademikoan zehar egindako ikasketen ezaugarri nagusiak, eskuratutako gaitasun profesionalak eta, oro har, ikaskuntza prozesuan lortutako emaitzak baloratzeko garrantzitsua den informazioa. Azken buru, gehigarri horren bitartez egiaztatzen eta homologatzen da ikasleak erdietsiriko emaitza akademikoa.

Azkenik, Bolognako prozesua osatzen duten osagai guztiek indarrean egon behar dute 2010erako. Horixe da prozesuan esku hartzen duten estatuek hartu duten eginbidea.

## Irakaskuntza kulturaren eraldaketa

Gorago aipatu dugun moduan, kredituen transferentziarako europar sistema (ECTS), unibertsitate ikasketen garrantasuna eta bateratzea lortzeko oinarrizko lanabesa izateaz gain, hezkuntza eredu berri bat bultzatzen ari da. Eredu horrek ikaskuntzari irakaskuntzari baino garrantzi handiagoa ematen dio eta ikaslea hartzen du irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ardatz. Horrela, irakaslearen kezka nagusia, ezagutzak helaraztea izan ordez, ikasleari *ikasten irakastea* izan beharko du. Horretarako, ikaslea bere ikaskuntza prozesuan zehar gidatu beharko du eta tutoretza oinarrizko lanabesa izango da. Orain arte unibertsitate irakaskuntza funtsean edukiak irakasteaz arduratu bada ere, eszenatoki berrian ikasleen gaitasunak garatzen dituzten ikaskuntza prozesuak hartzen ari dira lehentasuna. Horrela, formazioaren kalitatea areagotu dezakeen eta irakasleen lana modu desberdinean ulertzera eraman diezagukeen irakaskuntza kultura berri bat sortzen ari da Bolognako prozesuaren garapenarekin batera. Kultura berri horren ezaugarri nagusiak *gaitasunetan oinarritutako formazioaren ikuspegia* eta *irakasteko-ikasteko metodologiaren berrikuntza* sakona dira.

Gaitasunetan oinarritutako ikaskuntzan, ikasleari jasotako ezagutza testuinguru zehatz batean erabiltzen jakitea eskatzen zaio. Horrela, ezagutzak helarazteaz gain, bai erakunde desberdinetan eta baita gizartean ere arazoei aurre egiteko behar izango dituen gaitasunak eta balioak garatzen laguntzen zaio. Gaitasunetan oinarritutako curriculumak, izan ere, ezagutzak eta ahalmenak, teoria eta praktika eta ikaskuntza eta ebaluazio jarduerak integratzen ditu. Gaurko ikuspegi kurrikularrak ez bezala, gaitasunetan oinarritutako curriculumak ikasleek formazioa epea amaitzen dutenean egiteko gai izan beharko lirakeenari buruzko, hots, ikaskuntzaren emaitzei buruzko hausnarketa eskatzen du. Hortaz, unibertsitateko irakasleen ikuspegiak gain, erakundeetako nahiz enpresetako arduradunen eta gizarteko beste hainbat eragile garrantzitsuren iritzia kontuan hartu behar dira hausnarketa horretarako. Halaber, ikasleak eskuratu beharko lituzkeen gaitasunen multzoa hartzen da irakaskuntza plangintzaren ardatz bezala. Horrela, plangintza horren helburua gaitasun horiek garatzean datza, eta horrek irakasleen artean lan kooperatiboa edo, gutxienez, irakasgaien arteko nahitaezko koordinazioa eskatzen du helburuetan, edukietan, irakasteko-ikasteko metodologian eta ebaluaziorako metodo zein irizpideetan. Azken batean, gaitasunetan oinarritutako curriculumak indarrean dagoen curriculumak baino lotura handiagoa bilatzen du gizartearekin, eta gizartearen beharrei modu egokiagoan erantzuteko aukera eskaintzen du.

Bestalde, gaitasunetan oinarritutako ikaskuntzak gaur unibertsitateko irakasle gehienek erabiltzen dutenetik desberdina den irakasteko-ikasteko metodologia erabiltzea eskatzen du. Horixe da, hain zuzen ere, lehen aipatu dugun irakaskuntza kultura berri honen beste ezaugarri nagusietariko bat. Bolognako prozesuak dakarkigun testuinguru berrian ohiko irakaskuntza kontzeptuak garrantzia galtzen du, ikaskuntzari lehentasuna emanez. Beraz, bai irakaslearen eginbizunak eta baita ikaslearenak ere aldaketa sakona jasango du. Irakasleari dagokionez, bere jarduera ikaslearen ikas-

kuntzara bideratu beharko da; eta ikasleak ikaskuntza hori eskura dezan, argi eta garbi finkatu beharko ditu ikasleengan lortu nahi dituen emaitzak, emaitza horiek lortzeko aurrera eramango dituen jarduerak eta emaitzak eskuratu dira ziurtatzeko jasoko dituen ebidentziak edo, beste hitzetan, erabiliko duen ebaluazio sistema. Eskola magistralaz gain, irakaskuntzarako beste modalitate batzuk erabili beharko ditu, eta ikasleak benetan ikasten duela ziurtatu ahal izateko, ikasleari bere ikaskuntzaren garapenez jabetzeko eta egiten dituen akatsak zuzentzeko aukera emango dion ebaluazio sistema erabili beharko du. Gainera, irakasgai bakoitzaren eremuan sustatu behar diren gaitasunak titulazio osoan sustatu behar diren gaitasun multzoaren osagai direnez, irakasleak ezingo du isolatuki lan egin; ikasturte berean eskolak ematen dituzten irakasleekin eta, curriculumaren egitura modularra bada, modulu berebetean parte hartzen duten irakasleekin taldean lan egin beharko du. Ikasleari dagokionez, bere eginkizunak aldaketa garrantzitsuak jasoko dituela aurreikus daiteke ere. Horrela, gaur egungo sisteman ikasle askoren rola ezagutzak modu pasiboan jasotze-ra mugatzen bada ere, ikaskuntzan oinarritutako irakaskuntzak rol aktiboagoa eta, batez ere, bere ikaskuntza prozesuarekiko erantzukizun handiagoa eta heldutasun maila garaia-goia eskatzen dio ikasleari.

Goi mailako hezkuntza sisteman, beste edozein eremutan bezala, kultura aldaketa gauzatu dadin hiru baldintza bete behar dira. Alde batetik, antolakuntza kapitala aldatu behar da, hots, titulazioen egitura eta irakaskuntza plangintzak berri behar dira. Bestalde, giza kapitala aldatu behar da; gizabanakoengan, irakasle eta ikasleengan alegia, gaitasun berriak garatu behar dira. Azkenik, emaitzak ebaluatzeko modu berri bat bilatu behar da. Neurketarako prozedura berri horrek bai erakundean eta bai gizabanakoengan jazo-tako aldaketek gizartean balio erantsia eragin dutela egiaztatze-ko aukera eman behar du. Horrela, kultura aldaketaren ondorioz unibertitate irakaskuntzaren eremuan abe-

rasten da, gizabanakoak aberasten dira eta unibertsitateak gizaritari egiten dion ekarpena neurri handian hobetzen da. Gure ustez, Bolognako prozesuak irakaskuntza-kultura berri bat susta dezake eta gazteei gaurko gizarteraren beharrei bai ikuspegi tekniko batetik eta baita ikuspegi etiko batetik ere modu egokiagoan erantzuteko baliabideak eskain diezazkieke. Aipatutako arrazoi guztiengatik, Bolognako prozesua unibertsitarioei eskaintzen diegun formazioaren kalitatea hobetzeko eta gizaritari balio erantsia emateko aukera bezala ikusten dugu Euskal Herriko Unibertsitatean.

## Aurka erabili diren zioak

Bolognako prozesuaren ezaugarriak aurkeztu ditugu orain arte. Aski ezaguna denez, unibertsitate kide zenbait —ikasleak batez ere—, agertu dira prozesu horren aurka. Hori dela eta, ezaugarri horiek aurkezteaz gain, prozesuaren aurka erabili diren zio nagusiak eztabaidatu nahi ditugu, uste baitugu zio horiek oso oinarri ahulak dituztela.

Unibertsitateko arduradunak askotan saiatu gara Bolognako prozesuaren inguruan sortu diren kezkek eta zalantzak argitzen, baina bistan dago ez dugula lortu. Orain arte, behintzat, kontu hauen inguruan gatazkak bai egon dira, baina behar bezalako eztabaidarik ez da egon, gure ustez behintzat. Nahi genuke, beraz, ondoren emango diren arrazoiak eztabaida emankor baterako onuragarriak izatea.

## Unibertsitate ikasketak elitistagoak izango ote dira?

Sarri askotan entzun edo irakurri dugu unibertsitate ikasketak garestiagoak izango direla eta, hori horrela, herritar aberatsak izango direla ikasketa horiek egin ahal izango dituzten bakarrak. Hau da, pobreak, edo baliabide urriko familietako kideak ezin izango direla joan unibertsitatera. Bada, ez dago inolako arrazoirik hori horrela izateko, ez behintzat Bolognako prozesuarekin zerikusirik duen arrazoirik.

Azken batean, unibertsitate ikasketen prezioak herri erakundeek jarriko dituzte, orain arte egin den bezala. Beraz, orain arte irizpide batzuk erabili badira prezio horiek finkatzeko, pentsatzekoa da irizpide berak erabiliko direla aurreantzean ere. Eta horrela izango ez balitz, horrek ez luke zerikusirik izango Europako Unibertsitate Esparruaren sorrarekin. Hau da, Esparru horrek, berez, ez dakar inongo aldaketarik ikasketen prezioei dagokienez. Zenbaitetan esaten da baietz, gradu ikasketak merkeak izango direla eta edonork edo ia edonork egin ahal izango dituela, baina andeatu egingo direla ikasketa horiek merkeak direlako hain zuzen ere; graduondoko ikasketei, berriz, ez omen zaie horri gertatuko, horiexek izango baitira, omen, kalitate garaiko ikasketak. Hau da, hipotesi horren arabera, gradu eta graduondoko mailen arteko bereizketa egongo da eta graduko ikasketak baliabide urriko herritarrentzat mugatuko diren bitartean, dirudunak izango dira graduondoko ikasketak egin ahal izango dituzten bakarrak. Bada, berriro ere, ez dago inolako arrazoirik hori horrela izateko. Graduko ikasketek izango duten maila eta ospea unibertsitate kideon menpe egongo dira; horren menpe eta herri erakundeek eman go dieten babesaren menpe ere. Eta gauza bera esan daiteke graduondoko ikasketei dagokienez.

Izan ere, gaizkiulertu baten ondorioa da graduondoko ikasketak askoz ere garestiagoak direla edo izango direla esatea. Bolognako prozesua hasi arte Espainiar Estatuko unibertsitateek eskaini dituzten graduondoko tituluak bi eratakoak izan dira, doktorego programei zegozkienak batzuk eta master izeneko berezko tituluak besteak. Bada, berezko tituluak izanik, master horien prezioak ez dira prezio publikoak, eta horrek esan nahi du ikasleek tituluen kostu osoa ordaindu behar dutela. Baina Europako Goi Hezkuntzako Esparrua sortzeko prozesuaren funtsezko osagaiak diren master mailako ikasketak ofizialak dira, eta beraz, prezio publikoak dira ordaindu behar direnak, eta unibertsitatean ordaintzen diren beste prezio publikoak bezala, administrazioak ezar-

tzen ditu eta ez dute barne hartzen ikasketen kostu osoa, administrazioak berak babesten baititu, bere diru-laguntzen bitartez, ikasketa horiek. Horren ondorioz, baliabide urriko familiakoak izateagatik master mailako ikasketak orain arte egin ahal izateko aukerarik izan ez duten ikasleek master ofizial berriak egiteko aukera dute orain.

### Enpresen interesen menpe geratuko ote da unibertsitatea?

Berriro ere, ez dago inolako arrazoirik hori horrela izateko. Ikasketen egiturari dagokionez, Europako Goi Hezkuntzako Esparruak dakarren aldaketak ez du inolako eraginik unibertsitate eta enpresen arteko harremanei dagokienez. Ikasketen egitura malguagoa da orain; unibertsitate ikasketak edozein ezagutza eremutan burutu ahal izango dira ikasketa horien iraupena luzeegia izan gabe. Eta gero, nahi duenak, master mailako ikasketak egin ahal izango ditu. Horrek ez du zerikusirik enpresen interesekin; eta zerikusirik izango balu ere, ez dago inongo arrazoirik ikasleentzat txarra dela pentsatzeko.

Bestalde, eta askotan esaten denaren aurka, enpresa interesek ez dituzte baldintzatuko ezarriko diren tituluak eta titulu horien ikasketa planak. Modu batera edo bestera, unibertsitateko kideak izango gara, herri erakundeekin batera, kontu horiei dagozkien erabakiak hartuko ditugunak.

Hori bai, zenbait edukiri eman behar zaien soslaiei dagokienez, edo ikasketen bitartez garatu behar diren trebetasun zein eskumenei dagokienez, kontuan hartu beharko dira lanbide bakoitzaren berezko beharrak. Eta horretarako, enpresetan aritzen direnen iritziak ez du albo batera geratu behar. Horrela, lanean jarduteko tituluaren erabilgarritasuna hobetzen da. Enpresentzat ona da titulua erabilgarria izatea, noski, baina hori ikasleen mesederako da batez ere; halaxe adierazten dute tituludun berriek euren lanerako prestakuntzaz galdetzen zaienean.

## Ikasketak eta lana ezin izango dira aldi berean egin?

Zenbaiten iritziaren arabera, ikasketak eta lana aldi berean ezin izango dira egin. Horixe da plazaratu den beste kezka bat. Dirudenez, ikasketen antolaketa eredu berria, eta batez ere, ECTS kredituen sistema indarrean sartzeak ekarriko dituen ikasteko eta irakasteko prozedura berriak direla medio, arduraldi osoa beharko dute ikasleek ikasketak egiteko. Hau da, ikasleei ez zaie astirik geratuko unibertsitatean dauden bitartean lan egin ahal izateko. Hori uste dutenek, bestalde, pentsatzen dute eredu zaharrean bai egin daitezkeela aldi berean ikasketak eta lana. Baina hori ez da zuzena.

Hemendik aurrera ez da eragozpen berezirik egongo ikasketak eta lana aldi berean egiteko. Eredu berriak berrikuntza asko dakar; hori hala da. Baina berrikuntza horiek ez dute eragotziko aldiberekotasun hori, ikasleek hala nahi badute behintzat. Alde horretatik gauzak ez dira zertan aldatu behar. Eta zerbaitetan aldatzen badira, IKTen erabileraren areagotzean izango da; eta horrek, aldiberekotasuna eragotzi baino, erraztu egin dezake baldin eta IKTen erabileraren kudeaketa egokia bada. Egia da eredu berriaren arabera ikaslearen lana beste era batera antolatu behar dela, baina edozein dela antolaketa hori, beti eskaini behar da zati bateko arduraldiarekin ikasteko aukera.

Jakina, horrek ez du esan nahi ikasturte berean 70 edo 80 kredituko ikasketak eta zenbait lan jarduera aldi berean egin ahal izango direnik. Horrek ez luke izango ez hankarik ez bururik, orain arte izan ez duen bezalaxe. Lanaren eta ikasketen arteko aldiberekotasun hori ahalbidetzeko, ikasketen antolatzeko ereduak moldatu beharko da; baina hori ez du inork zalan-tzan jarri. Izan ere, gero eta ikasle gehiagok baliatuko dute aukera hori, bizitza osorako prestakuntza bultzatzea baita unibertsitatearen helburu garrantzizkoenetako bat. Hortaz, ikasketa eredu berriak —graduako eta graduondoko ikasketetan oinarrituriko eredu berri honek— aurreko ereduak baino aukera gehiago eskaintzen ditu bizitza osorako prestakuntza

horretarako. Eta hori hala da master ofizialek eskaintzen dituzten malgutasun eta moldagarritasun aukerengatik.

## Europako Unibertsitate Esparruak kalte egingo ote dio euskararen estatusari?

Hori ere esan egin da; hau da, euskararen estatusaren eta erabileraren kalterako izango dela Bolognako prozesua. Lehenago adierazi dugun bezala, Bolognarekin edo Bologna gabe, gure esku egongo da hori; unibertsitatearen esku, erakunde gisa, eta unibertsitate kideon esku ere. Orain arte horrela izan da eta horrela izango da hemendik aurrera. Ez dago inolako arrazoirik bestela izateko.

Izan ere, Euskal Herriko Unibertsitateak bere Euskararen Plan Gidaria jarri du indarrean joan den urtean. Euskararen erabilera sustatuko dugu plan horren bitartez eta urrats esanguratsuak egingo ditugu erabilera horren normalizazio bidean. Euskal Herriko Unibertsitateko hizkuntza ofizial biek pareko estatus eta erabilera maila edukitzea da plan horrekin lortu nahi duguna, egiazko unibertsitate eleanitza ikusmiran izanik.

## Europako Unibertsitate Esparruaren onurak

Aurreko lerrootan zati ikuspegiak eskaini ditugu, garrantzi handikoak guztiak, baina orokortasunik gabeak. Orain, berriz, begiratu orokorra eman nahi diogu kontuari. Oraingo unibertsitate ikasketen eredua frankismoaren garaitik datorkigu, eta beraz, oso eredu jakobinoa da, nahiz eta hori ezezaguna den unibertsitateko kide gehienontzat. Hori dela eta, gure ikasketen egitura ez da batere malgua, eta egitura hori espainiarra da, ez dago beste inon. Bestalde, Espainiako Gobernuaren erabakiek erabat baldintzatu dute gure unibertsitate ikasketen eskaintza orain arte, gobernu horri egokitu baitzaio, legez, tituluen izenak eta edukiak finkatzeko eskumena.



Hemendik aurrera, berriz, unibertsitateei egokituko zaie, Bolognako prozesuari esker, eskumen hori. Bestalde, eta titulu bat ezartzeko ahalmena Autonomia Erkidegoko Gobernuari badagokio ere, askoz ere erabakitze ahalmen handiagoa izango dute unibertsitateek. Hori ona da. Batetik, unibertsitateek joko esparru zabalagoa izango dute euren akademia estrategia garatzeko; hau da, askatasun gehiago izango dute eta, ondorioz, erantzukizun handiagoarekin jokatu beharko dute hemendik aurrera. Era horretara, gure unibertsitateak, Euskal Herriko Unibertsitateak, gaitasun handiagoa izango du euskal gizartearen beharrak eta eskarriak asetzeko egokiagoa izango den irakaskuntza eskaintza bat sortzeko.

Uste dugu argi geratu dela zein den gure iritzia. Guk argi ikusten dugu Europako Goi Hezkuntzako Unibertsitate Esparrua aukera paregabea dela gure unibertsitateek aurreranzko jauzia eman dezaten. Aukeratzat hartzen dugu prozesu hori. Prozesuaren aurka daudenek, berriz, mehatxuak baino ez dituzte ikusten. Guk ez dugu esaten mehatxurik ez dagoenik, baina egotekotan, edozein aukerarekin batera etortzen diren horietakoak datezke, ez ikusgaitzak diren mamuen bitartez adierazi edo ikusarazi nahi direnak.¶

# Unibertsitatea etekin ekonomikoaren bila

JOSE MIGUEL CAMPILLO

Unibertsitateko irakaslea

*Jakin* aldizkariaren zenbaki honetako gai nagusia, Bolognako prozesua alegia, aurreko mendeko kontua da. Aspaldian erabaki zuten gutxi batzuen artean European etorkizuneko unibertsitateak nolakoa izan behar duen. Abiadura handiko trenarekin gertatu den bezala, Euskal Herrian ez da benetako eztabaidarik egon, ez gizartean, ezta komunitate unibertsitarioan ere. Momentu honetan, botere politikoa, ekonomikoa eta unibertsitarioa Bolognako prozesua indarrean jartzen ari dira. Eta noski, aspalditik aurreikusten ziren efektuak politikoki azaleratzen ari dira, baliabide ekonomiko urriak dituztenen kalterako, eta enpresarien onerako. Hortaz, berandu dator *Jakin* aldizkariaren zenbaki berezi hau.

[...] even the offer of public education can be challenged as practices that are harmful to the free offer of educational services and subject to WTO sanctions[...]

Testuinguru globala

Nazioarteko Diru Funtza (IMF, [www.imf.org](http://www.imf.org)), Munduko Merkataritza Erakundea (WTO, [www.wto.org](http://www.wto.org)), Munduko

Bankua (WB, [www.worldbank.org](http://www.worldbank.org)), Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakunde (OECD, [www.oecd.org](http://www.oecd.org))... eta era honetako erakunde ez-demokratikoak, neoliberalismoaren aginte-organotzat jo ditzakegu. Erakunde horiek gure bizitza baldintzatzen duen mundu mailako politika *ikusezina* diseinatzen eta ezartzen dute hainbat bitartekoei esker. Neoliberalismoaren ideiei jarraituz, estatuen esku-hartzea murriztu nahi dute ekonomian. Horretaz gain, kapitalismoak etengabeko hedapena behar duenez, *merkatu* berriak topatzeari ekin ziotenean, diru asko mugitzen duten zerbitzu publikoak begiz jo zituzten. Zerbitzu publikoei etekin ekonomikoa ateratzeko, zerbitzuak liberalizatzeko, GATSeko negoziazioak (General Agreement on Trade in Services) abiatu ziren. Beraz, negozioa egiteko, aspalditik dabiltza dena merkatu bihurtu nahian: kulturaren *merkatua*, osasunaren *merkatua*, aisialdiaren *merkatua*, adinekoen *merkatua*...

Hezkuntza, noski, zerbitzu publikoen artean dago, eta GATSeko negoziazioetan sartu zuten. Hezkuntzan diru asko mugitzen denez, negozio interesgarria iruditzen zaie diru-gose direnei. Unibertsitateari dagokionez, adibidez, 2006an 100 milioi ikasle ari ziren graduko ikasketak egiten munduan, eta 2020an 125 milioi ikasle egongo direla aurreikusten da. Gainera, unibertsitatean goi-mailako ikerkuntza egiten dela eta handik patente asko ateratzen direla kontuan hartuta, unibertsitateak daukan garrantzi ekonomikoa begi-bistakoa da.

Zerbitzu publikoaren ardura bakarra merkaturako inoiz errentagarriak izango ez direnentzako hezkuntza ematea izango da. Horrela, horien gizartearekiko bazterketa areagotuko da, besteek aurrera egiten jarraitzen duten bitartean.

## Pribatizazioa

XX. mendearen bukaeran, munduko erakunde kapitalista garrantzitsuenek sakoneko aldaketak bultzatu zituzten hezkuntzan. Geroztik, mundu mailan pribatizazio prozesu az-

karra gertatu da hezkuntzan, eta orokorrean zerbitzu publiko guztietan. 2006an gradua ikasten zuten munduko ikasleen %31,5ek ikastetxe pribatuetan ikasten zuen. Hori bai, datu horrek ez zuen banaketa geografiko uniformerik. Garatze bidean dauden herrialdeetan portzentaje hori handiagoa zen, eta mendebaldeko Europan txikiagoa. Estatu espainoan, adibidez, azken urteotan hamasei unibertsitate pribatu berri sortu dira. Gainera, unibertsitate pribatuetan ikasten duten ikasleen kopurua hirukoiztu da azken hamabost urteotan. Bitartean, unibertsitate publikoetan ikasle-kopurua etengabe jaisten ari da. Beraz, unibertsitate pribatuen negozioa handituz doa etengabe.

XX. mendearen bukaeran, munduan zehar goi-mailako hezkuntza *saltzen* duten korporazio erraldoiak sortu ziren: Apollo Group ([www.apollogrp.edu](http://www.apollogrp.edu)), Laureate Education Inc. ([www.laureate-inc.com](http://www.laureate-inc.com)), Corinthian Colleges Inc. ([www.cci.edu](http://www.cci.edu)), Career Education Corporation ([www.careered.com](http://www.careered.com))... Hezkuntzako korporazio gehienak AEBetan sotu ziren, eta azken urte hauetan etengabeko hedapenean daude. Adibidez, Laureate Education Inc. Latinoamerikan hedapen handia lortzen ari da, eta Europan Universidad Europea de Madrid (UEM) eta Institut Français de Gestion (IFG) bezalako ikastetxeak daude bere eskuetan. Hezkuntzaren korporazio horiek kritika zorrotzak jaso dituzte salmenta-teknika erasokorrek erabiltzeagatik, *saldutako* hezkuntzaren kalitate txarragatik, ikasleentzako gezurrezko diru-laguntzak eskaintzeagatik... Azken finean, hezkuntzaren korporazioen helburu garrantzitsuena dirua egitea dela argi eduki behar dugu, eta inoiz ez da izango gizartea zerbitzatzea. Esate baterako, aurretik aipatutako Apollo Group taldeak 408,8 milioi dolarreko irabaziak izan zituen 2007an. Hori bai, korporazio horiek bestelako helburuak ere badauzkate, adibidez, ideologia kontserbadorea zabaltzea (Laureate Education Inc.). Hezkuntzaren privatizazioarekin datorriguna irudikatu nahi izanez gero, guztiz gomendagarria da korporazio horietako edozeinen webgunean sartzea.

Esan bezala, goi-mailako hezkuntzaren privatizazio prozesua ez da berez gertatzen. Korporazioen esanetara dau-den gobernuek dena erraztu dute. Horretarako, ezinbesteko baldintza sektore publikoa ahultzea da, eta hori finantziario eskasarekin eta lan-baldintza okerrekin lortzen da. Gainera, artifizialki sorturiko gatazken bidez sektore publikoaren prestigioa zikitzen da. Azken urteotako hemerotekak begiratzea besterik ez dago. Azkenik, sektore pribatuari ateak zabaltzen zaizkio diru publikoa xahutu dezan, diru publikoaren privatizazioa bultzatuz. Baskongadetan, adibidez, Iz-tueta legearekin unibertsitate guztiak maila berean geratu ziren. Ordutik, unibertsitate pribatuek errazago izan dute diru publikoa eskuratzea.

Hezkuntzaren ardura behin betiko industria finantzieroak hartu behar du. Hezkuntza ekonomiaren zerbitzuan jarri behar da.

## Zer da Bologna?

Europako Enpresaburuen Mahaiak (ERT, [www.ert.be](http://www.ert.be)) Europako multinazional garrantzitsuenak biltzen ditu, eta *lobby* modura jokatzeko du. ERT taldeak 1988an unibertsitatea-industria foroa sortu zuen; eta handik atera ziren gero Bolognako prozesuaren irizpideak izango zirenak. Bolognako prozesua, berez, Frantzia, Alemania, Italia eta Erresuma Batuko hezkuntza-ministroek abiatu zuten 1999an. Oso adierazgarria da ERT taldeak 2001ean Stockholmen elkartu zen Europako Kontseiluari luzatu zion txostena (*Actions for competitiveness through the knowledge economy in Europe*). Bertan, ERT kezkatu azaltzen zen, hezkuntzan egin nahi zituzten aldaketak oso mantso ezartzen ari zirelako. Morris Tabaksblat-ek, orduko ERTko buruak, gai honetan zazpi urteko atzerapenarekin zebiltzala ohartarazi zien hezkuntza-ministroei.

Bolognako prozesuaren bitartez, European goi-hezkuntzako *merkatua* sortu nahi dute unibertsitateen arteko lehia sustatzeko. Hortaz, Bolognako prozesua mundu mailako joera

neoliberalaren barruan txertatzen da, eta hori areagotzera eta azkartzera dator. Mendeetako esperientzia pilatu duten hezkuntza unibertsitario aberatsak alde batera utzi, eta eredu neoliberal uniforme inposatu nahi dute. *Merkatu* hori sortzeko, sal eta eros daitezkeen gutxieneko hezkuntza-unitateak eratu dituzte, ECTSak (European Credit Transfer System). Horiek goi-hezkuntzako nolabaiteko euroak lirateke. Izatez, Bolognako prozesuaren atzean bloke kapitalisten arteko lehia dago. Ipar Amerikako eta Asia aldeko potentziek era egokian lehiatzeko, Europako multinazionalak beraien esanetara behar dute unibertsitatea (beste gauza batzuen artean). Hori dela eta, Lisboako estrategia deritzonaren barruan kokatzen da Bolognako prozesua.

Baina, Europako gizarte osoa multinazionalen esanetara makurtu behar da? Guztiok multinazionalen zerbitzariak izan behar dugu? Politikari profesionalak aspalditik ari dira enpresarien eta multinazionalen beharrak gizartearenak balira bezala tratatzen (PNV eta UPNren jarduera begiratzea besterik ez dago). Badirudi agintari politikoentzako gizartea enpresaz eta multinazional bezain bano ez dagoela osatuta, eta horien interesak zaintzeaz bano ez dira arduratzen. Egia esateko, politika eta ekonomiaren arteko mugak lausotuta ageri dira, eta politikari-enpresariak guztion dirua kudeatzen dute interes pribatuen onerako. Gaur egungo krisi ekonomikoak oso argi erakusten digunez, herritarren eta multinazionalen interesak aurrez aurre daude. Hori dela eta, Bolognako prozesua, multinazionalen tresna izanik, ez dator Europako herritarren beharrak asetzera.

Bestalde, jakina denez, hezkuntza estatuen zutabe garrantzitsuenetariko bat da. Horregatik, Europako Batasunak ez dauka eskuduntzarik hezkuntza arloan, arrantza sektorean ez bezala. Estatuak hezkuntza-ministroen bitartez kudeatzen dute Bolognako prozesua enpresarien esanetara. Era honetan, estatu bakoitza Bolognako prozesua egoki irizten duen moduan inplementatzen ari da. Gainera, estatuentzat hezkuntza kohesiorako tresna da. Euskal Herriaren kasuan

hori bereziki garrantzitsua da. Euskal Herriak ez du hezkuntza-sistema propiorik, hezkuntzako irizpide garrantzitsuenak Madrilen eta Parisen erabakitzen baitira. Hortaz, Bolognako prozesuak ez du inongo aldaketarik sortzen, etorkizunean ere Madriletik eta Paristik erabakiko dira gure politika unibertsitarioak, orain arte bezala.

## Hezkuntzaren merkantilizazioa

Etekin ekonomikoak lortzearren, ikastetxeen eraginkortasuna handituko dela sinestarazi nahi digute. Hala ere, hezkuntzaren merkantilizazioak ondorio oso kaltegarriak dakartza gizartearentzako: elitizazioa, ikastetxe publikoen degradazioa, interes ekonomikoa ez duten jakintzen bazterketa sistematikoa, hezkuntzako langileen lan-baldintzen kaskartzea... Baskongadetako unibertsitate publikoko Bizkaiko campuseko berrantolaketa aipa daiteke. Bilbon kokatuko dira interes ekonomikoa duten ikasketak, eta baita errektoregoa ere. Gatazkatsuak diren edo interes ekonomikorik gabeko ikasketak, ordea, Leioako eremuan geratuko dira.

Hezkuntza neoliberalaren ezaugarri bat, hezkuntzaren funtzio kulturala ukatzea da. Hezkuntza-sistemaren funtzio bakarra enpresetarako *giza-kapitala* sortzea izan behar duela sinestarazi nahi digute. Neoliberalismoarekin, gizakiak pertsona izatetik baliabide izatera degeneratu gara. Baina, berez, hezkuntza-sistemaren funtzioa urrunago doa. Bizitza profesional duin baterako prestakuntza emateaz gain, askoz orokorragoa (eta garrantzitsuagoa) den bizitza intelektual, estetiko eta sozial egoki baterako oinarriak finkatu behar ditu. Mendetan zehar boteredunek beraien interesak mantendu eta defendatu dituzte hezkuntzaren bitartez. Ikuspegi ezkertiar batetik, berriz, hezkuntzak funtzio askatzailea izan behar du.

Enpresen munduko hizkera nagusitzen ari da hezkuntzan: merkatua, lehiakortasuna, etekinak, eraginkortasuna, malgutasuna... Elkartasuna eta lankidetzaren bezalako hitzak ez dira existitzen, hezkuntza neoliberallean dena lehiatzea da.

Hori bai, neoliberalismoaren hiztegiari erreparatzen badiogu, gauza bitxiak aurkituko ditugu. Esate baterako, *ezagutzaren gizartea* deitzen diote gaur egungo gizarteari. Gure gizartea ezagutzan oinarritzen dela dirudi, baina benetan gure gizartearen zutabe nagusia industria militarra da. Ikerketa militarrean xahutzen dira munduko baliabiderik garrantzitsuenak; eta behin erabilpen militarrek zentzurik ez duenean, hasierako inbertsioa berreskuratzeko gizarteratzen da (internet, mikrouhin-labea...).

Gainera, merkantilizazioarekin filosofia-aldaketa garrantzitsua datorkigu. Ikaslea bezero modura hartzen da, eta ezagutza saldu beharreko merkantziatzat. Beraz, ezagutza ez da jadanik izango gizartearen ondarea, baizik eta gutxi batzuen jabetza, etekin ekonomikoa lortzeko. AEBetako unibertsitate askok irakasleen sorkuntza bereganatzen dute, geroa saldu ahal izateko. Diru publikoarekin finantzaturako ikerketen patenteak ere esku pribatuetara pasatzen ari dira, administrazio publikoaren oniritziarekin.

Filosofia neoliberalari jarraituz, ikastetxeen autonomia goraiatzen da, ikastetxeen arteko lehia bultzatzeko. Askatasuna omen da paradigma berria. Hala ere, norbaitek pentsatzen badu ikastetxeak autonomia horrekin boterearen kontroletik askatuko direla, oso oker dago. Ikastetxeak merkatuaren agindupean jarrita, eta kalitate-agentzien kontrol zorrotzaren bitartez, botereak dena ondo lotuta edukiko du.

## Elitizazioa

Langilearen seme-alabak unibertsitatera! Hori izan zen ezkertiarren aldarrikapena urteetan. Euskal Herrian lortu zen neurri batean, baina goi-mailako ikasketak egiteko aukera gutxituz doa. Unibertsitatean ikastea ez dago edozeinen eskuetan jadanik. Unibertsitate pribatuen matrikulak oso garestiak dira, eta publikoetakoak etengabe igotzen ari dira, Kontsumorako Prezioen Indizea baino gehiago. Bitartean, ikasteko diru-laguntzak edo bekak gero eta urriagoak dira.



Hemendik aurrera, diru nahikoa dutenei kalitatezko hezkuntza emango zaie diruaren truke, eta gainontzekoei nahiko degradaturik geratuko den zerbitzu publikoa eskainiko zaie. Dirua ez daukanak, eta hala ere kalitatezko zentro batean ikasketa unibertsitarioak egin nahi baditu, bi aukera ditu, beka bat lortzea edo kreditu bat eskatzea. AEBetako instituzio publikoetan beka hobesten ziren lehen; gaur egun, ordea, kredituetara jotzen dute kasu gehienetan. Horren eraginez, zorpetze ikaragarria sortzen ari dira. Gaur egun, AEBetan 1970ean baino 200 ordu gehiago lan egiten da urtero, neurri handi batean zorpetze handiaren ondorioz.

Bolognako prozesuarekin sorturiko graduek formazio oso aplikatua eta zehatza emango dute, ikuspegi utilitarista hutsa aplikatuz. Erabilgarritasuna ardatz hartuta, oinarrizko ezagutzak zokoratzen ari dira, ikaslearen formazio integrala baztertuz. Hori bai, lan egin ahal izateko edo kalitatezko lanpostua lortzeko, askoz garestiagoak diren graduondokoak egin beharko dira. Gainera, unibertsitateen tituluek ez dute guztiek balio berdina izango, prestigiozko unibertsitateen tituluek izango dute garrantzia.

## Euskara

Euskarari dagokionez, Bolognako prozesuak atzerakada nabarmena eragingo du unibertsitateen euskalduntze-prozesuan. Graduko ikasketetan espainolarekin eta frantsesarekin borrokatzeaz gain, orain ingelesarekin ere borrokatu beharra dago. Gaur egun, modernitatearen eta lehiakortasunaren izenean, hainbat irakasgai ingelesez eskaintzen hasi dira. Euskarari inoiz bideratu ez zaizkion baliabideak xahutzen dira gaur egun ingelesaren onerako. Bere garaian, gutxieneko ikasle-kopuru bat egon behar zuen euskarazko klase bat martxan jartzeko. Muga hori ez zaio ingelesari ezartzen; berdina da, atzerriko ikasleak erakarri behar omen dira. Atzerriko ikasle gutxi batzuek hemengo ikasle euskaldunek baino garrantzi handiago dute. Euskararen etxean,

euskara beti azkena. Beste aldetik, graduondokoetan euskararen presentzia ia zero da, eta izango da.

Testuinguru neoliberal honetan euskarak ez du balio ekonomikorik, eta horrek bere etorkizuna kolokan jartzen du. Diruak ez du bihotzik ikusteko euskararen balio kulturala, identitarioa, komunikatiboa, sentimentala... Arrasateko Eskola Politeknikoa horren adibide argia da. Ingeniaritza-eskolen artean euskaldunena omen da. Euskal Herrian arlo teknikoetan euskarazko liburu eta materialen behar handia egonik ere, euskarazko ikasmaterialik ez du kaleratzen. Zorritzarrez, irizpide ekonomikoak nagusitzen direnean, gizar-tearekiko konpromisoa desagertzen da. Baskongadetako unibertsitate publikoan antzekoak gertatzen dira. Aurtengo udako ikastaroetako 98 jardueretatik, euskaraz lau baino ez dira izan, eta ingelesez bost! Hemendik aurrera, arrazoi ekonomiko logikoak emango dizkigute euskara baztertze-ko. Azken finean, Bolognako prozesuaren bitartez Europako errealitate anitza poliki-poliki ezabatu nahi dute, uniformizatu. Identitate europar berria sortu ahal izateko, desegin behar dira tokiko identitateak.

## Pedagogia

Bere burua ezkertiartzat jotzen dutenek Bolognako prozesuarekin loturiko eredu pedagogikoa goratzen dute, beste ezeren gainetik. Aztertu beharko litzateke ea benetan hain ona den, baina egia esateko, enpresariei eredu pedagogikoa berdin zaie, beraien helburuak betetzen diren bitartean. Us-tezko eredu pedagogiko aurrerakoia gozoki ederra da, unibertsitatea parametro merkantilistetan murgiltzen den bitartean.

Propaganda ofizialaren arabera, ikaslea omen dago Bolognako prozesuaren erdian. Teknologia berrietan oinarritutako pedagogia-eredu aurrerakoiak iragartzen ari dira unibertsitate guztietan. Ebaluaketa jarraitua eskaintzen da. Edukiei garrantzia kendu eta ikasleak garatzen dituen gaitasunei

erreparatu nahi zaie, ikuspegi utilitarista hutsa erabiliz. Ikasle gutxiko garai honetan, marketin-kanpaina politikak antolatzen dira ikasleak erakartzeko. Halere, esaera zaharrak dioenez: urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau.

## Demokrazia, marketina eta manipulazioa

Demokraziaren izenean Euskal Herrian eskubide-urraketak egunerokoak direnean, Bolognako prozesua nola garatu den ikustea oso adierazgarria da. ERT bezalako erakunde pribatu ez-demokratikoek abiatutako eta kontrolatutako prozesuan, Europako komunitate unibertsitarioak ez du zuzeneko parte hartzerik eduki. Bolognako prozesuaren ildo nagusiak diseinatu ondoren, inplementazioaren ardua utzi zaio komunitate unibertsitarioari. Beraz, Bolognako prozesua ez da demokratikoa izan. Gainera, Euskal Herrian ukazioa bikoitza izan da. Alde batetik, euskal unibertsitariook ez dugu parte hartu prozesuaren diseinuan, baina herri modura ere ez dugu ordezkartzarik eduki. Estatu espainolak eta frantsesak parte hartu dute gure izenean, beraien interesak defendatzeko.

Bolognako prozesuaren inguruko ezjakintasuna nabarmena da; benetako eztabaida faltaren erakuslea da hori. Bolognako prozesuaren atzean zer ezkututzen den esatera oso gutxi ausartu dira. Ikasle Abertzaleak (IA) sindikatuaren lan bikaina aipatu behar da. Unibertsitateko estamentu guztiei interpelazio zuzena egin die, Bolognako prozesuaren inguruan eztabaida publiko argia egiteko. Bolognako prozesuaren inguruko propaganda ofiziala lerro artean irakurri behar dela erakutsi digute. Gezurren eta dogmen bitartez saltzen zaizkio herriari, bere aurkakoak diren neurriak. Bolognako prozesuan, paper idatziaren eta errealtatearen arteko aldea azpimarratu behar da. Justiziaren aurrean guztiok berdinak garela adierazten dute legeek, alabaina errealtate gordinak hori horrela ez dela erakusten digu. Adibidez, Bolognako prozesuak ikasle eta irakasleen mugikortasuna European ze-

har areagotuko duela diote. Aspalditik ari dira hori *bultzatzen* Erasmus programaren bitartez. Hala ere, Erasmus bekak oso diru gutxi ematen die ikasleei. Orduan, ikasleak dirurik ez badu, holako gozokirik nekez dastatu ahal izango du, eta orain arte bezala dirudunak baino ez dira mugituko Europatik. Hortaz, hitz politek ez dute baliorik errealitateak kontrakoa erakusten baldin badigu, eta hori gertatzen zaigu Bolognako prozesuarekin.

Iaren lanaren aurrean agintari unibertsitario espainolek hartu duten jarrera azpimarratzekoa da. Bolognako prozesua salatu dutenen kontra ezagutza falta leporatu diete askotan, eta nolabaiteko demonizazioa gertatu da. Modernizazioaren kontra daudela, atzerakoiak direla, ezjakinak direla... denetik leporatu zaie bide bazterrean uzteko. Hala ere, datu errealetan oinarrikerik ez duen demonizazioa ez da berria gure gizartean. Lemoizko zentral nuklearraren garaian gertatu zen, eta gaur egun, abiadura handiko tren inposatzeko ere erabiltzen ari dira. Bitartean, adierazle esangarri guztiak ezkututzen dizkigute, eta marketinaren bidez gozoki polit bat saltzen ahalegintzen dira. Azkenean, aurkariak isildu nahian, ikasleen aurkako bortizkeria erabili dute.

Lerro hauen helburua ez da Bolognako prozesuaren analisi sakona egitea. Bolognako prozesuaren testuinguru orokorra azaldu da, eta horren inguruko ideia kritiko batzuk baino ez dira aipatu, hausnarketarako eta eztabaidarako aukera ematen dutelako. Bestalde, Bolognako prozesuarekin inposatu nahi duten unibertsitate-eredu berria oraindik ez dago guztiz ezarrita, eta oraindik asko dago esateko eta egiteko. Euskal Herria beti izan da eredugarria borroka-molde guztietan, ea honetan huts egiten ez dugun!¶

# Mondragon Unibertsitatearen bidea Europar Goi-mailako Hezkuntza Eremuan

**JOXE MARI AIZEGA**

Mondragon Unibertsitateko errektoreordea

## Sarrera

Mende hasiera honetan nagusitu diren ahots eta froga ugariari erreparatuta, ezinbestekoa da goi-mailako hezkuntzaren eta unibertsitatearen misioari buruzko hausnarketa abian jartzea. Unibertsitatea, gaur egun, bertara joandako pribilegiatuei zientziak eta ezagutzak irakasten dizkien erakunde bat baino askoz ere gehiago da.

XXI. mendeko Hezkuntzaren Nazioarteko Batzordeak, Jacques Delors buru zuela, 1996an egindako txostenean jasutzen denez:

[...] hezkuntza-erakundeek zenbait erronkari heldu behar diote. Horrela, egungo eta etorkizuneko hiritarrak trebatu behar dituzte, ezagutzen ikas dezaten, bizitza osoko ikaskuntzaren oinarriak finkatuz. Egiten ere ikasi behar dute, eta egoera ezezagunak gainditzeko gaitasunak barneratu. Azkenik, izaten ikasi behar dute, autonomia, zentzuzko bereizmen eta erantzukizun pertsonalaren bidea urratu eta patu kolektiboa mamitzeko gai izan daitezten. Hezkuntzak gizarte-aldaketetara egokitu behar du bere jarduna, betiere jakintzak, printzipioak eta esperientziaren emaitzak hedatzeari utzi gabe [...] (Delors, J. eta beste (1996): *La educación encierra un tesoro*, Madril, Santillana-Unesco).

Mayor Zaragozak unibertsitatearen helburuak zehaztu zituen:

[...] hiritar arduratsuak eta konprometituak heztea; gizarteak behar dituen profesionalak prestatzea; zientzia-ikerkuntza garatzea; kultura iraunaraztea eta irakastea, belaunaldi bakoitzaren ekarpen sortzaile aberasgarria erantsiz; iraganaren oroimen eta etorkizunaren atari bihurtzea; zorrotasunean eta merezimenduetan oinarritutako erakunde kritiko neutrala izatea [...] (Mayor Zaragoza, F. (1998): «La Universidad del siglo XXI en la perspectiva de la Unesco», in J. Porta eta M. Lladonosa (koord.) (1998): *La universidad en el cambio de siglo*, Madril, Alianza).

Mende berri honetan, Europako hezkuntza eremu irekia eta dinamikoa, arian-arian, finkatzea da goi mailako-hezkuntzako erakundeen betekizuna. Ildo horretan, hiru ardatz osagarri jorratu behar dituzte: batetik, hiritarrei ezagutzak etengabe eguneratzeko baliabideak eskaintzea; bestetik, lanaren eta lan-antolamenduaren bilakaeraren ondorioz egun nahitaezkoak diren gaitasunak irakastea, enplegu-ahalmena areagotzeko; eta, azkenik, europar hiritarren aberaste-prozesuaren oinarriak sustatzea.

## Ekonomia eta gizarte garapena Euskadin eta Europan

Ekonomia eta gizarte garapenari lotutako faktoreak oso ugariak dira. Aipa ditzagun batzuk: informazioaren gizartea, zientziaren eta teknikaren iraultza, ekonomiaren globalizazioa, garapen iraunkorra, ezagutzaren gizartea, migrazio-mugimenduak, demografia-bilakaera, enpresa egiteko modu berriak, familia- eta lan-bizitza bateratzeko urratsak...

Europako Kontseiluak 2000ko martxoan Lisboan hitzartutako ituna indarrean sartu zenetik, ezagutzaren Europa sortzea izan da Europar Batasunaren helburu nagusietako bat. Izan ere, Lisboako Agendak eragile eta sektore ugariaren partaidetza aldarrikatu zuen, aipatutako helburua lortzeko.

Europako Kontseiluak unibertsitateen betekizunaren garrantzi berezia nabarmendu zuen, ikerkuntzari eta irakas-

kuntzari lotutako zereginak gauzatu dituelako betidanik, gero eta betebeharrak garrantzitsuagoak baitagozkio egungo berrikuntza-prozesu konplexuan. Halaber, ekonomia-lehiakortasunaren, gizarte-kohesioaren eta eskualde-garapeneren alorretako ekarpenak azpimarratu zituen. Gizarte-kohesioaren alorreko ekarpenen adibide bat unibertsitatearen funtzio hiritarra dugu, hain zuzen.

Europar Batzordeak aldarrikatzen duen bezala, «ikerkuntzaren, hezkuntzaren eta berrikuntzaren gune nagusiak izanik, ekonomiaren eta ezagutzaren gizartearen ardatzak dira unibertsitateak, ikuspegi ugariatik» (*Unibertsitateen betekizuna ezagutzaren Europan*, Batzordearen komunikazioa, COM 2003).

Ezagutzaren gizarteak sorrarazitako espektatibak garatzeko, hezkuntza eta prestakuntza alorreko behar berriei erantzun behar diete unibertsitateek. Ildo horretan, ikasketa zientifiko eta teknikoen, zeharkako gaitasunen eta etengabeko ikaskuntza-aukeren premia gero eta handiagoa dela hartu behar dute kontuan bereziki; premia horri erantzuteko nahitaezkoa baita lotura irekiagoak finkatzea irakaskuntza eta hezkuntza elementu eta maila guztien artean.

Unibertsitateek Lisboako Agendaren helburu nagusiekin bat egitea ez da nahikoa; estrategiak aldatzeari ekin behar diote, ezinbestez. Izan ere, Lisboako Agendak lotura zuzena du unibertsitateen egungo erronka batzuen ardatzekin.

Unibertsitate Sistemak, horren guztiaren ondorioz, edukia eta ikaskuntza-estrategiak eraldatu behar ditu. Gure profesionalek, lan-jardunerako gaitasunak lantzeaz gain, beharrezko trebetasunak eta balioak berenganatu behar dituzte beste edozeren gainetik.

Europako Kontseiluak aldarrikatu bezala,

Europar Batasunaren aktibo nagusia pertsonak dira, ezagutza sortzeko eta hedatzeko oinarriak ez ezik, tokian tokiko gizartearen berrikuntza-ahalmenaren ardatza ere baitira. Oinarrizko gaitasunak eskuratzea funtsezkoa da, alegia, gutxieneko trebetasunak landu behar dira ezagutzaren gizartean eta ekonomian ikasi, lan egin eta errealizatu ahal izateko («Hez-

kuntza eta Prestakuntza 2010», Europako Kontseilua, EEAO, 2004-04-30).

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, erakunde-politiketan unibertsitateen zeregin estrategikoa aitortu izan da. Horren adibidea dugu, besteak beste, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 2010 Plana, EAeko gizarte eta ekonomia berrikuntzaren bigarren aldiaren oinarritzat unibertsitatea jo baitzuen. Hizpide dugun Planaren arabera, unibertsitateak egokitu eta aitzindari edo buru izan behar du bikaintasunari lotutako azterlanetan, ekintzailletza-jarduere-tan eta ezagutza-komunitateetan. Gainera, euskal unibertsitate-sistemak berrikuntza-sistema sustatzen lagundu behar du, bikaintasunaren bidean aurrera egiteko. Era berean, ezagutza-sorkuntzaren alorrean, erreferentzia-gune bihurtu eta talentuak erakartzea lortu behar du. Horrez gain, aberastasuna sortzeko xedean partaidetza aktiboagoa izan behar du, ezagutzen aplikazioaren bidez. Orain arte, unibertsitateari funtsezko zeregina egokitu zaio pertsonen heziketan; hemendik aurrera, beste erronka bati heldu beharko dio: erreferentziazko ikerkuntzaren erronkari, alegia.

## **Europar Goi-mailako Hezkuntza Eremua sortzeko prozesua**

Esan bezala, goi mailako hezkuntza funtsezko faktorea da herri batentzat. Ikerkuntzaren, hezkuntzaren eta berrikuntzaren arteko bidegurutzean egonik, ekonomiaren eta ezagutzaren gizartearen ardatz nagusia da, lehiakor izateko ezinbesteko faktorea.

Ezagutzaren gizarteak, garapen teknologikoak eta globalizazioak ekarri dituzten erronka berriak garatu ahal izateko, unibertsitateek beharizan berriei erantzun behar diete. Ildo horretan, irakaskuntza zientifiko eta teknikoaren beharra, zeharkako kompetentzien garapena eta etengabeko ikaskuntza garatzeko aukerak azpimarratuko ditugu, besteak beste.



Unibertsitateak duen betekizunaren inguruko hausnarke-ta dela eta, azken urteotan hainbat azterketa, txosten eta aitortpen egin dituzte bai mundu mailako bai Europa mailako erakundeek.

Europako unibertsitateak «Boloniako Prozesua» deritzon konbergentzia-prozesuan murgilduta gaude gaur egun. 1999. urtean, «Boloniako Deklarazioa» sinatu zuten herrialde partaideek Europako Hezkuntza Eremua osatzeko konpromisoak jaso zituzten. Era berean, bilera horretan partaideek agerian utzi zuten alde handiak daudela titulazioetan, ikasgaietan eta egituretan eta konplexutasun maila nabarmena dela Europako herrialdeen artean.

1999tik, hezkuntza-ministroen gailurra egin izan da bi urtetik behin, aurrerapausoak aztertzeko eta hurrengo bilera-rako helburuak finkatzeko. 1999an Bolonian elkartu ziren, 2001ean Pragan, 2003an Bergenen eta 2007an Londresen. Hurrengo gailurra 2009an egingo dute, Lovainan.

Konbergentzia-prozesuaren harira egindako deklarazio eta dokumentu guztietatik Europako goi mailako hezkuntza eremuaren funtsezko helburu orokor batzuk ondorioztatu ditzakegu:

- 1) Laneratze maila hobetzea eta ekintzailtza bultzatzea.
- 2) Mugikortasuna sustatzea.
- 3) Europako goi mailako hezkuntza eremua erakargarri egitea munduko gainerako herrialdeentzat.
- 4) Goi mailako hezkuntza-erakundeak Europaren lehia-kortasunaren bultzatzaile izan daitezen lortzea.
- 5) Etengabeko ikaskuntzaren oinarriak finkatzea, eta herritarrei eskura jartzea beharrezkoak dituzten funtsezko gaitasunak.

Euskal unibertsitate-sistema erabat murgildurik dago erronka nagusi horretan. Euskal unibertsitate-sistemari buruzko 3/2004 Legeak xedatzen duenez, EAEn egoitza duten hiru unibertsitateek osatzen dute aipatutako sistema, eta elementu komun batzuk izango dituzte guztiek ere.

Legearen 2. artikulua araber, euskal unibertsitate-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitate guztiek osatzen dute, eta etorkizunean, Eusko Legebiltzarrak sortzen edo onartzen dituenak ere atxikiko zaizkio. Sistemaren baitan, halaber, euskararen kultura-eremuaren baitan dauden beste lurralde batzuetako unibertsitate-erakundeekiko harremanak eta lankidetzak sustatuko dira.

Bestalde, 3. artikulua honako hau zehazten du:

euskal hezkuntza-sistemari lotutako ikuspegi integralaren baitan, euskal unibertsitate-sistemak goi mailako unibertsitate-hezkuntza publikoari dagokion zerbitzua eman behar du, irakaskuntzaren, azterlanen, etengabeko prestakuntzaren, ikerkuntzaren eta ezagutza eta teknologia hedapenaren bidez.

Ildo horretan, berariaz aitortzen du

euskal unibertsitate-sistemak eta sistemaren osagai guztiek, publikoak nahiz pribatuak, euskal gizartean ekonomia, zientzia eta kultura garatzearen alde egingo dutela, eta gizarte-ko hesioa eta hiritarren ongizatea bultzatuko dituztela. Ildo horretan, gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa sortzeko nahia-rekin bat arituko dira beti.

Legearen 51. artikuluan, azkenik, Europako unibertsitate-eremura moldatzeko irizpideak zehazten dira.

Konbergentzia-prozesuak ez du titulazioen homologazio hutsera mugatu behar, haratago doa. Konbergentziaren erronkak eraldaketa dakar, eta eraldaketa hori aprobetxatu behar dugu gure hezkuntza-estrategiara hainbat elementu ekarri eta europar konbergentziaren helburuak lortzeko.

Ditugun erronkei erantzuteko, unibertsitateek honako ezaugarri hauek izango dituen irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesua garatu behar dugu:

1. *Titulazioen edukia*: edukiak/ikasgaiak eta konpetentzia orokorrak garatzea, etorkizuneko profesionalek euren garapen pertsonalerako eta profesionalerako ezinbestekoak izango dituzten gaitasunak eskura ditzaten.

2. *Irakaskuntza-ikaskuntza eredua*: ikaslea oinarri duen eredua, non irakasleak rol berria izango duen eta metodologia aktiboak erabiliko diren.

3. *Laneratzeko orientazioa*: iraunkorra izango den lanpostua lortzeko gaitasunak garatzea eta ekintzailletza sustatzea.

4. *Kalitatea*: Erabateko Kalitatea xede duen kudeaketa-eredua izango da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren oinarria.

Mendeberri proiektua: goi mailako irakaskuntzen erronkei erantzuten dien irakaskuntza-ikaskuntza eredua

Lehen deskribaturiko goi mailako irakaskuntzaren erronkei erantzuna ematea du xede Mondragon Unibertsitatearen heziketa-eredu berriak. Proiektu horrek gure heziketa-ereduaren erabateko aldaketa ekarri du zortzi urteko epean.

## Helburu orokorrak

- Enpresaren eta gizartearen egungo beharretara egokitzeta Mondragon Unibertsitatearen heziketa-eredua.
- Enpresek eta erakundeek eskatzen duten profil profesionala lortzea.
- Ikasleari bere ikaskuntzaren protagonismoa eta ardura ematea.

Helburu horiek lortzeko, Heziketa Eredu berriaren oinarriak zehaztu dira:

- Titulazioek helburu dituzten profil profesionalak definitzea, lanpostuan garatu behar dituzten egiteko profesionalen arabera. Jakintzaren gizarteak sorturiko aldaketei azkartasunez erantzun behar diete profil profesionalak.
- Ikasleen mugikortasuna Europako goi mailako heziketan. Horretarako MUko tituludunak eleanitzak izango dira. EAEko hizkuntza ofizialez (euskaraz eta espainieraz) gain, ingelesa ere sartuko da curriculumen garapenean.
- Zeharkako gaitasun generikoak garatzea, lan-emitza eraginkorrak lortzeko beharrezko trebetasun eta jokabideak sustatzen dituztenak ikaslearengan.

- Komunikaziorako eta informaziorako baliabide teknologikoak erabiltzea, jakintzaren gizartearekin harremana errazteko eta beste ikaskuntza-esparru batzuk sortzeko.
- Balioak sustatzea tituludunengan, eragile ekonomiko eta sozialen eskariei erantzun diezaiten, horien beharretara egokituta, eta heziketa etiko-pertsonala aintzat hartuta, pertsona- eta gizarte-eredu berriak eta hobeak erdiesteko arian-arian.

Profil profesionala definitzeko gaitasunak jasotzen dira, bai titulazio bakoitzeko berariazkoak, bai zeharkakoak edo generikoak, gure unibertsitateko edozein tituludunek bere heziketa-aldian zehar lortu behar dituenak.

Titulazioaren ikasturte bakoitzeko curriculumean, bereiztu egiten da heziketa-prozesuen diseinuan jasotako alderdi horietako bakoitza, eta behar-beharrezkoa da informazioaren eta komunikazioaren gizartearen inguruan ikasketa-planak egoki garatzeko bitarteko berriez hornitzea.

Jarraian MUK garatu duen aldaketa-prozesua zehaztuko dugu.

## Profil profesionalaren diseinua: osagaiak eta jarraituriko prozesua

Unibertsitateko heziketan zehar egresatuak garatu beharreko profil profesionalak aintzat hartzen ditu gaitasun orokorrak. Atalak:

- *Laneko esparrua*. Egresatuak bere lanbide profesionala gara dezakeen lan-esparrua edo -esparruak identifikatzen dira.
- *Funtzio profesionalak*. Burutu beharreko eginkizunen inguruko funtzioak zehazten dira.
- *Berariazko gaitasunak*. Lehen zehazturiko funtzio bakoitzarekin lotura duten berariazko gaitasunak sartzen dira.
- *Zeharkako gaitasunak*. Zazpi gaitasun generiko edo zeharkako zehazten dira unibertsitate guztirako.

- *Gaitasun eleanitzak*. Gaitasunak hiru hizkuntzetan lan-tzen dira, euskaraz, gazteleraz eta ingelesez. Erronka ho-ri betetzeko, MUko irakasleak eleanitzak izango dira, eta, hizkuntza-eskolak eskaintzeaz gain, edozein hiz-kuntza modu naturalean erabiltzea sustatzen duten jar-duerak eta baliabideak izan behar dituzte titulazio ba-koitzeko ikasgaiek.
- *Balioak*. Berdinak dira Mondragon Unibertsitateko egre-satu guztientzat.

Profil profesionala eratzeko prozesuan, ikasleek, ikasle ohiek, gurasoek, enpresetako eta ikastetxeetako zuzendariak eta titulazio horietako adituek hartu dute parte. Gainera, lan-poltsen bidez enplegu-emaileek eskaturiko profesiona-len ezaugarriak aintzat hartu dira. Unibertsitatearen bera-ren misioa, beste unibertsitate batzuk garaturiko lana, Euro-pako goi mailako hezkuntza eta beste dokumentu batzuk ere kontuan izan ditugu.

## Ikasketa-planen birdiseinua: plan berria diagnostikatu eta egin

Behin titulazioen profil profesionala zehaztu ostean, egun-go egoeraren diagnostikoa, edo benetako egoera identifika-tzeko ikerketa sakona, egin zen, profil profesionalean eska-tzen diren gaitasun berriei dagokienez.

Jarraian ikasketa-planen birdiseinua egin zen, eta dizipli-narteko esparruen arabera antolatu ziren. Horri esker, eza-gutzak haien artean lotu, arloen artean ezagutza-transferen-tziak egin eta errealitate profesionalarekiko duten lotura ja-kin dezakegu. Gainera, edukietan progresio- eta koheren-tzia-irizpideak ezartzeko aukera ematen du.

Profil profesionalean zehazturiko konpetentziak diziplinar-teko multzoen arabera banatu dira, eta diziplinarteko mul-tzoek, berriz, zeharkako konpetentzien zeregina hartu dute.

Arazoa konpontzera bideraturiko ikaskuntzan ere lan egi-ten da. Ikasteko, ikasleek benetako arazoak aztertzen dituz-

te, eta arazoa konpontzeko beharrezko ezagutzak lortzeko, berriz, teoriara jotzen dute.

### **Ikasketa-plana ezartzea: prozesu didaktikoak**

Ardatz gisa, hiru metodologia edo prozesu didaktiko hartu dira birdiseinurako: Arazoetan Oinarrituriko Ikaskuntza, Kasuen Ikerketa eta Proiektuetan Oinarrituriko Ikaskuntza; eta progresioa ikasleari exijituriko autonomiaren eta ikaskuntzako helburuen konplexutasunaren arabera finkatu da.

Prozesu didaktikoek diziplinarteko antolakuntza errazten dute, ikasleen autonomia sustatzen dute, eta talde-lana eta, orokorrean, profil profesionalean zehazturiko konpetentzien eta balioen garapena ahalbidetzen dute. Irakasleei dagokienez, prozesu horiek lankidetzat sustatzen dute, eta beraz, talde-lana. Horretaz gain, heziketa-planaren ikuspegi orokorragoa izaten laguntzen du, irakaskuntza tradizionalen sistemek ezaugarri ez dutena.

Ikasleen ebaluaziorako gogoeta ere garrantzitsua izan da, eta dokumentazioa eta eredu berritzaileak sortu behar izan dira ikaskuntzari jarraipena egiteko.

### **Planifikazioa eta ezarpena**

Ikaskuntza sortzeko ezinbestekoa da beharrezko denborekin eta baliabideekin antolatzea eta planifikatzea. Antolatzeko eta planifikatzeko modu hori desberdina da batik bat eskola magistraletan eta diziplina bakarrekoetan oinarrituriko ikaskuntza-ingurunearekiko.

Ikaskuntzarako metodo aktiboek —kasuen ikerketak, arazoen konponketak edo ikasleen kolaborazio-taldeetan proiektuen garapenak— ikasleen ikastorduak seihilekoko faseetara egokitzeko beharra dakarte. Horrekin azpimarratu nahi dugu erakundeak berak eskolen orduen kudeaketa malgutzeko beharra duela.

Heziketa-eredu bat hartzeak —ikaskuntzako hainbat metodologiak osaturikoa— espazio- eta denbora-egertoki be-

riak eskatzen dizkigu. Ikuspegi berri horrek irakasleen ordutegia malguagoa izatea eskatzen du, eta orain arte eratu ditugun espazioen erabilera desberdina izatea. Hori dela eta, nahitaezkoa da malgutasuna ikaskuntzako espazioak eta denborak antolatzeko.

Ikaskuntzako planifikazio prozesuan kontuan izan behar da sistemaren ardatz nagusia: sistemako irakasleak koordinatzea, bai ikasketa-planaren koherentzia bermatzeko, bai hainbat ikasgaitan banaturiko ezagutzen segidan izan daitezkeen gainjarritako gaiak eta hutsuneak identifikatzeko. Horrek koordinazio-bileren denborak aurreikustea exijitzen digu, bilerak irakasleen lan-ordutegian jartzea eta lan-karga gisa hartzea.

Metodo aktibo horiei esker ikasleak talde-lanaren eta komunikazio eraginkorraren gisako zeharkako kompetentziak garatzen ditu, eta partaidetza-gaitasunak eta gaitasun sozialak lortzen. Horretarako, kompetentzia generikoetan hezteko saioak eta horien ebaluazioak koordinatu behar ditugu, ikasgelan batera esku hartzen duten hainbat profiletako irakasleen artean.

1999/2000 ikasturtean hasi zen heziketa-eredua aldatzeko beharrari buruzko eztabaida. 2000/2001 ikasturtean esparrua diseinatu zen, diagnostikoa egin zen eta profil profesionalak zehaztu ziren. 2001/2002 ikasturtean curriculuma birdiseinatzeari ekin zitzaion, ikasketa-planak aldatu ziren, kompetentzien garapena zehaztu zen eta erabili beharreko heziketa-metodologiak identifikatu ziren. 2002/2003 ikasturtean, eredu berria ezartzeko, hiru titulaziotan probako hiru esperientzia egin ziren, eta 2008 urterako Mendeberrititulazio guztietan ezarri da.

## Europako goi hezkuntzaren eremura egokitutako gradu berriak

2007ko urriaren 30ean, 1393/2007 Errege Dekretua, hau da, titulazio berriek jarraitu behar duten araua, argitaratu

zen Estatuko Aldizkari Ofizialean. Unibertsitateek, bada, gradu berriak eskaini ahal izateko, Errege Dekretuak jasotzen dituen irizpide eta arauak bete beharko dituzte.

Hona hemen titulazio berriek izan behar dituzten ezaugarri batzuk:

- Konpetentzia teknikoen eta zeharkako konpetentzien ikaskuntzan oinarritutako titulazio berriak ezarri behar dira.
- Hezkuntza-eredua aldatu egin behar da. Irakaskuntzan oinarritutako ereduaren ordezt, ikaskuntzan oinarritutako sistema finkatu behar da, eta etengabeko ebaluazioa ere bai.
- Irakastorduak kontuan hartu beharrean, ikasleen dedikazioa neurtzen duen europar kredituari sarbidea eman behar zaio.
- Diplomen gehigarri europarra, ikasketa-espeditentaren agiri osagarria, erabiltzen hasi behar da; formatua antzekoa da Europa osoan.

Mondragon Unibertsitatea Europako goi mailako hezkuntza eremura egokitutako graduak ezarri dituen lehen euskal unibertsitatea da.

Aurten, 2008/09 ikasturtean, sei gradu-titulazio berri ari gara ematen. Mendeberrri proiektua garatzeko ahaleginari esker erdietsi dugu aipatutako lorpena eta, era berean, gure ereduaren funtsezko elementuak aintzatetsi eta finkatu dira.

Bestalde, gradu berrien bidez aurrerapausoak eman ditugu gure ereduarekin urratzen ari garen bidean; adibidez, etengabeko ebaluazioaren ezarpenean. Gradu berrietan, amaierako azterketen ordezt, etengabeko ebaluazio-sistema ezarri dugu, ikasleekiko *feedback* edo elkarreragina oinarri hartuta.

## Ondorioak

Unibertsitateek profil pertsonal eta profesional berria garatu behar dute, gizarteraren erronkei erantzuteko. Horretara-



ko, nahitaezkoa da hezkuntza-estrategiak aldatzea, besteak beste.

Ildo horretan, ezagutza teknikoen hedapenean oinarritutako eredia bertan behera utzi eta gaitasunen eta balioen garapenean oinarritutako ereduari eman behar zaio sarbidea. Gainera, aipatutako gaitasunak lantzeko aukera ikasle guztiei bermatu behar zaie.

Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza-ereduak profil pertsonal eta profesional berriari lotutako ezaugarriak ezartzea du helburu, eta honako alderdi hauek uztartzen ditu, hain zuzen:


- Erronka garrantzitsua da hezkuntza-komunitate osoarentzat (irakasleentzat, zerbitzuetako langileentzat eta ikasleentzat).
- Hezkuntza-egitura errotik eraldatu du, inoiz ez bezalako berrikuntzak ezarriz.
- Etengabeko esperimentazio-prozesua abiarazi du. Profil berriaren galderek ez dute erantzun bakarra.

Mendeberri eta Europako goi mailako hezkuntza eremura egokitzeko prozesuan, aurreko ereduarekiko aldaketarik garrantzitsuenak honako hauek direla esan dezakegu:

- Irakaslearen eginkizunean aldaketak (laguntzaile, PBL tutore, aditu... izango da).
- Eskola magistralak beharrean, irakaskuntza-ikaskuntza metodologia berriak intentsiboki erabiltzea.
- Ikasgaien koordinazio bertikala eta horizontala.
- Zeharkako gaitasunak edo gaitasun generikoak garatzea eta ebaluatzea.
- Talde txikiagoak, pertsonalizatuak.
- Hizkuntzen irakaskuntzan talde txikiagoak: taldeak ikasleen mailaren arabera egingo dira.
- Ikasleen ordutegien eta jardueren antolakuntzan aldaketak.
- Ikasleei ordu gehiago ematea lanak bakarka edo taldean egiteko.

- Ebaluazio-ereduan aldaketak, azterketa memoristikoak alde batera utzi eta ebaluazio jarraitua eta iraunkorra ezartzea.

Europar Goi-mailako Hezkuntza Eremuan unibertsitate bakoitzak bere bidea egin behar du, bere hezkuntza eredu propioa garatuz. Mondragon Unibertsitateak bere eredu propioa garatu du, Mendeberrri deitzen dioguna, bertan hainbat hautu egin ditugu, horien artean gradu-titulazio berri guztiak eleanitzak izatea, euskara nagusi izanik. Sistema berriak unibertsitateen autonomia bultzatzen du, eta hori garatu behar dugu bakoitzak gure unibertsitate proiektu propioa.¶



# Bolognako prozesuaren indargune eta ahulguneak

Bolognako prozesuaren abiapuntua Frantzia, Alemania, Italia eta Erresuma Batuko hezkuntza ministroek 1998an egin-dako bilera batean koka daiteke, Europako unibertsitate sistema ezberdinak bateratzeko xedez Goi-mailako Hezkuntza-ren Europar Esparrua (GHEE) sortzeko konpromisoa hartu zutenean. 1999ko ekainean, Europako hogeita bederatzai herrialdetako ministroek Bolognako Adierazpena sinatu zuten, GHEE sustatzeko helburua ezarriz. Bateratze prozesu horretan 46 estatuk hartzen dute parte gaur egun, eta 2010ra arteko epea dute GHEEa behar bezala egokitzeko.

Prozesu honek dakarren unibertsitate ereduak aldeko eta aurkako erantzunak izan ditu hezkuntza eta unibertsitate alorreko sektoreetatik: ikasle eta langileen malgutasuna eta mugikortasuna, ikasketen elitizazioa eta pribatizazioa, titulu-luen homologagarritasuna Europan, ideologia neoliberalari atxikimendua, ikaskuntza-irakaskuntza eredu berritzailea, euskararen lekua unibertsitate-eredu berrian... Eztabaidari jarraipena eman nahi diogu zerbaki honetan, eta horretara dator ondoko iritzi bilketa hau ere.

Bolognako prozesuak dituen indargune eta ahulguneei eta euskal unibertsitate esparruan izan dezakeen eraginari bu-

ruzko eztabaidan sakondu asmoz, gertutik ezagutzen dutenengana jo dugu iritzi eske. Honako auziak planteatu dizkiegu: batetik, Bolognako prozesuaren indargune eta ahulguneei buruzko iritzia, haren aldeko eta aurkako argudioekin batera; bestetik, Euskal Herriko unibertsitatearen esparruan izaten ari den eta izango duen eraginaren inguruko gogoeta.

Galdeketa hau bidali diegunen artean, unibertsitate esparruarekin lotura zuzena duten gizarte-eragile eta banakoak daude: ikasle elkarteak, sindikatuak, hezkuntza erakundeak, herri mugimenduak, eta komunikabideetan-eta auziaren inguruan iritzia plazaratu duten hainbat unibertsitate-irakasle. Azkenean, hamaika lagunen erantzunak jaso ditugu guztira.

Ondoren, iritzi-emaileei egin dizkiegun bi galderak aurkezten ditugu:

**1.** Zein dira Bolognako prozesuaren indarrak eta ahuleziak? Zer duzu haren alde, zer haren kontra?

**2.** Zer eragin izaten ari da eta izango du Bolognako prozesuak Euskal Herriko unibertsitate esparruan?



## JAIONE APALATEGI (NUPeko irakaslea)

**1** ● Epe motzerako ikuspegiak agintzen du gaur egungo bizitzan, eta horrek ez du uzten behar adina gizartearen historiaren gertakari handien inguruan sortutako erantzun zuzenak gogoan gaur eguneratzen eta hala epe luzeagorako balio lezaketen egitasmoak gauzatzen. Bolognako prozesua Europako unibertsitateen artean eremu bateratu baten aldeko apustua zen, hamar urteren buruan egiteko onartua eta 2010erako erabat gauzatuta egotekotan aurreikusi zen goi hezkuntza egitasmoa.

Unibertsitateak, XIII. mendearen hasierako Europan, bi xede nagusi bultzatzeko asmo sendoarekin sortu zirela gogoratuko digute historialariek: lehena, gizakia munduan ahalik eta hobekien kokatzen laguntzeko; eta bigarrena, arrazonamendu kritikoa garatzeko. Xede horiek europarren jite zientifiko eta historikoaren sustrai eta erroak ikertzetik lortuko zirela sinistuz hasi ziren antolatzen hezkuntza erakunde goren horiek. Europar unibertsitatea jakitun-biltegi, ikasleen mintegi, pentsamenduaren gordailu eta aldi berean zabalkunderako toki gorena izateko jaio zela onartzen da; halakoxea izaten jarraitu behar duela aitortzen zaio, baita gaur egun ere.

Bolognako prozesua gorpuztuz joan den Europako Unibertsitate Eremua (EUE) izenez ezagutzen dugun egitasmoan, aurrekari ekonomiko eta soziologikoak atzeman daitezke, baina Erdi Aroko gizartean bere eragin propio izan zuen bezala, egungo ezagutzaren gizartean bereak izan dituzte baita ere, zientzia, kultura eta teknologia arloetan izan diren hazkunde ugariak zein aurrerapen garrantzitsuek bultzatutako egitasmo berria dela onartu baitezakegu. Aldaketa azkarren garaian bizi garela ezin dezakegu uka, baina horiek

behar dituzten berrikuntzak sortu arren, gizarte mailan ez badira txertatzen, jai daukagu. Aldaketa-berrikuntza aipatu lekuan gertatzeko giza zientzietako ikerketei lehentasuna eman behar zaie, eta hori da justu unibertsitatearen berezko zeregina.

Horixe da Bolognako prozesuaren ageriko asmoa —ez baitugu ukatzen bien bitartean beste asmo batzuk ere burutzeko erabiltzen ari denik— eta irakurketa zuzen bat eginez, bere alderdi indartsu bezala agertzen diren alderdi berbertan ahuleziak ere aurreikusten ditugula esango dugu, ondoren azaltzen dugun bezala:

1. *Alderakotasuna. Indarra:* ECTS kredituak, ikasketen egitura (gradu-master-doktoregoa) eta tituluaren gehigarria izeneko tresnak bateratzea suposatzen du. *Ahulezia:* ikasketak baloratzeko orduan tresna berri horiek neurketa eta ebaluazio egokiagoak egiteko asmatuak izan arren, «itxura aldatze» bat besterik ez ematea.

2. *Onespena. Indarra:* EUEn irakasten diren ikasketen arteko hurbilketa bat lortzea, ikas egituretan bateratze edo *tunning* bat lortzeko eta non ikasi izanak baino, zer ikasi izanari lehentasuna emateko asmoarekin, eta edozein herrialdetan ikasten den ikasketa batek zuzeneko baliokidetzeta eta aitortpena edukitzea bai EUE barrutian zein beste lau kontinenteetan. *Ahulezia:* ikas gaitasunen, maila eta ondorioen inguruko definizio egoki bat ez bateratu eta erabiltzea.

3. *Kalitatea. Indarra:* irakaskuntza-ikaskuntzaren ebaluaketa eta kreditu sistemak tresnen bateratzea suposatzen du, ikaslearen lan autonomia jarduera didaktiko guztien oinarrian dagoelarik; eta irakaslearen jarduera guztia, berriz, teorikoa zein praktikoa, horren zerbitzura dago, tutoretzak dimentsio berri bat hartzen duelarik metodologia berri honetan. *Ahulezia:* kalitatearen interpretazio ezberdinetatik abiatzea eta benetako irizpide gardenak, komunak eta zuzenak ez lortzea.

4. *Mugikortasuna. Indarra:* EUE osotik ikasleen eta irakasleen (eta neurri batean, baita ere langileriaren) mugikor-

tasun aukerak arautu eta programatuko dituen legedi bakar bat izango da. *Ahulezia*: hizkuntzak menperatzea, sarbidea eta onarpena erraztea, ikasketen onespén zuzena eta finantzaketa errotzen ari dela oraindik...

5. *Irabazpidea edo enplegu bidea erraztea*. *Indarra*: europar merkatua bat baldin bada, lan merkatuak ere bakarra izan beharko du. Heziketa iraunkorra berea egingo duen lan merkatuaz ariko ginatke gainera. *Ahulezia*: herrialde bakoitzean araututako lanbideetara iristeko mugak, hots, irakaskuntza, medikuntza eta erizaintza, zuzenbidea...

Arrazonamendu kritikoa eraikitzaile izan behar duen unibertsitateko irakasleriak, Bolognako prozesuaren *indargune eta ahuleziak* atzeman eta aurre hartzearen ardura ezin duela zokoratu pentsatu izan dugu hasiera-hasieratik, kasurik hoberenean ere, beste adimen mota batzuen printzipioei heltzen dietela defendatuta ere. Unibertsitateak, pentsamenduaren sehaska izaten jarraitu behar duen neurrian, ezin du zokoratu inongo giza adimenik, baizik eta guztien arteko zubiak eraiki behar ditu, arrazonamendu kritikoa guztien bilgune delarik.

**2.** Bolognako prozesuaren izatearen eta asmoen inguru-minguruan askotan desitxuratu egin dela ohartu gara, oraintxe bertan ere gertatzen den antzera, hots, EUeren Europa zein Euskal Herri mailan, unibertsitateko hezkuntza elkarteak osatzen dutenengan zein gizarteko eragileetako zenbait multzotan nabarmentzen delarik. Nekez gailendu daitezke desitxuratze horiek, batik bat, komunikabide azkarren bitartez iristen direnean, nahiz eta iturri berberetan itxuratzearen aldeko eragileen informazioa ere zabaltzen den. Itxuratze-desitxuratze jarrera horiek, prozesuaren indarren edo ahuleziekin, noski, bat ez etortzea ekartzen dute.

Bestalde, aldekoen gehiengoa irakasleriaren multzoa osatzen dutenena dela gogoratu dezakegu, eta aurkakoena, berriz, ikasleriaren aldetik datorrena dela. Datu hori adierazgarria bezain logikoa dela uste dugu. Neurri handi batean,

beti ere, irakasleria da prozesu horrek eskatzen dituen ego-  
kitzapenen eragile zuzena, eta ikasleria berriz, barne iraul-  
tzaren hartzailea. Bestetik, berriz, datua logikoa dela ere  
esan daiteke, irakasleei ez zaielako komeni prozesu horren  
baldintza berriei aurre ez egitea, gertatuko ez direlako edo  
aldaketak bere lanarekin ezer ikustekorik izango ez dutela-  
ko sinismen antzu bezain hutsean erortzea —eta badira ho-  
rietariko franko—. Ikasleen logika ere ulergarria da, neurri  
batean, jakin baitute ikas metodologia berriaren zioa be-  
raiek izango direla, eta beraiekin inork ez duela kontatu ke-  
xatzen dira... Baina logika hori bideratzeko, jakin behar da  
neurri berri hau ez dela hain «berria»; izan ere, unibertsita-  
teari betidanik irakaskuntza-ikerikuntza binomio banaezi-  
nak garatzeko eskatu zaio, baina ikasleen formazioan ezar-  
tzeko eskatuz. Aipatu sailkapenetan «ongi» sailkatuak irte-  
ten diren unibertsitateek ikaslea euren abiapuntu eta hel-  
muga bezala hartzen dutela ikusten da.

Euskal unibertsitatearen esparruan Bologna izaten ari den  
eta izango duen eragina bi mailatan ematen dela esango ge-  
nuke:

*Bat.* Euskal Herritik begiratuta estaturik gabeko uniber-  
sitateak direnez gureak, euskararekin batera beste hizkun-  
tza ofizial batzuk ere baditugunez eta gainera ofizialtasun  
hori ezberdina denez gure campusetan zehar, Bolognako  
prozesuan ezin gara agertu nortasun bateratu batekin, eta  
horrek bere ordainak ditu gure hizkuntza errotzeko eta bes-  
teekiko harremana mugatzeko beste edozein herrialdetako  
unibertsitateek egiten duten bezalaxe; baina orain arte ere  
halaxe izan da!

*Bi.* Oro har, Bolognako prozesuaren asmo indartsuak arris-  
kuan jarri direla ohartu gaitezke *nazioarteko unibertsitateen*  
*sailkapenak* egiten hasi ziren unetik (Shangain 2003an egin-  
dakoa da lehena —[www.arwu.org](http://www.arwu.org)—) zein *EUE mailako sail-*  
*kapenak* egiten hasi zirenetik (1998an Alemanian Centrum  
für Hochschulentwicklung egindako sailkapena izan da ger-  
maniar unibertsitateen erreferentzia; 2004an Erresuma Ba-



tuak ere egin zuen —[www.timeshighereducation.co.uk](http://www.timeshighereducation.co.uk)—; eta Herbehereetako Leidenen egindakoa da hirugarrena —[www.cwts.nl/LeidenRankingWebSite.html](http://www.cwts.nl/LeidenRankingWebSite.html)—). Sailkapen horiek, bederen, bi motatako unibertsitateak atzematea ekarri dute: lege bihurtu diren sailkapen horien jarraitzaile sutsuak, noski sailkapen horietan agertzen diren multzoa osatzen dutenak, eta beste guztiak. Eta zurrumbilo horretatik ateratzeko, EUEko unibertsitate guztiak baliokide direla sinistearen mitoa ez legoke gaizki, baina posible ote? Horren argitan, non geratuko ote lirateke euskal esparruko unibertsitateak? Norberak erantzun dezala.

Bukatzeko, europar unibertsitatearen berezko izatea babesten jarraitzekotan (eta halaxe dirudi bazter guztietan ematen zaion babesa eta aitortzen zaion balioa ikusi eta gero), gaurko europar erronkei erantzun beharko diela eskatzea begi bistakoa da —eta horrek tokian tokiko erronkei erantzutea eskatzen du, eta, aldi berean, era honetara baka-rik arituko da, munduak dituen erronkei aurre egiten, baita ere—. Erronka berrietara egokitu beharrak bere zeregina eraginkortasunez garatzen jarraitzeko eskatzen dio unibertsitateari, esanen baita, egungo gizartearen mugarri berriak zein diren pentsatu, aurkitu, argudiatu, zabaldu eta bere jarduera guztiak berrantolatzea suposatuko dio. Badaukagu zer eginga Euskal Herriko unibertsitateetatik ere!¶



**ABEL ARIZNABARRETA (EHUko irakaslea)**

Lehenengo eta behin, zertaz ari gara Bologna aipatzean? Nagusiki, prozesu bat eta helburu bat. Europar konbergentziaren alde bat, unibertsitate ikasketak Europa mailan ordenatzeko eta baliokidetzeko prozesua, hain zuzen. Horixe da esplizituki adierazten zaigun helburua behintzat.

Baina horren atzean, ez gara erabat inozoak ere, badago, eta hortik badatorrigu kezkarik, beste mota bateko asmorik. Jakin badakigu ikasketen baliokidetzaren atzean Europan nagusitzen ari diren haize neoliberalen aldeko norabidean abiatzea planteatzen dela, eta kompetenzien diskurtsoaren azpian jada hemen dugun gizarte eta ekonomia eredu indartzera letorkeen hiritar eta ekoizle profil jakin bat marrazten dela.

Helburu esplizituari dagokionez, zer esan dezakegu, bada? Erreforma guztiak, hezkuntza arlokoak bederen, beti dute gizarte aldaketek eragindako beharrian berriei hobeto erantzuteko asmo txalogarria, edota hezkuntzako maila desberdinetan atzemandako gabezia, desoreka, zailtasun, eta abar gainditze aldera egindako gogoeta baten ondoriozko planteamendu edo ahalegin arrazoizko bat. Hori ez dago ukatzerik. Egia esan, beti ere aurreikuspen ideologiko batzuetatik abiatuz eta planteamendu horren atzean dagoen gizarte antolatzeko eredu eta balio-eskala jakin bat indartzeko helburuz. Oraingo honetan ere, ezartzera doan ereduaren oinarrian atzematen dugunarekin baditugu geure errezelo-zantzuak.

Benoa... eta daukagunaren atzean dagoenarekin? Eta gaurkoaren bidez indartzen ari garen gizarte ereduarekin? Kontent sentitzen al gara (ez diot «konforme» edo «eroso») daukagun unibertsitate eredu honekin?

Ez bagaude ados daukagunarekin, beraz, aukera bat bezala har dezagun Bologna. Ez gaude ados egungoaren egitura-keta erabat bertikalarekin; neurri handi batean sailetan soilik oinarritutako sistemarekin; Fakultate edota Eskola mailako proiektu hezitzaile konpartituen gabeziarekin; irakaslea hezitzaile izateari ematen zaion balio eskasarekin; gogoeta kritiko baterako espazio faltarekin; ikaslea (hots, pertsona ikasketaria) xede duen heziketa baten aldeko planteamendu ezarekin; partaidetza sistema ez-orekatuarekin; publikotasuna ulertzeko erarekin...

Hori guztia ez du Bolognak konponduko, jakina, ezta unibertsitatearen baitako iraultza orokor bat ekarriko ere. Ez dut uste. Geuk ez badugu horretara jokatzeko ez du inork gure orde z egingo. Edo bai, eta hori okerragoa litzateke, agian. Ez du konponduko, baina bai ematen digu proiektu konpartituak abian jartzeko lehentasunezko esparruak identifikatzeko helburuz gogoeta prozesuak bideratzeko aukera, besterik ezean. Eta ez da gutxi, irakaskuntzari berari buruzko gogoeta konpartitu eta diziplinartekoari hain balioespen eskasa eta dedikazio urria eskaintzen dion unibertsitate honetan. Azken hilabeteotan, norabide horretan zerbait mugitzen aritu garelakoan nago. Ez da erraza izan baina bai aberasgarria, nire ustetan. Ikasketa planak egiteak ezinbestean eskatzen duen elkarlanaz ari naiz, eta gure kasuan, Irakasleen Unibertsitate Eskoletakook elkarren artean diseinu bakar eta bateratu bat egin beharraz, hain zuzen.

Beraz, eta jada lan horretan sartuta gaudenez, arestian aipatutako Europatik datozen haizeek aurreratzen diguten norabidea gehiegi gustatzen ez zaigun neurrian, ahalegindu beharko ginatke irizpide argi baten arabera jokatzeko: kompetentzietan oinarritutako ikasketen curriculumak diseinatzerakoan, lan-munduan txertatzera zuzendutako kompetentzia jakin batzuen garapena lortzeak ezin dezakeela izan irizpide bakarra. Badaude hor gizartean modu kritiko eta arduratsu batez parte hartzeko garatu beharreko funtsezko kompetentziak ere, besteak bezain garrantzitsuak direnak

eta unibertsitateak ikasleen prestakuntza zientifikoaz gain bermatu beharrekoak.

Bestalde, irakaskuntzaren planteamendu horrek dakarren irakasleoneginkizun berria eta lan egiteko modu indibidualista gaudituz talde lana egitera behartuko gaituen aukera horren onurak aprobetxatu ahal izateko ezinbesteko eta aurretiazko baldintzak ezarriz joateko garaian ere bagaudela uste dut. Batez ere, azpiegitura, taldeen antolaketa eta irakasleok geure ardura zuzen eta arretapean izango dugun ikasle kopurua egokitzeko neurriak hartzeko unea dela uste dut. Nola, bestela, egia bihurtu ikaslearen ikasketa eta garapen prozesuaren banan banako jarraipena egitea?; nola azken azterketatik haratago doan ebaluazio jarraikia bideratzea eta ikaslearen motibazioan eraginez berarengan jakin-mina sortaraztea? Berba polit hutsetan gera ez daitezten, askotxo aldatu beharrean gaudelakoan nago. Eta, egia esan, irakaskuntzan (unibertsitate aurrekoan, batik bat) ezagutzea egokitu zaizkidan hezkuntza-erreformen harira leporatutako eskarmentuak esaten didanez, hortik etorri dira, neurri handi batean behintzat, munduko intentzio onenez eta koherentzia osoz ezarritako erreforma horien porrotak. Eta hori esatean pentsatzen ari naiz, ez bakarrik irakasleoneginkuntzarako plangintza koordinatu baten beharrean —horri aurreikusitakoa baiteritzot, bestela...—, baizik eta egokitzapen horrek guztiak dakarren egitura eta pertsonal aldeko politikan pentsatu eta aurrera eraman beharreko inbertsioetan batik bat.

Hortik ikusten dizkiot nik ahuleziak. Ibili badabilta hegan beste hainbat zalantzazko galdera ere. Besteak beste, euskarak galdu egin dezakeela? Nazio planteamendu batetik begiraturaz zatiketa mantentzera datorrela? Eta zergatik ez dugu sakontzen daukagun unibertsitatea erregulatzen duen arau-markoak ematen digun aukeran? Eta zergatik ez gara, orain artean behintzat, «Euskal» kontzeptua garatzeko indarrean dagoen Unibertsitate Lege horrek eskaintzen dituen bideak garatzeko gai izan (hau da, unibertsitateen arteko el-

karlana bultzatzea, edonon kokatuta egon arren, izaera hori elkarlanean lantzea euskaraz eta euskal gaiez arituz ikerketan, berrikuntzan, irakaskuntzan eta abar). Beraz, horretarako mugak ez dira Bolognaren planteamenduarekin etorriko, jada geuregan ditugulakoan nago. Hori ere, Bolognarekin edo Bologna gabe, geure esku egon da eta gero ere hor izango dugu. Eta hasteko, Euskal Herriko unibertsitateen artean, gure herriaren garapen sozial, kultural, ekonomiko eta zientifikoari begira izan beharreko ardura aintzat hartuta, proiektu konpartituak bideratzea. Horrela ulertzen dugu Euskal Herrirako unibertsitate bat, eta hortik letorkioke izaera «publikoa» (eta ez titulartasunaren arabera soilik), ikuspegi unibertsal batetik, txertatuta dagoen gizarteari erantzun egoki eta osatu bat eskaintzen dion heinean, hain zuzen.¶



ARATZ CASTRO / IMANOL URRUTXUA  
(Lurgorri Ikasle Elkarte)

2010, Bolonia egitasmoa bukatu ala hasteko urtea?

Goi Hezkuntzarako Europar Esparrua guztiz ezezaguna izan da guretzat eta horrela izaten jarraitzen du. Egoera hori, hartutako informazio eskasak ez ezik, ikasleen aldeko interes faltak ere eragin du. Baina, hezkuntzaren erreforma behin mahaigaineratuta, ikasleak garen aldetik geure buruari egin beharko geniokeen lehen galdera honakoa litzateke: benetan dugu beharrezko europar hezkuntza esparruaren erreforma? Baiezko erantzuna emango genuke guk. Europa indartsua eta eragilea nahi badugu, merkatu batutik eta moneta bakarretik haratagoko pausoa eman beharra dugu. Europa kulturalaren eraikuntzarako eta hezkuntza bateratua- ren aldeko urratsa eman behar dugu. Zergatik mugikortasunari edo ikasketak Europa mailan onartzeari uko egin?

Gaur egunean indarrean dagoen sistemak irakaslearen inguruan oinarritzen du dena, garrantzizkoena diziplina zehatza ikastea da. Baina planteatzen den erreforma honek trebeziak eta gaitasunak garatzeko aukerak ematen ditu, talde lana kasu; gaur egun trebetasun horiek eskolaz kanpo garatzen dira. Bolonia Egitasmo honen bidez ikuspegi berria ematen zaio irakaskuntzari, eta ikaslearen beharrianak lehenesten dira irakaslearen azalpenen gainera. Azken finean, parte-hartze eta inplikazio handiagoa eskatzen da ikaslearen aldetik, eta ikasteko tekniken hobekuntza irakasleari dago-kionez. Kontuan hartu behar da eredu berriak unibertsitateen arteko lehiakortasun handiagoa suposatuko duela eta horiek gero eta eskaintza erakargarriagoak planteatzera egongo direla derrigortuta. Ikasketa egitasmoen etengabeko ja-

rraipena egin beharko dute; eta, beste alde batetik, eskakizun maila handiagoa eman beharko da gure ikasketekiko.

GHEE delako horrek hiru zutabetan oinarritzen du bere funtsa: ECTS kreditu sistema, tituluaren europar gehigarria (SET-TEO) eta hezkuntzaren bat-egitea titulu katalogo berriarekin.

Lehenengo eta behin, europar kreditu sistemak garrantzi eta indar handiagoa eman nahi dio ikaslearen ahaleginari: balorazioa ez da egingo soilik azken azterketa baten arabera, baizik eta etengabeko ebaluaketa egongo da eta kontuan hartuko dira ikasteari eman zaizkion orduak. Dena dela, Lurgorrrin sistema biak uztartzearen aldeko agertu gara, horrela bermea eskaintzen zaielarik ikasteko lan egin behar dutenei.

Bigarren tokian dugu tituluaren gehigarria, hau da, Europa mailan egindako ikasketak onartu egiten direla. Gauzak horrela, ikasleak bere ikasketak Bilbon hasi ahal izango ditu, Kopenhage hirian jarraitu eta Berlinen amaitu. Hala eta guztiz ere, neurri hauekin batera beka sistema ona ezarri beharko da, mugikortasun hori ahalbidetuko duena.

Azken puntuak daude ikasketa planak, eta aldi horretan gaude une honetan. Prozesu honetan berebiziko garrantzia du ikasleen konpromisoak, hori funtsezkoa baita. Argi izan behar dugu egitasmo berriak idazteko ardura hartu duten batzordeetako kideak ikasleak zein irakasleak direla. Azken horiek, batzuetan, sailen interesez arduratzen dira, hau da, sailarentzako al baita eta irakastordu gehien bermatzeaz, ikasketak planak benetan eskatzen duena aztertu beharrean. Horregatik da premiazkoa batzorde horietan ikasleek parte hartzea, eta horrela azpimarratzen dugu guk aukera dugun guztietan.

Lurgorrrin ezinbesteko jotzen dugu europar hezkuntza sistema oinarritzeko marko teorikoa ezartzea; baina, modu berean, funtsezkoa da praktikak arestian azaldutako guztia errespetatzea, ez dezan bere zentzua gal filosofia eta praktikaren arteko ibilbide horretan. Horretarako ezinbestekoa da ikasleok erabakiak hartzen diren erakundeetan parte har-

tzea. Titulazio maparen eraketa ez da erabakitzen esparru politikoa, baizik eta unibertsitateko zuzendaritza organoetan. Horixe da ikasleok gure parte-hartzea bilatu behar dugun tokia. Ezin da prozesuarekin jarrera kritikoa mantendu eta aldi berean erreformarako prozesutik kanpo geratu.

Bolonia egitasmoari egiten zaion kritikarik zorrotzena azpimarratu nahi dugu, hori baita euskara unibertsitate esparrutik desagertzea. Honen inguruan esan behar dugu gure indarrak jarri behar ditugula gaurko beharrezanetara egokitutako hezkuntza erdiesteko, baina orain arte lortutakoari kalte egin gabe. Ezin da pentsatu uko egiten diogula hainbat kostata lortu dugunari. Honakoa aukera da Europarekin pareka gaitezen. Gaur egun batzuek salatzen dute harmonizazioak berarekin batera ekarriko duela euskara desagertzea gure unibertsitate sisteman. Baieztapen hori indargabetu nahi dugu, ez baitauka arrazoirik, Eusko Jaurlaritzaren aldetik zein unibertsitate aldetik garatzen ari diren politikek bermatu egiten baitute ikasketa prozesu osoa euskaraz egiteko aukera. Hori ezkututzen dutenen arrazoi bakarra da alderdikeria eta beren interes propioa.

Gure ustez, ingelesez emandako ikasgaiak ez ezartzearekin oztopoa jartzen diogu europar eraikuntzari. Horrek ate asko itxiko lizkioke unibertsitateari eta ikasleriari. Nazioarte mailan egongo den unibertsitate sistema nahi badugu, eredu lehiakorren alde egin behar dugu, eta beti eskubide tradizionalekin oreka bilatzen dugularik. Kontuan har dezagun europar ikasleak ez direla Euskadira hurbiltzen ez dugulako oraindik hezkuntza esparrua modernizatzearen aldeko pausoa eman.

Baina erreforma orok berarekin dakar inbertsioa egin beharra. Horregatik uste dugu hezkuntzaren erreforma honekin batera joan beharko dutela aurrekontu inbertsio handiek. Kontuan hartu behar da helburuetariko bat dela tutorizatutako hezkuntzarako bidean jartzea. Horrek instituzioen aldetik eskatzen du unibertsitate azpiegiturak egokitzea; baina, benetako aldaketa nahi badugu, unibertsitateak in-



bertitu egin beharko du irakasleriak bere lan egiteko metodologia goitik behera alda dezan.

Arestian aipatu dugunez, indartu nahi den bestelako gaia da ikasleen mugikortasuna Europa mailako unibertsitateetan. Horrek diru-laguntzak emateko sistema sendoa eskatzen du. LOU legean bermatu ohi da «ikasleen mugikortasuna [...] ikasketei laguntzeko beka, laguntasun eta kreditu sistemaren bidez», eta horrekin batera ezartzen da «Europar Batasuneko beka eta laguntza programak osatuko dituztela». Europa alde batera utzita eta Euskadira itzuliz, araudiak ezartzen duenez, «Eusko Jaurlaritzak unibertsitateko hiritargoiari berariaz zuzendutako kreditu sistema arbitratuko du goi mailako ikasketarako eskubidea bermatzeko eta inor ez dadin baztertua izan arrazoi ekonomikoengatik». Horrela, bada, Espainiar Estatuko Aldizkari Ofizialean 2007ko martxoaren 21ean argitaratutako ebazpenean Espainiar Estatuan lehen aldiz agertzen da banketxeei egiten zaien deialdia «unibertsitate ikasketak ikasleei errazteko mailegu programan» parte har dezaten. Ikasle erkidegoan zalantzak sortu dira «beka-mailegu» sistema horren inguruan. Ikasleen artean sortzen den ustea da sistema horrek ordezkaturako duela instituzio publikoek gutxien duen ikasleari laguntzeko mantentzen duen beka sistema. Mailegu horiekin, ikasleak dirua itzuli beharko lioke banketxeari ikasketak amaitu ondoren, bestelako maileguekin gertatzen den moduan.

Ahaztu behar ez den gauza da bekak Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak direla eta, beraz, Gobernu Zentralak bekak kendu eta horien ordezkaturako maileguak ezartzeko egiten duen saiakerak ez liokeela EAeko ikasleari eragingo. Ez dauka zentzurik beka-mailegu sistemak beka sistema ordezkaturako duela mantentzen duen salaketak.

Beste alde batetik, Lurgorriren ustez mailegu mota horrek ez du beka publikoekin bateraezina izan behar. Guk aldearantzizkoa dela esango genuke. Mailegu horiek aukera berriak eskaintzen dituzte, batez ere diru sarrera handirik izan gabe instituzio publikotik kanpo geratzen diren ikasleei be-

gira. Zentzu honetan, ikasleen borroka eta lana bideratu beharko da banketxeek mailegu horiek emateko orduan ahalik eta baldintzarik onenetan eman ditzaten eta ikaslearentzako ahalik eta berme handienekin; eta, jakina, administrazioari eskatu behar diogu beka publikoak mantentzen dituzan.

Azken finean, Lurgorriren ustez, GHEE sistema hori da unibertsitate sistema XXI. mendeko gizarte eskarietara egokitzeko aukera. Oso gizarte lehiakorrean bizi gara eta gure unibertsitateek kalitatezko hezkuntza bermatu beharko dugu Europa mailan lehiakorrak izan gaituzen. Horretarako, unibertsitate arteko mugikortasunaren alde egin beharra dugu.

Gure elkarteak ikasleriaren ikaskuntza eta mugikortasuna bermatuko duen beka sistema defendatuko du. Ikasleok existitu egin behar dugu beka sistema hobetzea eta hezkuntzaren kalitatea bermatzea. Epe laburrean, 2010 urtean emango zaio hasiera benetako Boloniako prozesuari.¶



## JON ANDER ELORRIAGA (LAB)

**1** ● Goi mailako hezkuntza europarrean abiatutako erreformak askogatik gainditzen du Bolognako Adierazpenarekin abiarazitako egiturazko erreforma. Europar Batasunak Lisboako Adierazpenarekin markatu zituen unibertsitatearako aldaketa estrategikoak: unibertsitateak Europaren lehiakortasunaren aldeko zerbitzuan jarri behar dira, Europaren hazkunde ekonomikoa (enplegua, gizarte-kohesioa eta abar) bermatzeko.

Hortaz, Europako Goi mailako Hezkuntza Esparruaren egokitzapenaren xede nagusiak ez dira tituluen homologazioa, titulatu berrien mugikortasuna edota enplegarritasuna; aldiz, Europako Ikerkuntza Esparruaren (EIE) osaketan kokatzen da. Europar Unibertsitate Esparruaren (EUE) egokitzapenak eliteko unibertsitateak ikerkuntzara eta ikerlarien prestakuntzara dedikatzea bilatzen du.

Europako Goi-mailako Hezkuntzaren eraldaketaren diseinua eta kontrola Europar Batasunaren eta estatuen eskuetan egotea da prozesuaren *ahulezia* nagusia. Europako unibertsitate-instituzioek «estatuen esku» utzi dute Europako Unibertsitate Esparrua (EUE) osatze prozesuaren ardura eta lidergoa.

Prozesuaren *indar* nagusia jakintza-jendarteak islatzen duen aldaketa beharrean legoke. Bizitza osoan ikasi behar diren onarpenak ikasketen mailakatze eta dibertsifikazio handiagoa dakar eta, oro har, hori jendartean aurreratuta dago. Ikasketen antolaketa aldaketetan murgildutako lan merkatuaren exigentzietara makurtzeko, ezinbestekoa da hezkuntza formal edo informalararen bideetatik titulazioen arteko pasabideak onartzea; eta, nolabait, hori ere gizarteratuta dago.

Eztabaida sakonik gabe abian den prozesu honen *alde* edo *kontra* egoteko arrazoiaren errepasoaren beharrez, LABek prozesu honen hainbat alde azpimarratuko lituzke:

1. Unibertsitatea ez da merkatu globalak asetzeko enpresa hutsu batean bilakatu behar —profesional kualifikatuak bermatzeko eta ikerkuntza-eremuan zerbitzuak eskaintzeko—. Unibertsitatearen ardatza giza garapenak izan behar du eta horretan pentsatu behar du, eta ez horrenbeste produktibitatean, efikazian, bikaintasunean edo kalitatean, edozein enpresak bezala.

Ezagutzaren instituzioak diren heinean, eskatzen zaien ego-kitzapenaren aurrean unibertsitateek kritikoki jokatu behar dute, unibertsitate eredu berriaren inguruan eztabaida eta iritzirik trukaketa bideratuz. Hori da bidea eredu merkantilizatu nagusitu ez dadin.

2. Ikerkuntzari bultzada emateko, unibertsitatearen giza-baliabide eta azpiegituren erabilpenaren gainean tentsioa sortu nahi da. Irakaskuntza/ikerkuntza elkar loturiko unibertsitate jardueren arteko oreka berria eragin nahi da, irakasleek ikerkuntza jarduerara suspertzeko.

Ikerkuntza-proiektuetan iniziatiba pribatuarekin batera jardutean, batetik, unibertsitatearen autonomia dago jokoan, eta, bestetik, unibertsitatearen baliabide publikoen erabilpen zuzena. Arriskurik bada unibertsitateek bultzatuko dituzten ikerkuntza ildoak merkatuaren beharretara gehiegi makurtzeko. Unibertsitateek jendartearekiko konpromiso-zko zientzia eta ikerkuntza sustatu eta garatu behar dute, eremu lokaletik globalera.

3. Ebaluazio indibidualetan oinarrituta, irakasle eta ikerlarien karrera akademiko berria sortzen ari da. Gero eta gehiago gauzatzen ari diren norbanako ordainsariekin akademikoaren lanaren kontrol instituzional zehatzagoa ahalbidetzen dute, ezagutza merkantzia legez proiektatuz eta akademikoaren independentzia ahulduz.

Meritokrazia arautu hori bezain arriskutsua edo arrisku-tsuagoa izan daitezke ezagutzaren transferentzia, ikerkun-

tza eta enpresen elkarlanetik etor daitezkeen norbanako pizgarriak.

4. Goi mailako ikasketen mailakatze eta dibertsifikazio handiagoak ez du lan-merkatua desarautzeko bidea bilakatu behar.

5. Arduraldi osoan jarduten duten ikasleei oinarritzko zerbitzuak eskaini behar zaizkie —garraioa, jangelak, egoitzak— prezio doituetan. Graduondoko ikasketen inguruan elitismorako arriskua saihesteko sarbide demokratikoa bermatu beharra dago, finantziario publikoa handitu behar da.

**2.** Frantziako Estatuaren zein Espainiakoa Europar Batasunak ezarritako printzipioak jarraituz ari badira ere unibertsitate-sistemak eraldatzen, aspektu nagusiak zentralismo politikoaren kontrolpean jartzen dituzte: unibertsitateen egitura, funtzionamendua eta finantziarioa.

Euskal Herriak ez du aukerarik Bolognako prozesuaren aurrean dinamika koordinatu bat martxan jartzeko. Nafarroa Garaian eskumenik izan arren merkatuaren eskuetan uzten da, hots, Nafar Gobernuak UPNA UNekiko subsidiaritate planoan uzten du. EA Eren kasuan, Eusko Jaurlaritzaren ekimen legegileen bidez ari da saiatzen EAEko unibertsitateen egokitzapenean eragiten. Iparraldeko kasuan inplementazioa Paristik dator; Baionan zein Angelun dauden IUTen (Institut Universitaire de Technologie) eta fakultateen erreferentziak Paueko eta Bordeleko unibertsitateak dira.

Estatuak hainbat eskumen merkatuarekin partekatuko dituzten honetan, euskal eremuko unibertsitateek euskal nor-tasuna izango duen unibertsitate-sistema garatzeko ardura dute. Bolognako prozesua baliatu beharko lukete euskal jendartea kohesionatu eta garatzeko balioko duen unibertsitate-sistema osatzeko.

2010. urtea hurbil dugu, eta Euskal Herriko unibertsitateak besteak baino abiapuntu okerragoan ez egotea nahi badugu, hausnarketa eta eztabaida zabaldu behar da; unibertsitatearen eredu zentralista gainditzeko aukera dago, eta bestelako

unibertsitate aurrerakoia posiblea da. Baina, horretarako, ikasleek, sindikatu eta jendarte eragileek gutxieneko konpromisoetara ailegatu behar dugu aurretik aipatutako gaien inguruan. Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoetan Titulu Berrien egokitzapenerako (2010-2011 kurtsorako) prozesua irekita egotea eztabaidarako egoera paregabea da.

Bolognako prozesu hau hauspo bilakatu behar dugu sortzeke dugun Euskal Unibertsitatearen proiektuarentzat, beharrezkoa baitugu Europako unibertsitate-esparruan homologatua den euskaldunen unibertsitate eleanitza, euskararen hizkuntza-komunitatea eratzeko eta garatzeko erakundea izango dena.¶



HENRIKE GALARZA (NUPeko irakaslea)

## Filosofia kontua

Krisialdiak eta erreformak ohikoak izan ditugu unibertsitateetan. Betidanik, aurrera egiten dakien ekimen soziala, erakundea, dugu unibertsitatea. Krisialdiz krisialdi eta erreformaz erreforma, Europan zehar, eraldaketa prozesua unibertsitatearen garapena osatuz joan da.

Orain arte, Lisboa Estrategia da Goi-mailako Hezkuntza-ren Europar Esparrua (GHEE) osatzeko prozesuaren azken moldaketa. 2010. urtean, aldaketarik ez bada, abiatzeko prest egon behar du; gainean dugu, beraz.

Lisboa Estrategiari dagokionez (oro har Bologna deritzon prozesu osoari), hiru gogoeta orokor eta ireki:

Lehenbizikoa, prozesu honen atzean dauden helburuei dagokiena. Bolognako Adierazpena 1988an egin bazuten ere, zerbitzu jardueren inguruko Munduko Merkataritzarako Erakundearen (MME) ekimena da GHEEren ideia-aren atzean dagoena. Ezagutza-jendartean kapitalismoa da nagusi. Europako zatiketa administratiboa (eta linguistikoa) ez da ona merkatu mundiala irizpide duten interes ekonomiko handientzako. Enpresa handiak eta transnazionalak parte hartzen ari dira eztabaidetan. Haiek bultzatzen ari diren bikaintasun eta lehiakortasun helburuek esanahi ezberdinak dituzte partaide askorentzat, merkatuko kategorietatik oso urrun. Finantziario pribatuaren eskutik unibertsitateak hartuko lukeen norabidea gustukoa ez dugunontzat, albiste txarrak daude orain arte izandako pausoetan.

GHEE herrikoi eta irekia lortzea dugu erronka, irizpide kapitalistak baztertuz.

Bigarrena, aplikazioari dagokio. Lisboa Estrategia dela-eta, herriz herri ez dira gauza berdinak egiten, unibertsitate-sis-

tema nazionalak ezberdinak baitira. Hezkuntza-politikak eta legediak ere bai. Hori gutxi balitz, unibertsitate ezberdinen artean, nahiz eta sistema nazional berebean egon, ez dira ezaugarri berdinak aurkitu, homogeneousazioa zailduz. Orain arte denetarik ikusi da, baina «zerbait aldatu, dena berdin mantzetzeko» moduko aterabideak ez lirateke arraroegiak izanen, ekinbide burokratiko berriak aurreko errealitateari itsatsiz. Trantsizioan, indar-erlazioak erabakigarriak izanen dira, horien araberrako emaitzak jasoko baititugu.

Hirugarrena, parte-hartzeari dagokio: prozesu honetan nolabaiteko malgutasuna ikusi dugu, aurkako adibideak badauden arren. Beraz, aukerak irekitzen dira erronkak ugaltzen diren neurrian. Horretan ikasle mugimendua (Europar eta Euskal Herrian) langile edo irakasleenak baino azkarrago lan egiten ari dela uste dugu.

Gai zehatz askoren artean hurrengo lau hauek arreta deitu digute:

- Bikaintasuna eta lehia: oso arriskutsua da sailkapenak egiten hastea, guztiontzako aukera berdintasuna lortu nahi bada. Esparru teknikoan erabili omen dituzten ebaluazio tresna eta irizpideak ez dira egokiak zientzia ez esperimentaltzako. Ikasketen ondorengo soldatak, esaterako, ezin ditugu sailkapen unibertsitario bihurtu. Bikaintasuna atzerriko ikasleak erakartzeko bakarrik erabiltzea arriskutsua izan liteke, aniztasun zientifikoaren kaltetan.

- Mugikortasuna: unibertsitateetako langile, irakasle, ikerlari eta ikasleen atzerriko bidaia eta egonaldiak truke kultural eta pertsonalerako paregabeko aukerak dira. Baina horretarako dirua jarri behar da, desberdintasun sozial eta linguistikoak gainditzeko bidean. Homogeneotasun kulturala litzateke arriskua hizkuntza 'txikiak' (ez soilki minorizatuak) babestu ezean. Egun, Herbehereetan eta, neurri txikiagoan, Alemanian edo Frantzian, jatorrizko hizkuntza lan zientifikoetan desagertzen ari da, ingelesaren erabilerak bazterturik. Bertzaldetik, «burmuinen ihesaz» hasi dira mintzatzen, eta ez soilki Ekialdeko herrietan.



- Berdintasuna eta sarrera-erraztasunak: unibertsitatean gauden pertsonak jendarte osoaren ordezkari izatea da helburu desiragarria. Baina arazo fisikoren bat dutenak, baliabide ekonomiko urriko pertsonak, ikasle helduak edota etorkinak ez daude behar den moduan presente gure campusetan. Finantza baliabideak behar dira, promozio politika zabal baten barruan, gutxiengoek beraien lekua izan dezaten.

- Genero-ikuspegia: emakumeak gehiengo izaten dira hasierako unibertsitate ikasmailetan, baina urteak aurrera joan ahala urriagoak dira gizonezkoak baino. Aginte lanpostu edota goiko lanpostu akademikoetan eskasegia da haien presentzia. Baita doktorego programetan ere. Diruaz gain, berdintasuna lortzeko politika sozialak behar-beharrezkoak dira unibertsitatean berdintasunerantz ibiltzeko.

Ipar eta Hego Euskal Herrian dauden unibertsitateetan aurki daitezkeen ezaugarriak Mendebaldeko Europako edozein zentrotakoak bezalakoxeak ditugu, euskarak dakarrena izan ezik. Beraz, orokorreko gogoeta osoa Euskal Herriko gune unibertsitarioari aplikatu diezaikegu. Hala ere, aipatu dugun ildoan, GHEEk ez ditu bakarrik hizkuntza minorizatuak kolokan jartzen, baizik eta baita beste guztiak ere, ingeleza salbu. Horren aurrean, adibidez, Herbehereetan, atzerriko ikasleek halaberrez egin behar dituzte nederlanderak ikastaroak, baina eskolak ingelesez ematen dira...

Aipatu zazpi gaietan, finantza bideak oso garrantzizkoak dira, parte-hartze eta erabaki prozesuaren gardentasunaren parean.

Oro har, nahiko ezkorrak garelako ezin ukatu, baina itxaropena galdu gabe. Estatu afera den heinean, gauza gutxi erabaki dezakegu euskaldunok bakarrik.

Hori guztia gorabehera, aukera bat baino gehiago sortzen ari denez, ikasturte honetan helburu jakin batzuen aldeko mobilizazioak sortuko direla uste dugu.¶



## XABIER ISASI

(EHUko irakaslea eta Gaindegiako lehendakaria)

**1** ● Europa hegoaldeko unibertsitateak erakunde kon- tserbadoreenetakoak dira, estatuaren egituretan oinarri sendo- netakoak. Horregatik, agian, 1968ko maiatz sonatu har- tatik gaurdaino, unibertsitatea gutxien aldatu den erakun- dea da. Berritu dira teknologiak eta azpiegiturak, egia da. Unibertsitatea zabaldu da eta unibertsitate berri asko ireki dira, gehienak pribatuak, hori ere gertatu da, baina uniber- tsitatearen oinarritzko egitura ez da apenas aldatu: unibertsiti- tatea estatuaren manupeko erakunde hertsia, zurruna eta hierarkikoa da. Aldaketak datoz etorri, bai, baina aldaketaz hitz egin aurretik zer daukagun gogoraraztea ez dago sobe- ran.

Bologna dela eta ez dela, kontua da, unibertsitateak jaki- turiaren monopolioa galdu duela. Internetek informazioa eta ezagumendua, goi mailakoa ere, edozeinen esku-eskura ipini du-eta. Europan mugak aldatzen dira, moneta alda- tzen da (pezeta, libera eta abar), ekonomia-harremanak al- datzen dira, gizarte-zerbitzuak zabaltzen dira, aldaketa de- mografikoak biziak dira, teknologiaren garapena abio han- dikoa da eta irakaskuntza, oro har, sano aldatzen ari da. Alabaina, unibertsitateak eksklusibotasunez gorde du bere- tizat goi mailako lanbideetarako gaitasun-agiriak, tituluak, partitzeko eskumena. Estatuak, unibertsitatearen bitartez, erabakitzen du titulu unibertsitario *ofizialak* zein diren eta zertarako balio duten. Erabakitzen ditu ere, tituluen izenak eta titulu-ikasketen iraupena eta oinarritzko edukiak. Hortik aurrera, unibertsitate bakoitzak goi mailako irakaskuntza- ren gestioa bere gain hartzen du. Horrela, ikasleria bezeria besterik ez da, bateko edo besteko titulu jakineko bezeria.

Eta eskaintza akademikoa, bestalde, gradu eta graduondoko tituluen katalogoa besterik ez da.

Ingurumari horretan Bolognan abiatutako prozesuaren indargune nagusia aldaketa bera da, unibertsitatea aldatu beharra, hain zuzen ere. Unibertsitateko eragile gehienak bat datoz honetan: unibertsitateak aldatu behar du. Bolognako prozesua gidatu eta sustatzen dutenentzat, unibertsitatea Europar Batasuneko eremura zabaltzeko eta eredu liberaleko lan merkatura egokitzeko. Eta Bolognako prozesua gaitzetsi dutenentzat, unibertsitate zabalagoa eta sozialagoa lortzeko. Baina denek aldaketa aldarrikatzen dute.

Bolognak zer dakarren? Unibertsitate lehiakorragoa, txikiagoa, garestiagoa, enpresen beharrianei lotuagoa, gestio zurrunagoz kudeatua, baliabide publikoz sostengatua baina finantzabide pribatuz sustatua eta mugikortasun handiagokoa, ikasleentzat zein irakasleentzat. Horra hor Bolognako prozesutik eratortzen den unibertsitate berria. Horiek dira, aldi berean, prozesu horren indarguneak eta ahuleziak. Europa liberalaren sustatzaileek babesten dutenarentzat, indarguneak; eta ez da indar txikia, alajaina! Eta, bistan da, unibertsitatearen izaera sozial, kritiko eta berritzailea nahi dutenentzat, ahuluneak. Bolognak alor horietan murrizketa nabarmenak ekar ditzakeelako.

Izaera sozial handiko unibertsitatea, kritiko, autonomo eta berritzailea nahi dugunok mesfidantzaz begiratzen dugu Bolognako prozesua. Bestela ezin liteke. Baina, aldi berean, eta arrazoi bertsuengatik ez dugu gustuko gaur egun indarrean dagoen unibertsitatea. Gure dilema da, okerra eta txarraren artean hautu behar izango dugula. Gaurko unibertsitatea defendaezina da eta datorkeena, datorren moduan behintzat, arbuiagarria.

**2.** Lehenengo eragina gertatu da. Eragin kaltegarria: euskaltzale eta euskal unibertsitatearen aldekoen artean zatiketa. Unibertsitario euskaldunak banaturik daude; batzuk Bolognako prozesuaren alde gogotsu eta beste batzuk erabat

aurka sutsu. Biak posizio bateraezinetara bildu dira. Nire ustez, euskal unibertsitatearen kalterako. Bolognaren aurkako borroka dela eta, batzuetan ematen du zenbait unibertsitario euskaldunek oraingo unibertsitatearen *statu quo*-a hobesten dutela. Ez baitute ezer berririk proposatzen.

Euskarari dagokionez, aldaketak atzera pausoa ekarriko du. Orain baino lehenagoko ikasketa-planen aldaketekin gertatu den moduan, aldaketa berrietan zerbait galtzea gerta daiteke. Arrazoa oso sinplea da: aldaketa (erdarazko) unibertsitate espainolari eta frantsesari dagokie, eta gero, aldaketa gauzatu eta gero, ahal dela eta ahal den neurrian, egokitzapenak egingo dira euskarari sarbidea emateko. Beti izan da horrela eta oraingo honetan ere horrela izango da: estatu mailako (erdaldunen) egiturako aldaketak lehenen, eta, ondoren, (euskaldunen) egokitzapenak; tokian tokikoak eta indar nahikorik badugu, jakina.

Arazoa da unibertsitario euskaldunok ez garela interes komuneko erkidegoa. Baditugu, bistan da, arazo eta premia berdintsuak. Jarduera unibertsitarioetan, irakaskuntzan eta ikerkuntzan, badugu elkarren beharra, bai, baina norbanako eta taldeko interesak gailentzen dira komunitatearenekoen gainetik. Beste esparruetan gertatu ohi da; unibertsitarioak, tamalez, ez gara desberdinak.

Horrela, aurrez gertatuen antzera, unibertsitario euskaldun batzuk datozen aldaketei so geratuko dira, behiak trenbidera begira geratzen diren moduan. Beste batzuk aldaketen trenera igotzen saiatuko dira. Asko aldaketei aurre egiten ahaleginduko dira. Eta denok galdu, batzuek gehiago bestetzuek baino, baina unibertsitario euskaldun guztiok galduko dugu. Bakan batzuek euskal unibertsitatearen aldeko lanean jarraituko dute; batzuek Bolognako prozesu barrenean, beste batzuek haren aurka eta haren alboan bestetzuek. Baina ez dira inon ere gehiago izango. Unibertsitario euskaldunok interes komuneko erkidegoa osotu arte zatiketa nagusi izango dugu-eta. Unibertsitario euskaldunoi, aldaketen erruleta honetan, ustekaberik ez bada, *guztiok galdu* tokatuko zaigu. Berriro ere.¶



## NEREA LARRINAGA (ELA)

**1** ● Galderarekin urte batzuk egin ditut atzera. Gogoratu dut Espainia Europar Batasunean sartzekotan zegoen momentua, eta euroa indarrean jartzekotan zegoena.

Galdera-tranpa iruditu zait. Ez *Jakinen* intentzioagatik, noski, prozesuaren bultzatzaileen intentzioagatik baizik.

Garai haietan prozesu horiei buruz hiritarrok geneukan informazioa, eta, beraz, iritzia, zein zen? Mugak desagertuko zirela (pasaportetik ez, kanpoan lan eta bizitzeko trabarik ez), Europaren parekoak izango ginela (aberatsago, ongizate eta kultura maila altuagoa), txanpon bakarra (erosoa), baita Euskal Herriak Europan ahotsa izango zuelako itzaropena ere.

Inork ez zigun ohartarazi langileen eskubideak mugak bezala suntsituko zirela (Bolkestein zuzentaraua), ongizatea murriztuko zela (Lisboako estrategia), prezioak, interesak, hipotekak neurririk gabe biderkatuko zirela (Banku Zentrala, euroa), eta Europa bere baitako estatuen «barne arazo politikoetan» ez zela sartuko, bidegabekeriak gertatu arren (ilegalizazioa).

Bologna Europar Batasuna bultzatzen ari direnen unibertsiteate-eredua da. Hau da, kapitalismo neoliberal antisozialarena.

Aurrekari horiekin, zein dira Bolognako prozesuaren *indarrak eta aldekoak*? Bolognako deklarazioan formalki azaltzen direnak:

Herrialde desberdinetan tituluak parekideak izatea, eta unibertsiteate ikasketak gizartearen beharretara egokitzea, omen dira Bolognako prozesuaren funtsak.

Horretarako, titulazioak Gradu, Master eta Doktoregoan (Graduondokoa) sailkatuko dira. Graduek trebakuntza oro-

korra eskainiko dute, lanbide ekintzetara zuzenduta. Especializazioa eta gaitasun osoak lortzeko Graduondokoa egin beharko da.

Eta zein *ahulezia eta kontrakoak*? Bere benetako helburuak direnak.

Bolognako prozesuaren benetako helburuak arriskutsuak eta kritikagarriak dira, oso, ELAren ustetan.

- *Unibertsitatean ikastea garestiago izatea*. Graduondokoa Gradua baino sei aldiz garestiagoa izatera irits daiteke. Bide hori leuntzeko beka-sistema desegokia da, sistema baldintzatua delako. Beste herrialdeetan planteatzen den banku-kreditu sistemak ikasten bukatu aurretik hipotekatzea ekarriko luke.
- *Lana eta ikasketak ezin uztartzea*. Ikasketen antolaketa berria medio. Eraitza: hezkuntza elitista eta diru gutxiago dutenak kanpo uzten dituenak.
- *Finantziario publiko gutxiago, hezkuntza ez da zerbitzu publikoa izango*. Hortaz, kontrol publiko txikiagoa. Aldaketek administrazioarentzat kosturik ez izatea da asmoa. Diru hori enpresetatik edota ikasleen poltsikoetatik etorriko da.
- *Finantziario eta kontrol pribatu gehiago*. Ikerketa batek iragarri du 2020rako unibertsitate ikasketak enpresek kudeatuko dituztela. Bide honetan urratsak eman dira jada, hala nola ANECA delakoari (neurri handi batean enpresa munduko ordezkariak osatua) egotzi zaizkion eginkizunak. Horrek enpresekiko mendekotasuna dakar, eta unibertsitatearen autonomian eragiten du. Unibertsitate «modernoagoa», baina makalagoa. Privatizazioak ikerkuntzari eragingo dio: enpresek ez dituzte diruz lagunduko negozio ez diren ikerketak.
- *Irizpide ekonomikoek aginduko dute (langile merkeak ekoizteko makina da unibertsitatea), eta ez gizartearen eta hiritarren benetako beharrek*. Enpresentzako interesik ez duten titulazioak desagertzeko arriskuan izango dira. Hiritarrak langile merkea eta arina behar du izan.

Terminologia jadanik aldatzen hasia da: «hezkuntza sistema lehiakorra», adibidez.

ELarentzat garrantzitsuena eta arriskutsuena hauxe da: unibertsitate mailan, bereziki, *hezkuntza publikoak gizartearen zutabea behar du izan*, jakintzaren zabaltzea ahalbidetu behar du berdintasunean, eta *gizarte klaseen arteko diferentziak orekatzeko balio behar du*.

Aldiz, gaur egun, gizartearen parte handi batek unibertsitate mailako ikasketak eginagatik ere, hezkuntzak ez du helburu hori betetzen, eta diferentzia horiek bermatzen eta errepikatzen laguntzen du, oraindik ere.

Bolognako prozesuarekin okerrera goazela deritzogu: aberatsak aberatsago, beste guztiak pobreago.

**2.** Lege aldaketa garrantzitsuenak jadanik onartu diren arren (eztabaida publiko oso eskasarekin), prozesuak denbora luzea behar izango du euskal unibertsitatearen esparruan. Batetik, benetan zailak direlako inplementatzen, eta, bestetik, prozesu geldo, isil eta gutxika datorrena errazago onartzen laguntzen duelako.

ELarentzat denbora hori aukera bat da: Bolognako helburuez eztabaidatzeko eta prozesua eraldatu edo gelditzeko aukera bat.

Bitartean, Bolognaren bultzatzaileek kanpaina mediatikoa hasia dute. Aipatzekoa da kanpaina hori enpresek ateratako azterketa edota konklusioetan oinarritzen dela; eta enpresak ez dira, berez, zilegitasuna duten eragileak hezkuntza sistema epaitu eta definitzean.

Honelako mezuek osatzen dute kanpaina:

- Lanpostu gehienek ez dute goi mailako ikasketarik eskatzen. Ez da beharrezkoa jakintza maila altua izatea, bizi-tza osoan zehar eta lan egiten duzun bitartean ikastea da gakoa.
- Lizentziadun askok ez dute ikasi duten horretan lan egingen, edo ez dute behar besteko irabazirik lortzen horrekin.

- Unibertsitate publikoa garestia da administrazioarentzat (erabiltzen duenak ordain dezala), eta kudeaketa sistemak ez dira eraginkorrak.

Ustezko arazo horiei Bolognak honako irtenbidea eskaintzen die: *hezkuntza prekarioa, lan merkatu prekarioaren neurrira*.

Mezu horietan ezkutuan geratzen dena, berriz, hauxe da:

- Jakintza eta trebakuntza balioa du, berez, eta lanpostua bilatzean ere. Aberatsek unibertsitatera jotzen dute orain, eta gerora ere egingo dute.
- Lizentziadunak ez direnek ere lan prekarioak dituzte, lan merkatua zabortegia bilakatu delako enpresarien mesedetan.
- Hezkuntza gizarte-ongizatearen oinarrizko klabea da, eta inbertsioa herri batentzat. Kudeaketa pribatuak, interes pribatu jakin batzuei erantzuten die soilik, ez interes orokorrari.

Horra, beraz, *helburua ELArentzat*: hezkuntza unibertsitario publikoa, doakoa, unibertsala, kalitatezkoa, osoa, hiritar trebatuak sortzen dituena, kritikarako eta azterketarako prestatuak, berdinak jakintzan eta tresnetan, libreagoak.

Horretarako gobernuek beraien ardurari tinko eutsi eta gastu publikoa areagotu egin beharko lukete, enpresarien menpeko bihurtu barik, eta klaseen arteko diferentziak murriztu eta oreka sustatuz.¶





## ASIER LAUZURIKA (Euskal Herriak Bere Eskola)

**1** ● Bolognako prozesuari indargune zein alderdi positiborik bilatzea zaila den arren, zalantzarik gabe, bada onurarik ere prozesu honetan. Bat eta bakarra izan arren, bada. Hain zuzen ere, hainbeste ika-mika sortzen ari den goi mailako hezkuntzaren erreformak, egungo unibertsitate eredu zaharkituaren oinarriak astindu eta haren inguruko eztabaida bizia piztu du. Eztabaida piztu, piztu da, baina ez prozesua aurrera eramaten ari direnek sustatuta, baizik eta euren ezadostasuna azaldu dutenek bultzatuta.

Askok, ez dagoen tokian bestelako alderdi positiborik bilatu nahian, Bolognak dakarren ustezko berrikuntza pedagogikoaz mintzatu dira, berori miresteraino ere iritsiz. Eta ustezko eraldaketa pedagogiko horren izenean, pedagogiaz ezer gutxi dakiten askok zilegitu ezin daitekeena ere zilegitu dute. Ez dago ordea inolako berrikuntza, eraldaketa edo eta iraultza pedagogikorik. Agian, nonbait, metodo zehatzen aldaketarik egon da; hori bai, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren oinarri diren planteamendu pedagogikoak aldatu gabe. Egon diren eraldaketa horiek ere, berrikuntza baino, atzera pausoak ere izan dira zenbaitetan.

ECTS kreditu sistemaren haritik proposatzen den metodologiarekin, pragmatismoaren izenean, utilitarismo eta praktizismo hutsera murriztu nahi dituzte unibertsitate ikasketak. Jakintza arlo batean jantziak egongo diren, azterketa kritikorako gaitasuna izango duten, eta teoria eta praktika uztartuko dituzten unibertsitarioak baino, trebetasun praktikoa hutsetan oinarritutako lanbide bat ikasi eta berori erreproduzitzeko duten langile zintzoak sortuko ditu proposatzen den metodologia berriak. Gainera, ikaskuntza kredituak berdin lan orduak sistemarekin, lan orduen kontrol eta

neurketa hutsera mugatzen da ikaskuntza-irakaskuntza prozesua. Kontzepzio berri honetan, irakasleak *full time* ikasleak neurtu eta kontrolatuko dituzten kronometroak bihurtzen dira.

Pedagogiaren aferaz gain, bada Bolognari aurre egiteko bestelako argudiorik ere. Horien artean azpimarratzekoa da prozesua aurrera eramaten ari den modua. Inposaketa hutsean ari dira oinarritzen prozesu honen aplikapena: inposaketa Europatik, inposaketa Espainiar zein Frantziar estatuetatik eta inposaketa ere unibertsitateetako agintariengandik. Euskaldunok unibertsitate sistema propiorik ez dugun heinean, ezin dugu erabaki zer nolako goi mailako hezkuntza nahi dugun. Egungo unibertsitate eredu zein erreforma ezberdinak inposatuak zaizkigu euskaldunoi. Horrez gain, unibertsitateen baitan inolako eztabaida eta parte-hartzerik gabe ari da aplikatzen Bolognako prozesua. Unibertsitateetako erabaki organo antidemokratiko eta hierarkikoez baliatuz, elite txiki bat unibertsitatea eraldatzen ari da hezkuntza komunitateko bestelako sektoreen hitzari muzin egin ez. Gainera, inposaketa horren aurka altxatzen diren ahotsak isilarazi nahian, errepresiorako hautua egin dute hainbat unibertsitateetako agintariak. Nabarmentzekoak dira ikasleen mobilizazio ezberdinen aurka segurtasun zein polizia indarrek izandako oldarraldi bortitzak.

Bolognaren aurkako argudioekin jarraituz, prozesu honek atzetik dituen interesak aipatu behar dira. Bolognak ez ditu interes akademikoak atzetik; baizik eta estatuen zein ente ekonomiko handien interesak. Goi mailako hezkuntza merkatuaren interesen arabera moldatu nahi dute, hezkuntza merkantilizatuz. Geroz eta nabariagoa da ere enpresa ezberdinen parte-hartzea unibertsitatean. Gainera, horiek guztiek unibertsitatea elitizazio bidean jarri dute graduko ikasketak oso orokor eta graduondoko ikasketak espezializatu eta selektibo bidez. Horrez gain, unibertsitatearen finantziario sistemaren aldaketarekin enpresen esku-hartzea areagotzea bilatzen da, unibertsitateak horien interesetara makur-

tuz. Hortaz, herriaren eta herritarren zerbitzura egotetik geroz eta urutiago ari dira kokatzen unibertsitateak.

Luze joko luke Bolognaren kontrako argudio guztiak zerrendatzea. Ez nuke galdera honen erantzuna bukatu nahi, ordea, hizkuntza eskubideen aferari heldu gabe. Ezaguna da egun gure herriko hizkuntza den euskarak unibertsitatean duen bigarren mailako papera, eta euskaraz ikasi, lan egin zein bizitzeko zailtasunak. Bolognako prozesuarekin, euskarara hirugarren mailako hizkuntza bilakatzen ari da. Orain arte gaztelera zein frantsesarekin nahikoa ez eta orain ingelesa ari zaio gailentzen euskarari Euskal Herriko unibertsitateetan. Ikustekoa besterik ez da, eskaintzen diren masterrretan zein graduondokoetan hizkuntza bakoitzari eskaintzen zaion espazioa.

**2.** Bolognako prozesuak euskal unibertsitatearen esparruan izaten ari den eta izango duen eragina aztertzen hasi aurretik, euskal unibertsitatearen esparruaz ulertzen dena argitu beharko genuke. Euskal unibertsitatearen esparruaz baino, alde batetik Euskal Herrian dauden unibertsitateez eta bestetik Euskal Unibertsitateaz hitz egin beharko genuke. Euskal Herrian dauden unibertsitateak, Euskal Herrian dauden unibertsitate guztiak dira; salbuespenak salbuespen, gure herrian dauden unibertsitate arrotzak, eta ez dira inondik inora, Euskal Unibertsitatea. Euskal Unibertsitatea, herri honek behar duen unibertsitate nazionala, euskalduna, Euskal Herriaren beharrei eta garapenari erantzungo diena, herritarra, demokratikoa eta euskal herritarren hezkuntza eskubideak beteko dituen da.

Lehenengoei dagokienean, hau da, Euskal Herrian dauden unibertsitateei dagokienean, Bolognako prozesua agerian uzten ari da unibertsitate horiek dituzten egiturazko arazoak. Egiturazko arazoak, ez baitira gai herritarren hezkuntza eskubideak bermatu eta herri honi, bere beharrei zein garapenari, erantzungo dien unibertsitate eredurik eskaintzeko. Horretaz gain, orain arte euskal unibertsitariook pairatzen

genituen eskubide urraketak areagotu besterik ez dira egin: euskaraz ikasi, lan egin zein bizitzeko ezintasuna; demokrazia eza; merkatuaren araberako unibertsitate eredu neoliberalala; estatuen interesei erantzuten dien unibertsitatea...

Bigarrenari dagokionean, hau da, Euskal Unibertsitateari dagokionean, geroz eta argiago ari da geratzen bestelako unibertsitate eredu baten premia bizia dugula herri honetan. Premia, nahia eta berori eraikitzeke borondate osoa. Argi dago gure herriak hezkuntza mailan pairatzen duen inposaketaren ondorio dela Bolognako prozesua. Beraz, beharrezkoa dugu inposaketa ororen gainetik guk geuk erabakitzea zer nolako hezkuntza eredu nahi dugun, zer nolako unibertsitate eredu nahi dugun. Gu guztion esku dago Bolognako bezalako prozesu inposatuen gainetik, zein egungo unibertsitate eredu zaharkituen gainetik, Karlos Santamariak defendatzen zuen unibertsitatea eraikitzea: «*Euskal Unibertsitatea, euskal kultura eta hizkuntzaren alma materra izan beharko litzatekeen euskarazko Unibertsitatea*».¶



PELLO SALABURU (EHUko irakaslea)

## Bolonia dela eta, funtsezko zenbait kontu


Behin batean ari omen ziren bi adiskide pasaietan oihan baten sakonean. Eta, halako batean, orro ikaragarria entzun omen zuten. Beldurtzeko moduko horietakoa. Adiskide haie-tako bat bat-batean gelditu omen zen eta belaunikaturik, oi-netakoak erantzi eta lasterka egiteko oinetako berezi batzuk janzten hasi omen zen. Haren adiskidea, harriturik hari be-ha, hola mintzatu omen zitzaion: «Aizak!, zertan habil? Ber-din, horrek guk baino gehiago korritzen dik eta berehala eroriko gaituk horren atzaparretan! Zertarako egiten duk hori?». Eta besteak, lurretik: «Ez, ni ez nauk pizti horrekin kezkatzen. Bazakiat horrek adina ez dudala sekulan korritu-ko. Baina hik baino gehiago korritu nahi diat, hori bai. Hi haiz nire kezka!». Eta hori esanik, lasterka lekutu zen handik.

Istorio horrek argitzen du pixka bat Boloniaren azpian da-goen kontuetako bat. Behin baino gehiagotan entzun dugu kompetentzia eta holako gauzak hezkuntzan sartzea ez dela batere gauza ona, ez dela egokia, hezkuntza ezin dela kapi-talismoaren bihotzean dauden kontuekin nahasi. Baina oihanean belauniko zegoen laguna ohartu zen bezala, guk ere konturatu beharko dugu, konturatu ere, kompetentzia onartzea edo ez ez dela aukera kontua, hori ez dela gure es-kuetan edo gure nahien hautuan dagoen zerbait. Hori kan-potik baitatorkigu, gure adiskideei orro beldurgarria etorri zitzaien bezala. Hor, gustatu edo ez, inguruko unibertsitateetan gertatzen denak markatuko du gure ibilbidea.


Boloniako kontu hori guztia abian jarri zen, orain dela zenbait urte, hain zuzen ere, aipatzen dugunagatik. Bigarren munduko gerra bukatu zenetik, Europako unibertsitatea

arras gibelean geratua da: ez du zientzia artikulua aski produzitzen, ez du patente aski erregistratzen, ez du ikasle nahiko erakartzen, eta Europako ikertzaile anitzek erabakitzen du badirela toki hobeak ikerketa egiteko. Eta hara alde egiten dute bizkarrean daramatela XXI. mendeko altxor preziatuena: ezagutza. Han daude lanean Nobel saridunen %70, han daude kanpotik joanak 650.000 atzerritar ikasle. Distiratsuenak, agian. Hori ez da iritzi kontua, errealitatea baizik. Eta ez da komeni izaten iritzia eta errealitatea nahastea, edo berdintsuak balira bezala, parean jartzea. Horrekin gure kontzientzia lasaituko dugu, beharbada, baina ez dugu deusik konponduko. Zerbait ona den edo ez den jakiteko, zientzian, aspaldi garatuak dira zein diren oro har, goiti-beheitiekin nahi bada, mailak neurtzeko tresnak: artikulua eta liburuak, alde batetik. Eta patenteak, bestetik. Unibertsitate mailan badira beste anitz adierazle. Edozein harturik ere, Estatu Batuak daude buruan. Batzuentzat gustukoa ez izanik ere, komeni da hori ez ahaztea.

Zein da Boloniako prozesuaren helburu nagusia? Europan unibertsitate mailako «tituluak» eta lan profesionala egiteko behar diren «gaitasunak» nolakoak diren eta nolako ezaugarriak dituzten kontuan harturik, unibertsitateetako errektoreak ohartu ziren baso handi eta nahasgarria zegoela hor. Desberdintasun ikaragarriak herri batetik bestera, eta herrialde berean ere, ikasketa batzuen eta besteen artean. Gainera, leku batean ikasketa batzuk unibertsitate sisteman daude, eta alboko herrialdean ikasketa berak unibertsitate sistematik kanpo: hori gertatzen da ikasketa tekniko batzuekin eta musikarekin, esate baterako. Hor ez zegoen inolako batasunik<sup>1</sup>. Ondorioz, ikasleek zailtasun handiak zituzten unibertsitate batetik bestera pasatzeko, egindako ikasketak beste herrialde batean ontzat emateko, profesio batzuetan jarduteko, eta abar. Trabak eta oztopo etengabeak, hitz batean. Kontuan har ditzagun, adibidez, gradua eskuratzeko behar diren urteak, herrialdeen arabera:

*Urteak ikasketak burutzeko, herrialdeka*

Iturria: Higher Education Policy Institute ([www.eurostudent.eu/abt2/ab21/Eurostudent/index\\_html](http://www.eurostudent.eu/abt2/ab21/Eurostudent/index_html)).

*Urteak ikasketak burutzeko, herrialdeka eta gaika*

Iturria: Eurostudent, 2005 (kontsulta eguna: 2008-10-07; hurrengo txostena 2008an argitaratzeko) ([www.campuseuropae.org/en/support/docs/bologna/eurostudent/eurostudent2005.pdf](http://www.campuseuropae.org/en/support/docs/bologna/eurostudent/eurostudent2005.pdf)).

Adierazle bat bakarrik harturik ikusten dira hor desberdintasunak. Horiek areagotzen dira beste adierazle batzuk sartzen baditugu. Hori dela eta, hezkuntzako arduradunek eta unibertsitateetako errektoreek (ez bakarrik Europako Batasunekoek, baizik eta Europako herrialde guztiek, Bielorusia kendurik) erabaki zuten hori aztertzea, eta titulazio

mailako eredu bakarra proposatzea: aurrerantzean, salbuespenak salbuespen (osasun ikasketak, lekuko) ikasketak graduak eta graduondokoak izango dira. Gradua (gure lehenagoko «lizentzia») egiteko 3 edo 4 urte beharko dira, herrialde bakoitzak aukeran. Graduondoa egiteko (masterra egiteko) urte 1 edo 2, aurreko hautuaren arabera. Beraz, ereduak da 3+2 edo 4+1. Gero, doktoregoa. Espainiak 3+2 aukeratu du. Europako herrialde gehienetan 4+1 aukeratu da. Estatu Batuetan 2+2+2 ereduak sistema dute (2 urterekin gure lanbide heziketaren antzeko zerbait ematen da). Labur-labur esanez, hau dena ongi ateratzen baldin bada ere, ez da erraza izango Estatu Batuekin lehiatzea, nekez onartuko baitute han gure masterra, eskuratzeko haiena baino errazagoa denez gero. Baina ez da dudarik hori bukatzen baldin bada lehen baino mila aldiz hobeki egongo garela. Gutxienez, aurrerantzean, orain ez bezala, inguruko herrietako sistemak ulertzeko gai izango gara.

Bolonia esan dudan hori da funtsean, nahiz horren inguruan beste gauza batzuk ere zehaztu diren: kalitatea, doktore mailako ikasketak, ikasteko modu berriak, eta abar. Horiek bi urtetik egiten diren bilera nagusietan zehazten dira. Prozesu hau dela eta, omen denaz entzuten diren gauzak benetan harrigarriak dira: harriturik geratzen naiz idazten diren argelkeria batzuekin. Euskal Herriko unibertsitateek, munduan zerbait izan nahi badute (nazioarteko sailkapenetan ez dira ageri), hortik jo beharko dute, ez dute beste aukerarik. Unibertsitatea izan beharrean akademia bihurtu nahi badute ez dute hortik joan behar, bistan da. Prozesuak badu, hala ere, arrisku bat, eta unibertsitate bat baino gehiago irristatu da arriskuaren zuloan: prozesua aurrera eramatea inprimakiak betetzearekin, ikastaro bereziak egitearekin, «puntuak» ateratzearekin nahasten dute batzuek. Sen pixka bat behar da gauzak ongi egiteko. Ez besterik. Baina batzuetan ikusten dut prozesua ikastaroak egitearekin nahasi dela. Hain zaila ote da ulertzea gauzak ikasteko ona dela hitzaldiak entzutea, baina etxeko lanak ere beharrezkoak



dira? Hain zaila irakaslea ezin dela apunteak diktatzen egon? Hori greziarrendik dakigu. Baina badirudi batzuk Boloniako prozesuarekin jabetu dira hortaz, eta prozesua bera ongi ulertzeko, ikastaroak egin behar dira, denak le-roan. Hori baino sinpleagoa da kontua.¶

- 
1. Honetaz lan luze bat argitaratu nuen orain dela hilabete batzuk. Han aurrki daitezke nahi diren xehetasun guztiak: P. Salaburu (2007): *La universidad en la encrucijada: Europa y EEUU*, Madril, Academia Europea de Ciencias y Artes. ISBN: 978-84-611-6462-2, 589 or. Lankideak: Marta Moreno, Ludger Mees eta Juan Ignacio Pérez. Gauzak herrialdez herrialde nola diren ikusteko: <http://eacea.ec.europa.eu/portal/page/portal/Eurydice> (etengabe gaurkotzen da).



ARANTZA URKAREGI / EFREN ARESKURRINAGA  
(STEE-EILAS)

**1** ● Lehenengo ahulezia, gure ustez, eztabaida falta da. Nora joan nahi dugun, zein motatako unibertsitatea eratu nahi dugun eztabaidatu gabe alaketak ematen ari dira Bolognako prozesuari egokitzeko.

Gure ustez, Bolognako prozesuak aukerak eskaintzen zizkigun Euskal Herriak behar duen unibertsitate-eredua eztabaidatu eta zehazteko, baina aukera hori galdu da.

Bolognako prozesuaren inguruan STEE-EILASEk duen iritzia esaldi batean definitu beharko bagenu, «arriskuez beteriko aukera» dela esango genuke.

Arriskuak Bolognako prozesua Europako eredu neoliberalean kokatuta dagoelako. Eraikitzen ari den Europa horretan, zerbitzu publikoak kolokan daude eta pribatizazio-joera handia dago. Hezkuntzan ere, gero eta finantziazio publiko gutxiago eta gero eta finantziazio pribatu gehiago bultzatzen da. Bolognako prozesuaren arabera, bi motatako titulazioak egongo dira: graduakoak eta graduondokoak. Lehenengoen finantziazio publikoa izango dute, baina bigarrenen kasuan, bai graduondokoen eskaintza zehazterakoan bai beraien finantziazioari begira, enpresek izango dute eragin handia.

Arriskua ere euskaraz ikasteko eskaintza bermatzeari begira. Berriro arazo nagusia graduondokoetan izango da, beste unibertsitatetako ikasleak erakarri nahi bada, euskara kaltetua aterako delako.

Gradu eta graduondokoen banaketa ere arriskutsua izan daiteke graduko titulazioa degradatzen bada eta bakarrik graduondokoiari ematen bazaio balioa. Enpresek lan-esku merkeagoa lortzeko erabiltzeko arriskua egon daiteke, eta baita, malgutasunaren izenean, prekarietatea areagotzeko ere. Arris-

kua ere ikasketa teknologikoei gero eta garrantzi gehiago emateko, bestelako ikasketen kalterako.

Hala ere, horrelako arriskuek ez gaituzte eramaten *Bologna gelditu!* bezalako leloak aldarrikatzera. Ez, pentsatzen dugulako Euskal Herriak behar duen unibertsitatea nazioarte mailan kokatu behar dela, baina bere ezaugarri propioekin: nazioartean, baina euskara baztertu gabe; titulazio-eskaintza zehazterakoan, enpresei begira baino, gizarte osoari begiratu behar zaio, gizarteak dituen hezkuntza beharrei erantzun ahal izateko...

Ez gaude ados *Bologna gelditu!* leloarekin, gaur egungo UPV/EHU eraldatzeko beharra ikusten dugulako eta horrelako leloek egungo egoera finkatzera eramaten baitute. Ez da kasualitatea irakasleen arteko zenbait sektore atzerakoi Bolognako prozesuaren aurka agertzea.

Baina ez dugu *Bolognari bai!* esaten, besterik gabe. Bolognako prozesuak UPV/EHU aldatzeko aukera emango digu baldin eta behar diren aldaketen inguruko eztabaida zabala egiten bada. Goitik behera datozen aldaketek formetan gertatzeko arrisku handia dute, aldaketa formalak egongo dira, baina ez funtsezko aldaketak.

Bolognako prozesua martxan jartzean, ezinbestekoa ikusten dugu aipatutako arriskuak aztertu, kontuan hartu eta berariei aurre egiteko neurriak hartzea. Ildo horretatik, kritikoak gara UPV/EHUk Bolognako prozesuari begira egindako urratsekin, inolako kritikarik gabe (eta arestian aipatu dugunez, eztabaidarik gabe) egiten ari direlako. UPV/EHUko agintarientzat, Bolognako prozesua, zalantza izpirik gabe, ona omen da eta berari egokitzea besterik ez dugu egin behar.

**2.** Egun, UPV/EHUUn egindako aldaketak bi esparrutan izan dira: bat, graduondokoen eskaintzak, jadanik graduondoko ofizialak martxan jarri baitira. Eta, horretan, nabarmen geratu da euskararen presentzia eskasa.

Aldaketak egin diren beste esparrua irakasteko metodologia izan da. Era esperimentalean, zenbait titulazioetan ECTS

kreditu sistema martxan jarri da, non ikasleek hainbat abilezia eskuratzeko behar duten denbora neurtzen den. Urratsak eman dira ere, edukiari baino, ikasleek landu behar dituzten gaitasunei garrantzia emateko. Baina esperientzia horiek oraindik oso mugatuak dira eta irakaskuntza metodologia berria eremu guztietan aplikatu ahal izateko oraindik asko falta da; baina, irakasteko metodologia-aldaketa da, zalantza barik, Bolognako prozesuak eskaintzen digun aukerarik hoberena.

Titulazio eskaintza zehaztea da UPV/EHUK duen epe laburreko erronka. Eztabaida horren emaitza ezin da izan botere-guneen arteko banaketa besterik gabe. Gauza asko eztabaidatu behar dira, zeri eman lehentasuna, nola mantendu oreka jakintza-arlo ezberdinen artean... Europako unibertsitate-eremuak aukera ere ematen digu titulazioak Euskal Herri osoan eskaintzeko, Estatuaren mugen gainetik. Ikasleak erakarri behar baditugu, zergatik ez erakarri Iparraldeko ikasleak zenbait graduondoko euskaraz eskaintzeko?

Beste aldetik, ezin da albo batean utzi ikasleek Bolognako prozesuaren aurka bultzatutako jarrera. Prozesu horren helburu bat omen da ikasleak irakaskuntzaren protagonista bihurtzea, orain arte izan duten hartzaile hutsaren papera alboratuz. Baina nola planteatu daiteke ikasleen protagonismoa beraiek egindako kritikak eta kezkek ez badira kontuan hartzen? Ikasleek Bolognako prozesuaren egokitzapen-prozeduretan parte-hartzeko aukera izan behar dute, eta baita unibertsitario guztiek. Eztabaida eta guztion parte-hartzea bermatu beharko da, aldaketa formalak baino gehiago lortu nahi baditugu behintzat.¶



## GORKA ZOZAIA (Ikasle Abertzaleak)

**1** ● Bolognako prozesuaren indar nagusia mundua higiarazten duten erakundeek bultzatua dela da, hau da, interes politikoetatik haratago, interes ekonomiko eta komertzialek eragin duten prozesu bat izateak ematen dio indarra. Indarra, inongo boteredunek ez duelako zalantzatan jarriko prozesuak dakarren karga politiko guztia; Euskal Herrian ere ikusi dugun bezala, unibertsitateko ateetaraino alfonbra gorria jartzen baitiote hezkuntza ministroetatik hasi eta errektore eta dekanoen gain. Munduko Merkataritza Elkartek (WTO), Europako Enpresarien Mahaiak (ERT) eta enparauek diseinatutako prozesua ez du inongo boteredunek zalantzatan jarriko, horra bere indargune nagusia.

Hori da bere indar nagusia, baina era berean, bere ahulezia nagusiaren iturria ere bai. Izan ere, Bolognako prozesuaren ahuldade handiena unibertsitateko komunitatearena ez izatea da, bere kidegoaren babesik ez izatea; inposaketa bat izatea, alegia. Kurioso da, baina kritikotasunaren eta askatasunaren egoitza behar lukeenean, jendartean eredu behar lukeen instituzioan, hezkuntzaren xedea bera eraldatzen duen prozesu bat aplikatzerako orduan ez da unibertsitateko komunitatea kontuan hartua izan. Kasu batzuetan unibertsitatean nagusi den desinformazio giroaz baliatuz ezkutu aplikatzen saiatu izan dira, beste batzuetan propaganda kanpaina demagogikoekin bonbardatu gaituzte eta besteetan disidentzia kriminalizatu eta prozesuaren aurkako ahotsak indar polizialekin isilarazi dituzte; baina inongo kasutan ez dute irakasle, langile eta ikasleen iritzia biltzeko ariketa ziztrin bat ere egin. Bolognako prozesuaren ahuldade nagusia hori da, komunitate unibertsitarioaren babesik ez izatea.

Bolognako prozesuaren aurka, beraz, asko dago esateko. Prozesu honen edukiak zein formak dira gaitzesgarriak. Formari dagokionez, aipatu bezala, inposaketa hutsa dela, goitik behera egindako prozesua, mundua higiarazten duten eragileengandik hasi, hezkuntza ministroengandik pasatu, eta errektore zein dekanoenenganaino. Herritarrei galdeketa egitearen zilegitasuna bolo-bolo dabilen honetan, jendartean eredu beharko lukeen unibertsitatearen partetik «gauzak horrela dira» edota «Bologna galdu ezin dugun tren» bezalako esloganak jasotzen ditugu galdeketa baten ordeztan.

Edukiari dagokionez, aldiz, Bolognako prozesua Europar Goi Hezkuntza Esparrua eraikitzeko prozesua dela kontuan hartu behar dugu. Zentzu honetan, hezkuntza unibertsitatearen homogeneizazioa, pribatizazioa eta elitizazioa ditu helburu prozesu honek. Homogeneizazioa, europar eraikuntza neoliberalaren xedea baita berori osatzen duten herrien gainetik kultura bakar bat osatzea, eta, zehazki, zerbitzuen salerosketarako mugak gainditzea, GATS akordioak 2010 urterako eskatzen duen bezala (kasualitatez Bolognako prozesua aplikatzeko epe berbera). Pribatizazioa, zerbitzuen salerosketa orokortuaren testuinguruan, hezkuntza delako neoliberalen jo puntu berria, eta prozesu honen bidez, unibertsitateak finantziario pribatua bilatzera behartuak izango direlako, hau da, ikasleontasak igotzera edota enpresei unibertsitatea saltzera. Eta azkenik, elitizazioa, lan munduak, langile kualifikatuak baino, langileria malgua behar duela, unibertsitatea klase dominantearen eskuetan utziz. Eredu anglosaxoniarra bultzatzen du Bolognako prozesuak; Ingalaterrara joatea besterik ez dago goi hezkuntzaz ulertzen dena ikusteko.

Gauzak horrela, zaila da Bolognako prozesuaren alde ezer aurkitzea. Aspalditik unibertsitatean ikasleontasak eskubideen alde borrokan dihardugunontzat, prozesu honek duen alde on bakarra unibertsitateek dituzten ezintasun estrukturalak agerian uzten dituela da. Ez die ez Euskal Herriari ez eta euskal herritarren beharrei ere erantzuten, interes ekonomiko eta komertzialei baizik. Ez du euskalduntzeko boronda-

terik, euskaldunon hizkuntza eskubideak inoiz ez baitira egon unibertsitateko helburuen artean lehen lerroan. Eta, gainera, unibertsitatearen izaera antidemokratikoa inoiz baino gordinago ageri zaigu, kritikotasun eta askatasun garrantzirik urrun, sufragio unibertsialetik urrun, despotismo ilustratuaren garaietara eramaten baikaitu bere politikarekin. Bolognako prozesuaren alde ona, unibertsitatean ezkutatzen ziren alde txarrak denon bistara atera dituela izan da.

**2.** Momentuz, eragin desorekatua izaten ari da Euskal Herrian kokatutako unibertsitateetan. Batzuetan prozesua bururaino eraman da, beste batzuetan aldiz bada oraino zer eginik. Dena den, oro har, Bolognako prozesuaren lehen eragina titulazioen mapa aldatu eta karrerak graduatan debalutzea da, bitartean, enpresa ezberdinek finantzatutako graduondoko eta masterrak eskaintzen hasi delarik. Ikusi besterik ez dago *El Correo* UPVn (unibertsitate «publiko» batean!) eskaintzen duen graduondokoa edota EITBk Deustun zabaldu duena. Itzelezko astakeriak gertatzen ari dira graduen edukiak enpresen beharrei egokitzeko aldaketetan, adibide esanguratsua izanik UPVko kazetaritza ikasketetan Pentsamendu Politikoa eta Soziologia ikasgaiak desagertu izana.

Dena dela, karreraren edukietan sartu gabe ere, begi bista-koak dira Bolognako prozesuaren eraginak unibertsitateen arteko lehiakortasunari dagokionez. Finantzaketa pribatuaren beharrak, unibertsitateak ikasleak erakartzera behartzen ditu, eta ahalegin horren erakusgarri dira unibertsitate ezberdinek martxan dituzten marketin kanpainak. Alde guztietatik dago publizitatea, dendak zabaltzen dira irudi korporatiboa zabaltzeko, dirutzak xahutzen dira campusen kanpo itxura berritu nahian... Unibertsitateen ardura nagusia kanpo irudia zaintzea bilakatu da, dirua unibertsitatea euskalduntzen, eredu pedagogikoaren eraldaketan edo edozein hezkuntza xedetan inbertitu ordez.

Eta hori guztia gutxi izango balitz, eragin lazgarri bat izaten ari da dagoeneko unibertsitarioen profilari dagokionez.

Unibertsitateak enpresen beharrei erantzutea ez da soilik alor akademikoan materia konkretu bat eskaintzea eta karrerako edukiak enpresen mesedetara jartzea. Edukiez gain, etorkizuneko langileak lan mundu prekariora moldatu behar dira, eta bide horretan, ikasleen lan erritmoa areagotu behar dute. Metodologia aldaketaren moztarpean, *full time* ikasleak sortzen ditu unibertsitateak. Eguneko 24 orduak ikasketei begira jarri behar ditu egungo unibertsitarioak. Ezin du bere kideekin solasean denborarik galdu, ezin du musika talde batean denbora galdu, ezin du bere diziplina-koa ez den bestelako jarduera batean denborarik galdu, ezin du museoetan denborarik galdu... eta, gainera, metodologia berriaren arabera, klasera derrigorrez joan behar du, bere burua nola formatu eta akademikoki nola antolatu jakingo ez balu bezala, institutuko ikaslea balitz bezala. Garapen intelektual eta akademikoaren zentzua guztiz galtzen du horrela *full time* ikasleak, klasera joatearen beharrarekin nahasten baitu jarduera unibertsitarioa.

Horrek, ikaslearen garapen intelektual integrala oztopatu eta ikasleria alienatzeaz gain, goi hezkuntzaren elitizazioan ekarpen esanguratsua egiten du. Izan ere, orain arte ohikoa zen ikasle langilearen profila desagertzeko bidean jartzen ari da, biak uztartzea ezinezkoa suertatzen baita. Errektoregai aurkeztu berri den Goirizelaiak berak honela erantzun zidan duela ia hiru urte UPVko Akademi Gestiorako Batzordean gaia lantzen ari ginenean: «ikasketak ordaintzeko lan egin behar duten ikasle horiek, urtean ikasgai gutxiago hartu beharko dituzte lana eta ikasketak bateratzeko». Hori da duela hiru urte ikasleoi emandako erantzuna, eta hori da egun eskaintzen ari direna: etxean diru gutxi duten ikasle horiek karrera lau urtetan egin ordez zortzitan egin beharko dutela. Animatuko al dira orduan unibertsitatara joaten? Ez al dute pentsatuko hori ez dela haientzako esparrua? Egoeraren larritasunaz jabetu behar dugu; arrazoi ekonomikoak medio, hezkuntzarako eskubide unibertsala baldintzatua gelditzen ari da, unibertsitatea elite baten esku gelditzen delarik.¶





**ARTEA 109**

Krisitik zintzilik • Museoa da mezua  
Nork eraikitzen ditu museok? • Bidea irekitzen  
**XABIER GANTZARAIN**

**TEKNOZIENTZIA 115**

Chrome • Telebista eta ingurugiroa  
Bioerregaiak berdeak ote?  
**INAKI IRAZABALBEITIA**

**LITERATURA 123**

Auto-fikzioa • Garesti • Patrikak bete  
**UXUE ALBERDI**

**SOZIOLINGUISTIKA 128**

Euskaltzaindiaren Jagon saila  
Euskararen zaporea  
**LIONEL JOLY**

**TELEPOLIS 136**

Bideo jokoak eskolan • Hiru liburu interesgarri  
3.000 ordenagailu gehiago  
Wiki bat glosategi bat osatzeko  
**JOXE ARANZABAL**

**GLOKALIA 142**

Enbido txikira... • Sinesgarritasuna ments  
Presio taldeen mendeko demokraziak  
... eta hordago handira  
**AITOR ZUBEROGOITIA**

## Krisitik zintzilik

Horixe esan zidan, erakusketara sartzeaz batera, harreran zegoen neskak: krisitik zintzilik. Harrituta gelditu nintzen, mutu eta zurrun, ez bainekien zertara zetorren esaldia. Begitartean antzemango zidan. Tino Sehgal artistaren lana da, argitu zidan gero, eta eskerrak. Esaldi bat aukeratu du erakusketak iraungo duen egun bakoitzerako, eta guk esaldi horixe esan behar diogu erakusketa ikustera datorren orori. Ez gaituk gaizki hasi, nik neure artean, aproposa ongietorria garai hauetarako. Eta ideia ona, hasiera-hasieratik ikusleari durduza eragitea ongietorri bortitz baten bidez.

Horrela ekin nion Koldo Mitxelena Kulturuneko Erakustaretoko bisitari: erne eta adi. Ordu eta erdi neukan dena ikusteko. Nahikoa eta sobera izango zela pentsatuta joan nintzen, baina azkenean ezin izan nion nahi beste denbora eskaini lan bakoitzari. Pozik atera nintzen ordea, ondo pasatu nuen han barruan bueltaka, bideoak ikusten, instalazio eskultorikoetan barrena galtzen, testuak irakurtzen.

*Bitartekaria Museoa da* du izenburua erakusketak, eta izenburu horrexek erakarrita joan nintzen ikustera. Bo, ez, gezurra. Atentzioa eman zidan izenburua espainolezkoa izan zen: *El medio es el museo*. Indarra dauka izenburuak, espainolez behintzat. Vigoko MARCOTik ekarri dute erakusketa hori, eta han emandako izenburua mantendu egin dute hemen. Eta hauxe du helburua, komisarioen esanetan:

Bitartekaria Museoa da proiektuaren asmoa museoaz gogoe-  
ta egitea da, medio zein material gisa ez ezik, hizkuntza zehatz  
batean historikoki ezarritako konbentzio sistema moduan ere.

Konbentzio sistema bat da museoa. Eta konbentzio horien araberakoa gure begirada. Izenburuak berak argitzen dizu

dena. Izenburua irakurri orduko, espainolez ikasi zenuen Marshall McLuhanen esaldi hura datorriz gogora: «El medio es el mensaje». Eta pentsatzen duzu baietz, ona dela izenburua, museoaz gogoeta egiteko abiapuntu egokia datekeela. Buruak silogismoa osatzera egiten baitu nahi gabe ere: bitartekaria museo bada, eta bitartekaria bada mezua, museo da mezua.

## Museoa da mezua

Guggenheim Bilbao Museoa gauza askotan izan zen mugari. *Bitartekaria Museoa da* erakusketaren komisarioen testutik hartua da hurrengo gogoeta hau ere:

1990eko hamarkadaren hasieratik artistek instituzioekin izandako harremanak aztertzen ditu *Bitartekaria Museoa da* erakustekak. Izan ere, 90eko hamarkada une erabakigarria izan zen artearen azken aldiko historian.

Besteak beste, zerbitzuen ekonomiaren sendotze progresiboaren eta teknologia berrien sartze ikusgarriaren eraginpean, museo eta bestelako arte instituzioen lana areagotu egin zen 90eko hamarkadara pasatzean. Gaur egun, artelanak bildu eta erakustez gain, topaleku, jatetxe, liburu denda eta moda pasarela ere izan behar dute. Gainera, hirien marketin globalerako, nazio identitatea eraikitze edo higiezinaren espekulaziorako ere balio dezakete museoek.

Testuan ez da aipatzen museorik, baina niri behintzat, Guggenheim Bilbao Museoa etorri zitzaidan testua irakurri ahal. Museoa bera da mezua: punta-puntako arkitekto batek diseinaturiko eraikinaren distira, Bilboren berritzean izan duen eragina, hiria munduko mapan kokatu duena, ez dakit zenbat milioi bisitari izan dituen. Hori da museoak saltzen duena, horixe da inon zintzilik jarri gabe erakusten duena: arrakasta eta distira. Bertan erakusten den oro blaitzen du ideia horrek, eta silogismorako joera dugunez, ikusleak ondorio hauxe ateratzen du ikusten duena batere gustatzen ez bazaio ere: hemen erakusten bada, ona izango da. Horretarakoxe dira museoak oro, zilegitasuna emateko artelan bati, artista bati, nazio bati, eta batez ere, zilegitasuna emateko museoari berari.

Beharbada horrexegatik gustatu zitzaidan hainbeste Koldo Mitxelenako erakusketa, auzitan jartzen duelako museoen zeregina, eta agerian uzten konbentzio sistema horien erai-kuntza sendo bezain arola. Ezin ahaztu, ordea, azken bel-tzean erakusketa hori arte instituzio batek antolatu eta para-tu duela bertan, erakustareto batean zaudela, eta horixe de-la mezua: museoak bere burua zalantzan jartzen du, eta kin-ka horretatik beti ateratzen da pixka bat sendoago.

Lehen ahaztu egin zait esatea: ordu eta erdi erakusketa ikus-ten pasatu ondoren, bertako langileek ixteko ordua zela ira-doki zidaten, eta aterantz egin nuenean, langileetako batek inkesta moduko bat beteko al nuen galdetu zidan. Bai, noski. Ze inkesta modu ote zen ikusteko irrika sartu zitzaidan. Non-go nintzen, ze ikasketa maila neukan, zergatik eta zenbatean behin joaten nintzen, zer iruditu zitzaidan langileen lana. Eta hainbeste galderarekin, neuri ere galdera bat sortu zitzaidan: eta museoa bada mezua, nork eraikitzen ditu mezuak?

## Nork eraikitzen ditu museoak?

Koldo Mitxelenako erakusketaren komisarioen hitzak di-ra hauek ere:

Beraz, museoaren funtzioak, gaur egun, arte hutsa izatetik askoz harago doaz. Dela irizpide ekonomiko hutsen pean edo gizarte zein historiarekiko lotura batetik ikusita, gauza garbia dirudi beren autonomia tradizionala galdu eta egun-go gizartein instituzio zentral bilakatu direla.

Nork eraiki zuen Louvre? Nork eraiki zuen Prado? Nork eraiki zuen Hermitage? Nork Moma? Nork Tate? Nork Guggenheim Bilbao? Zergatik? Zertarako? Museo bat erai-kitzea deliberatzeko orduan, zer hartzen da kontuan?

Urriaren 12ko *El País*en, Jose Luis Bilbao Bizkaiko Ahal-dun Nagusiari egindako elkarrizketa mamitsua irakurri ahal izan genuen.

*Nolakoa izango da Urdaibaiko Guggenheimen proiektua?*  
Ez dakit.

*Ez dut sinesten ez dakizula.*

Benetan, ez dakit. Guggenheim Bilbao Museoa-ren hamargarren urteurrenez geroztik, gogoeta estrategiko bat egiten ari gara, lau ildorekin: instalazioak handitzea, museoan bisitarientzako harrera eta interpretazio esparru bat sortzea, sarrera sartzeko programa bat egitea, eta mundu mailan oihartzuna izango duen hezkuntza kontu bat, zeinaz nahiago baitut ezer ez esan. Dagoen lekuan ezin da handitu, eta hainbat aukera geneuzkan. Horrekin batera, lurraldeaz gogoeta egiten ari ginen, eta Urdaibai eta Busturialdea hiltzen ari zitzaizkigun. Irisgarritasuna emango diogu inguru horri, baina zer-bait behar genuen hura berpizteko. Eta non? Ba badago leku posible bat, eta BBKrekin hitz egin, eta piezak kokatuz joan ginen. Behin kokatuta, Bilbao erotu egiten da, eta egun batean, esan egiten du. Eta 100 milioi jartzen ditugu gure gordekinetatik. Hori guztia batzen da, eta badago beste kontu bat ere: 2014an bukatzen da New Yorkeko Guggenheimekin daukagun kontratua. Guk mundu mailako sare horretako partaide izaten jarraitu nahi dugu. Euren koroako bitxia gara. Eta handitze plan hau etorkizunera begirako apustua da.

*Eta nolakoa izango da proiektu zehatza?*

Lan talde bat osatu dugu New York eta Bilboko jendearekin hurrengo hiletan hainbat gauza egiteko. Lehenengo eta behin, museo proiektu bat: artea, natura, jasangarritasuna eta jarduera ekonomikoa. Euskal artea, oso inportantea. Artista egoiliar baten figura, eta ez dut izenik emango. Urليا, urtebetez Urdaibaiko Guggenheimen egongo da sortzen, erakusten eta egiten duena transmititzen. Gero, arkitektura proiektua. Lehiaketa internazionala egingo dugu, gonbidapen bitartez seguru asko, eta punta-puntako arkitektoei esango diegu, hau da han dagoena eta muga hauek ditu. Eta lehiaketa irabazten duenari esleituko zaio eraikitze proiektua. Finantza plana egin behar dugu. Zenbat kostatuko den? Ez dakit, benetan ari naiz. 100 milioi euro gorde ditugu, baina ez badaukat esleituta ideia lehiaketa, eta proiektua ez badago martxan, nola esango dut zenbat kostatuko den? Eta New Yorkekin hurrengo kontratuaren edukiak negoziatu.

*Eusko Jaurlaritzak ez dizu dirurik emango.*

Bidea irekitzen ari gara. Iritsiko da Eusko Jaurlaritza sartzeko unea. Gaur beste gauza batzuetara daude. Egongo da denbora.

## Bidea irekitzen

Erakunde publikoaren pertsonalizatze lotsagabeaz gain (100 milioi euro horiek bereak balira bezala aipatzen ditu,

besteak beste), bidea irekitzen ari delako horrek jan zidan arreta. Bidea irekitzen, zertarako, Eusko Jaurlaritzak proiektua onartu eta dirua jartzeko ez bada? Arte alorrean, kultura alorrean, ezer bilatzen du Bilbaok? Bilatzen du bidea irekitzea?

Bidea ireki zutenak orain 100 urte Bilboko Arte Eder Museoa ireki zutenak izan ziren. Gaur arte modernoa hobeto ulertzen badugu, eta gure ondarearen balioa aitortzen hasi bagara, orduan erabakia hartu zutenei esker da. Alde txiki bat badago orduko eta gaurko museoak irekitzeko erabakien artean: Bilboko Arte Eder Museoaren bultzatzaileak artistak eurak izan ziren. Aurelio Arteta bat, esate baterako, zuzendari ere izan zen. Arriskatu egin zuten, erakusketa zailak ekarri zituzten, garai hartan ondo hartuko ez zirela jakin arren. Arian hezi da gure begirada. Gaur, museoetako zuzendariak kudeatzaileak dira. Begira Ignacio Vidarte, Guggenheim Bilbao Museokoa: Bilbon egin duen lana eskertu eta saritzeko, Guggenheim Fundazioaren estrategia globalaren arduradun izendatu dute. Gaur oso da zaila artistarik ikustea zuzendari postuetan. Artista izateko balio ez duenak, beti dauka politikari sartzia.

## Artista txarra, politikari

Kokoschak barrua jaten zion harra zeukan, hala aitortu zion Elias Canetti idazleari: «ez banintz azaldu azterketa haietara, munduak ez zukeen ezagutuko hain diktadore zitala». Vienako Arte Ederren Fakultaterako sarrera probaz ari da. Bera hartu egin zuten, eta Adolph Hitler ez. Beste behin ere saiatu zen Hitler, baina ez zuen azterketa gainditu. Orduantxe aholkatu omen zion lagun batek politikan sartzia. Harrezkerokoak, badakizkigu.

Urriaren 25eko *Le Monde* izenburu deigarri hau zekarren: «Hitler se vend bien à la FIAC». Zer da hau, egin nuen neure artean. FIAC Parisko Arte Azoka da, eta krisitik zintzilik gaudenez, aurten bazen kezka salmenten gainean. Bai-

na ez nuen pentsatzen inork erosi nahiko zituenik Hitlerren pinturak. Artikulua irentsi egin nuen.

Ez ziren Hitlerrenak, edo bai, edo ez dakit. Ea asmatzen dudan azaltzen: Jake eta Dinos Chapman anaiek Hitlerrek pintatutako olio eta akuarela batzuk erosi zituzten, eta orain, horiek gaineratik pintatu ostean, salgai jarri dituzte, eta oso ongi ari dira saltzen. Kontuak badu mamia.

*Les Inrockuptibles* aldizkariko Jean-Max Colard arte kritikiariaren testua aurkitu nuen gero, bezperako *Le Monden*. Horren arabera, Chapman anaiek 155.000 liberatan erosi zituzten Hitlerren lanak, eta orain 650.000 eurotan jarri dituzte salgai. Baina kritikaria asaldatu duena ez da hori, honetzero ohituta dago horrelako kontuetara, sakonago josten duen beste hau baizik: artistak edozer egin dezake artearen izenean? Erosi eta molda ditzake Hitlerren pinturak, nahiz eta horiek pertsonaia historiko baten, eta beraz mundu guztiaren ondarea izan? Erosi eta gaineratik pinta ditzake, Hitlerrenak direlako? Non dago ondarea babestu beharra, non artistaren etika? Artistak edozer egin dezake artearen izenean? Ez da galdera txarra.

Eta politikariek, edozer egin dezakete herriaren izenean?¶

## Chrome

Google ahaltsoak web erreminta berri bat aurkeztu zuen abuztuaren 24an: Chrome nabigatzailea. Bilaketan merkaturuan nagusi izatea ez omen zaio aski konpainia estatubatuarri, eta beste urrats bat eman du Interneteko aplikazioen esparruan erreferente bakarra izateko.

Hori ez da izan udaren bukaerak ekarri digun nobedade bakarra. Izan ere, irailaren erdialdean Googlen itzulpen automatikorako motorrak katalanaren eta gaztelaniaren arteko itzulpena egiteko aukera eskura jarri du. Googlen sistema estatistikoa da. Era horretako sistemek corpus elebidun handiak behar dituzte emaitza onak ekoizteko. Sobra ere, corpus-bilketa oparoa egin du Googlek, lortzen diren emaitzek itxura ona dutelako. Sistemaren ebaluazio sakonik ez dugu artean egin Opentrad partzuergokook, hala eta guztiz ere.

Chromek jakin-min handia eragin zuen. Komunikabide gehienek espazioa eskuzabal eskaini zioten. Harrabotsa batez ere mediatikoa izan dela dirudi. Internet-nabigatzaileen erabilera-kuotan oso eragin txikia izan du. Googlen beste produktu eta zerbitzu batzuek erabilera-inpaktu handiago izan dute oso laster. Kasu honetan Windowserako bertsioa baino ez jaulkitzea kalterako gertatu zaio, aukera horrek estandarrak ez diren aplikazioak probatzeko zaletasuna izan dezaketen maczaleak eta linuxzaleak kanpoan utzi dituelako; neroni adibidez.

Ikus ditzagun datuak. Net Applications konpainia kaliforniarra eginiko azterketak dioenez, lantzamendu egunean bizkor hazi zen Chrome, %1eko merkatu-kuota harrapatu arte. Gero, beherantz egin du, nahiz eta irailaren hasieran



%1 berriz ere gairitu zuen. Irailaren bukaeran, %0,75en bueltan kokatu zen merkatu-kuota (ikus <http://marketshare.hitslink.com/report.aspx?sample=24&qprid=34&qpcustom=Chrome+0.2&qsp=3531&qnp=41&qptimeframe=D>).

Egia esan behar badizuet, poztu egiten nau Chromek arrakasta izan ez izanak. Joan den mendearen bukaeran, Google Microsoften nagusigoaren kontrako alternatiba moduan aurkeztu zitzaizun. Oso *cool* bihurtu zen Google usatzea. Hamarkada baten ondoren, Googlen produktu eta zerbitzuak nonahi ditugu. Gargantua bilakatuta, ez dago irentsi nahi ez duen sare-zerbitzurik. Sarritan, gainera, internauten gehiengoa bere sabelean sartzea erdiesten du. Kezkatzekoa da *de facto*ko monopolio baterantz ikusten den joera hori. Are gehiago, jendearen kontrolerako balio duen anitz informazio agente bakar baten esku gelditzen ari delako. Konturatu gabe, gure ohitura, jarrera, pentsamolde, iritzi eta enparaei buruzko informazio-kantitate itzela uzten ari gara bere esku: bilaketak Googlen bidez egiten ditugu, Gmail posta kontua dugu; Googlemaps usatzen dugu tokiak lokalizatzeko; Picasan konpartitzen ditugu argazkiak; Bloggerren daukagu gure bloga, Googledocs usatuko dugu on-line ofimatika baliabide moduan; YouTuben esekiko ditugu gure bideoak...

Eta hori ez da guztia. Urriaren 22tik aurrera estatubatuarrek Googlen segapotoa erosteko aukera ere izango dute. Ubikuotasuneranzko beste urrats bat.

Ordenadore kontuetan, Windowsen atzaparretatik at ibili izan garenok, Bill Gates-en kontrako gurutzadan geniharduela esaten genuen. Larry Page eta Sergey Brin-en aurkako gurutzadan hasi beharko al dugu orain? Nekeza ikusten dut, sistema operatibo bat edo beste erabiltzea errazagoa iruditzen baitzait, makina bat zerbitzuri ordezkoa bilatzen hastea baino. Inguruari erreparatu. Sistema alternatiboen aldekoak diren linuxzaleek eta librezaleek ere enpatzurik gabe usatzen dute Google bilatzailea edo Gmail posta-zerbitzua.

## Telebista eta ingurugiroa

Eztabaida ugari egon ohi da telebistako edukien onuraren inguruan: umeentzako kaltegarriak ote diren, biolentzia sustatzen ei duten... Egia esan ez dira harritzekoak horrelako eztabaidak telebista-edukien maila kulturalari eta transmititzen dituzten balioen egokitasunari erreparatuta. Alabaina, ez dut eztabaida hori lerro hauetara ekarri nahi. Telebistaren beste kalte posible bat izango dut hizpide, ingurugiroari egiten diona hain justu.

Duela bizpahiru urtetik hona, itzalketa digitalaren aitzakian besteak beste, pantaila lauko telebistak ugaritzen ari dira gure etxe eta tabernetan. Horrek klimari kalte egin diezaioke. Pantaila lauen eta beste hainbat gailu elektronikoen fabrikatzaileek nitrogeno fluoruroa (NF<sub>3</sub>) baliatzen dute fluoro-iturri moduan jalkitze-prozesuetan. Fabrikatze-prozesuan kontrol-neurri egokiak beti hartzen ez direnez, atmosferara ihes egiten du gutxi gorabehera erabiltzen denaren heren batek. 2008an 4.000 tona inguru gas fabrikatuko dira. Ez dirudi kantitate handia. Alabaina, nitrogeno fluoruroa ahalmen handiko berotegi gasa da eta nahikoa egonkorra atmosferan. Karbono dioxidoa baino 17.200 bider berotegi ahalmen handiagoa du eta 550 urtez iraun dezake atmosferan deskonposatu baino lehen. Beraz, tentuz ibiltzekoa bada fenomeno!

Bestalde, Kiotoko protokoloa sinatu zen garaian nitrogeno fluoruroa ez zen apenas erabiltzen eta ondorioz protokolutik kanpo gelditu zen gas horren emisioen kontrola. Gasaren ezaugarriak kontuan hartuta oso zentzuzkoa dirudite nolabaiteko kontrol-mekanismo batzuk jartzeak eta gasaren jarraipena egiteak. Horixe bultzatzen ari dira AEBetan hainbat zientzialari.

## Bioerregaiak berdeak ote?

Zordun nengoen irakurleekin aurreko batean bioerregaez jardungo nintzela agindu bainuen. Beraz, urtea amaitu ai-

tzin zorra kitatuko dut, ez baita komeni zor handiegia pila-tzea krisi garaiotan.

Nahiz eta gizakiak betidanik usatu dituen bioerregaiak energia-iturri moduan, eztabaida bizia dabil gaiaren inguruan. Zer dira bestela egurra edo hainbat herrialde tropikaletan erretzen diren gorotz lehorrak? Bioerregai tradizionalak. Eztabaida ez dago horretan, oro har, nahiz eta Saharaz hegoaldeko hainbat herritan deforestazioaren kausetako bat jatekoa berotzeko bildutako egurra den. Petrolioaren deribatua ordezka ditzaketen bioerregai likidoak dira arazoa, bioetanola nagusiki.

Politikariek, automobil-fabrikatzaileek eta energia-konpainiek, petrolioaren amaieraren horizontea ikusi dutenean eta berotegi-efektua mamu ez eta errealtate dela ohartu direnean, gasolinaren eta beste petrolio-erregaien ordezkoen bila hasi dira. Nekazaritza produktuetatik deribatutako erregai likidoak izan dira hautu nagusia. Sakoneko arrazoi bat dago. Horiek produzitu eta banatzeko teknologia beste sistema batzuen, hidrogenoarena adibidez, baino askoz ere helduagoa dago.

Gure artean, adibidez, biodiesela aurki daiteke gasolindegi gutxi batzuetan. Horietan salgai dagoen erregaiak landare-jatorriko diesela eta petroliotik deribatutakoak nahastuta ditu, %20ko eta %80ko proportzioan hurrenez hurren. Biodiesela, oro har, hazi oliotsuak dituzten landareen hazietatik lortzen da, hots, koltzatik, ekiloretik, sojatik edo palmondotik. Landare horien olioak transesterifikatu egiten dira biodiesela osatzen duten ester alkilikoak sintetizatzen. Bestalde, sukalde-olio birziklatuak eta animalia-koipeak ere usatzen dira biodiesela egiteko.

Hala ere, bioetanola munduan biodiesela baino hedatuago dago, eta aitzindarizat jo daitezkeen bi estatutan, AEBetan eta Brasilen hain justu, bera da bioerregai nagusia. Horregatik, horretan zentratuko dut azalpena.

Artaletik edo beste edozein zerealetik bioetanola sintetizatzen prozesua eta mahatsa ardo bihurtzekoa bera dira.

Bietan landareen azukreak, legamiak lagunduta, degradatu egiten dira alkohola eta karbono dioxidoa emanez. Erreakzioaren emaitza distilatu egiten da gero etanola purutzeko. Distilatze- eta purutze-prozesu horretan beroa behar da eta, eskuarki, gas naturala erretzen da horretarako. Erregai fosil bat, alegia. Kalkulatu izan denez, litro bat etanol produzitze-ko —zeinak 5.300 kcal energia emango baitu erretzean— 2.400 kcal gas natural behar dira.

Lehen begiratu batean, bioetanola erretzeak energia-balantze positiboa du. Alabaina, hori ez da horren nabarmen, zeren eta hartzidurak dituen energia-beharrei prozesu osoaren gainerako energia-eskakizuna eransten badiogu (landareak ereiteko, hazteko eta biltzeko energia, uzta prozesatze-plan-tetara garraiatzeko energia eta erregaiaren banaketarako energia —oliobideetan ura sartzea saihestezina da, baina ez du arazorik eragiten erregaiekin nahastezina delako; etanola, ordea, erabat nahasten da urarekin eta, ondorioz, bere erregai-balioa galdu egiten du: horregatik kamioi bidez garraiatzen eta banatzen da), balantzea positiboa denentz ez dago horren garbi. Autore batzuek negatiboa dela esaten dute, eta gehienak akort daude positibo izatekotan oso neurri txikian jazotzen dela hori (ikus [www.ethanol-gec.org/netenergy/neypimentel.pdf](http://www.ethanol-gec.org/netenergy/neypimentel.pdf)).

Beste hitz batzuetan esanda, erretzean kaloria bat emango duen bioetanol kantitatea lortzeko, kaloria bat inguru bestelako energia behar da. Egun, energia hori, zuzenean edo zeharka, erregai fosilak erretzen produzitzen da.

Bestalde, etanolak gasolinak baino bero-ahalmen txikiagoa du, eta bion kantitate bera erretzean, etanolaren etekina %37 txikiagoa izango da gasolinarenarekin konparatuta. Alegia, distantzia bera korritzeko etanol litro gehiago erosi behar dira gasolindegian gasolina litro baino.

Beraz, ez dirudi bioetanolarena oso hautu egokia denik, ez energia-eraginkortasunaren ikuspegitik, ez petrolio-erreserbak zaintzearen ikuspegitik ezta berotegi-gasen emisioen murrizketaren ikuspegitik ere. Hori ez da egia osoa. Izan

ere, Brasilen azukre-kanaberatik ekoitzitako bioetanolaren produkzioa energia-balantzearen ikuspegitik positiboa izan daiteke, kanabera berez hazten delako eta ongarririk behar ez duelako besteak beste. Halaber, zerealen kasuan ere energia-balantzea bestelakoa izango litzateke aleak hartzitu ordez uztondoak hartzituko balira. Kasu horretan, bioetanola lortzeko prozesuaren lehengaia elikatzeko zereal-uzten azpiproduktu bat izango litzateke, eta ezin izango litzaioke leporatu zereala hazteko behar den energia-input osoa. Alabaina, uztondo horien zelulosa hartzitu eta etanol bihurtzen duen legamia egokirik ez dago oraindik merkatuan.

Dena dela, bioerregaiek sortzen dituzten kezka haratago doaz. Ekologisten eta zientzialari askoren ustetan, bioerregaien aldeko apustuak bi ondorio izango ditu gutxienez munduko nekazaritzan:

- Elikatzeko zerealak erregai bihurtzera bideratzea. Horrek oinarritzko elikagaien prezioak igoko ditu, eskariak eskaintza gaindituko duelako.
- Uzta energetikoen eskaera handitzeak azalera gehiago landatzea eskatuko du. Horretarako beste uzta batzuk ordezkatzeko dituzte uzta energetikoen, batetik, eta lur berriak landuko dira, bereziki basoak soiltzetik lortutakoak. Horrek ondorio latzak izango ditu biodibertsitatean eta baso tropikalen iraupenean, uzta energetiko produktiboenak herrialde tropikaletan hazten direlako. Indonesian jada baso tropikala galtzen ari da olio-palmondoak hazteko lur berriak eskuratzearen ondorioz.

Eman dezagun, hala ere, aurreko ondorio guztiak onartzen ditugula eta bioerregaien aldeko apustua egin egiten dugula. Orain petrolio-deribatuen bidez asetzen ditugun energia-premiak asetzeko moduan egongo al gara? Erantzuna ezezko bibrila da. Esaterako, Alemanian dagoen energia elektrikoaren eskaera asetzeko estatu osoko lurrak landare energetikoz landatu beharko lirateke; edo AEBetako arto-produkzio osoa bioetanola produzitzera bideratuko balitz, bertako ibilgai-luen erregai-beharren %7 baino ez litzateke estaliko.

Baztertu behar al ditugu hortaz bioerregaiak? Ez, jakina. Bioerregaiak beren kuota izan behar dute etorkizuneko energia-iturrien artean. Ezin da pretenditu, ordea, bioerregaiak orain erregai fosilek betetzen duten tokia izatea, nahiz eta ideia hori esplizituki ez bada inplizituki ulertzeraz ematen duten bioerregaien apologistek eta horrenbeste ugaritu diren auto berdeen saltzaileek. Karbono dioxido gutxiago isurtzeak, neurri batean erretzen dituzten erregaiak berriztagarriak direlako, ez ditu automobilak berde egiten. Errepideek okupatzen dituzten lurrek, horiek egiteko erauzi behar diren lehengaiak, autoak egiteko behar diren metal eta gainerako materialen produkzioak ingurugiroari eragiten dioten kaltea ahaztu egiten dira. Egungo automobil partikular ubikuoaren eredia ez litzateke jasangarriago izango gasolinaren ordean, demagun, eguzki-energiaren lortutako hidrogenoa erreko baltz. Gas-emisio poluitzaileak zero izango liriateke; ahantz gintezke berotegi-efektuez, baina errepideak, autoak egiteko lehengaiak, harrobiak, zementua eta enparauak behar izango liriateke. Higikortasun-eredia da arazoa, eta hori aldatzeko noranzkoan indar egiten ez badugu, bioerregaiak, hidrogenoa eta gainerakoak adabakiak izango dira; adabaki batzuk besteak baino eraginkorragoak dira, alta bada.

Nire ustez bioerregaien aukera serio hartu ahal izateko, hainbat baldintza bete beharko liriateke:

- Elikagai gisa usa daitekeen landaririk ez izatea lehengaiak.
- Landare energetikoen soroek ez ordezkatzeko elikatzekeko landareen soroak. Jada lantzen ez diren lurzorua edo lurzoru marjinalak baliatu beharko liriateke (zenbait autotek autopisten alboetan haztea proposatu izan dute!!).
- Uztondoak eta basogintzaren hondarrak lehengai nagusi moduan baliatzea, ahaztu barik birziklatutako sukalde-olioak eta antzeko hondakinak.
- Bioerregaiak sintetizatzekeko beharrezkoa den energia iturri berriztagarrietatik lortua izatea.
- Bioerregaiaren produkzioa eta kontsumoa maila lokalekoa izatea.

- Bioerregaiak garraio publikoak eta sozietatearen zerbitzuek (anbulantziek, suhiltzaileek...) erabiltzekoak izatea nagusiki. Ez litzateke sustatu beharko ibilgailu pribatuek bioerregaiak usatzea oraingo petrolio-deribatuen ordezkiko moduan, bereziki bioerregaien produkzio-guneetatik urrun dauden eskualdeetan.¶

## Auto-fikzioa

Harrigarria da zintzotasunak nolako morboa ematen digun. Norbaitek egia esan behar digunean adi jartzen gara gure aulkian: gogoko ditugu streaptease emozionalak, eta zeremoniaz egiten diegu ongi etorria. Kezkatzeraino susmagarria da egiari diogun errespetua.

Pako Aristik iazko udan *Berrian* idatzi zuen artikulu batekin oroitu naiz: «Ego-surfinga» zuen izenburu. Ez dakienarentzat, nor bere buruaren bila aritzea litzateke ego-surfinga, baina psikologoaren kontsultatik igaro gabe: Interneteko bilatzailearen batean norbere izena idatzi eta *bilatu* teklan klik egitea. Horrela, segundo pare baten buruan, munduan zer toki hartzen dugun jakingo dugu. Hitz txikitan esanda, munduak gutaz duen pertzepzioaren jabe izango gara. Sarraila baten zulotik norbait zelatatzea bezalako da, baina begiratzen duenak bere burua ikusiko du beste aldean... Ezagutuko duen ala ez, hori beste kontu bat da.

Nik ego-surfinga urteetan egin dut, Internet ez zegoenean; eta susmoa dut sortzaile gehienek ere hala egiten dutela. Nire izenaren bila irakurtzen nituen egunkariak, literatur gehigarriak, beste idazleen elkarrizketak, kritikoen azterketak, futbolarien irakurketa ohiturak, ea aipatzen ninduten. Behar nuen onarpena, txaloa, ezagutza, oniritzia, laudorioa, apetito aseziez (*Berria*, 2007-08-31).

Horra, zintzotasunaren morboa. Pako Aristi imajinatzea Googleko laukitxoan *Pako Aristi* idazten. Masturbazioaren forma gorena.

Egoa, nia... Harkaitz Canok itzuli berri duen *Intimitatea* liburuak eraman nau gogoeta hauetara edo, hobeto esanda,



Canok berak esandako zerbaitek. Etorkizunean, literatura bi bidetatik garatuko omen da: zientzia-fikzioaren bidetik eta auto-fikzioarenetik. Egoa, nia, auto-fikzioa...

Auto-fikzioan idazleak itun moduko bat sinatzen du irakurlearekin: autoreak bere buruaren antz handia duten pertsonaiak sortuko ditu, eta nahita azpimarratuko ditu antzekotasun horiek: egiaren eta zintzotasunaren morbo hori jarriko du jokoan. Kureishiren *Intimacy*ren kasuan, autorea eta pertsonaia, biak dira gidoilariak, biek irabazi dute Oscar bat, biak bizi dira Londresen, adin beretsukoak dira... Hor-tik aurrera konta dezakeen guztia jolasaren parte da, irakurleen buruan, nahi gabe ere, galderak sortuz joango baitira: *hau egia ote da?; eta beste hau?...*

Gogoan dut, idazten hasi berritan editore batek testu baten kritika egin zidala, *ez da sinesgarria* esanez. Nik, neure ezjakintasunean, *benetan gertatutakoa da-eta!*, erantzun nion xalo-xalo. Orduan azaldu zidan horrek ez zuela piperrik ere axola: gezurrak egiak beste balio zuela, idatzitakoa sinesgarria izatekotan. Baina... Idazlearen irudiak bere obrak beste balio duen honetan... Hain oker ote nenbilen? Auto-fikzioan behar-beharrezkoak dira errealitatearekin bat egiten duten datu batzuk, egiak egiten ditu sinesgarri gezurrak. Otsoaren ipuinak bezala funtzionatzen du, baina alderantziz. *Otsoa dator!!*, esaten den lehenengo hiru aldietan otsoa benetan etorriko da, eta ardiak jango ditu. Laugarren ekinaldian, agian, ez da etorriko, baina ordurako ez gara falta diren ardiak zenbatzen hasiko.

*Beraz, hemendik aurrera, idazleek ez dute nahikoa izango gauza interesgarriak idaztearekin, bizitza interesgarria izan beharko dute, esan nion Harkaitz Canori, auto-fikzioa buruan. Keba, erantzun zidan, edozein bizitza aspergarri interesgarri bihurtu liteke formula honekin.* Arrazoi. Bi egia aspergarri ondo saltzea baino ez dago lau gezur interesgarri sinesgarri bihurtzeko.

## Garesti

Baina nolako lotsa ematen digun egia batzuk publikoki aitortzeak. Gabriel Arestiren jaiotzaren 75. urteurrena zela eta bere bertsoen hautaketa egin eta ekitaldi batean kantatzeko ardura hartu genuen Erika Lagomak eta biok. *Zuk badaukazu Arestiren obra?*, galdetu nion nik. Kasualitatea. Biok geneukan, baina biok gurasoen etxean. Itxuraz, gure aitaren etxea defendatzen ari da oraindik...

Urteurren horren harira, Xabier Gantzarainek deitu zidan *Sautrelarako* Arestiren inguruko erreportaje bat prestatzen ari zirela esanez: egungo gazteentzat Aresti zer den, zenbaterainoko eragina duen gure idazkeran, imajinarioan... Lotsatu egin nintzen. Lotsatu egin nintzen 18 urteko abertzale bat Jon Idigorasen bizitzaz ezer gutxi dakiela esatera behartuta dagoenean lotsatzen den bezala... Eta, gainera, uste dut ez naizela lotsatu den bakarra izan: gazte bat baino gehiago ikusi baitut egunotan masailak marrubi, Gotzon Garateren obraz, Iratzederrenaz edo Arestirenaz galdetu dietenean.

Aresti entzun orduko datu batzuk etortzen zaizkit gogora: Bilbo, euskaldun berria, *Harri eta Herri*, *Nire aitaren etxea*... Baina aitortzen dut, adibidez, *Egun da Santimamiña* herrikoia zela uste nuela, autore mamuen beste letra bat gehiago. Aitortzen dut, baita ere, Internetek gauza bera uste duela, Googlen *Egun da Santimamiña* idatzi eta *letra: tradicional* eta *letra: Mikel Laboa* bezalakoak topatu baititut.

Garestirekin akordatu nintzen, idazle garaikide baten bihurrikeria inteligentearekin. Orain urtebete komunikazio zerbitzu batetik deitu zioten Julen Gabiriari Gabriel Arestiren telefonoa eskatuz. Fnac dendak Bilbon sukurtsala ireki behar zuen, eta euskal autore batzuen testuekin bilduma osatu nahi omen zuten. Horretarako behar zuten Arestiren telefonoa, autoreari baimena eskatzeko. Julenek, telefonoa ezetz, baina helbide elektronikoa bazuela esan zien: garesti@gmail.com. Berehala, helbide hori sortu eta handik minutu gutxira jaso omen zuen e-maila: *Gabriel agurgarria* bla, bla, bla...

Bada, aitortu behar dut Gabrieli idaztekotan nagoela: zorionak emateko. Pentsatu dut garesti@gmail.com horretara mezu bat idatziko dudala, esanez *Joxepa Mendizabal Zaldibian* dela aspaldian gehien hunkitu nauen poema; «etarren amek / asko sufritzen dute. / Andre hauen bihotzetan / kabitzen da / munduko min guztia...» hasten den poema gogor, gordin eta jeniala. Eta Julenen erantzunaren zain geldituko naiz, idazle miope bat eta bestea nahastuz eta bien artean bat eginez. Pentsatu dut Mikel Laboari ere deituko diodala esateko *Egun da Santimamiña* dela bertso-poteo guztiak salbatzen dizkigun kanta, eta oraindik ere denek dakitela leloa, eta letra hori denon bihotz-buruetara iritsi dela... Eta ez, ez diot onartuko letra hori berea ez dela esatea. Azken batean, hau ez da CEDRO, eta gauza polita da autorearen zorion-eskubideak sozializatzea.

Batzuek zure letrak herrikoiak direla uste dutela? Herrikoiak eta harrikoiak, jakina, eta hala iraun dezatela.

## **Patrikak bete**

Eta zer pentsatuko luke Arestik *Nik sentitzen nuen Bilbok abangoardia izan behar zuela, baina orain marka hutsa da, dioenaz?* Seguru asko, arrazoia duela. Ander Lipus. Patrikak pertsonaiez beteta daramatzen bufoia.

Izugarrizko inbidia ematen dit Lipusen literaturak, hori bai dela benetako poltsikoko literatura. Pertsonaiekin hitz egin ahal izatea, haien erreakzioak neurtzea eta hitz egiteko modua xehatzea..., baina ez ordenagailuaren aurrean edo libreta zahar batean, uneoro baizik. Lipusek berak aitortzen du etengabeko ikerketa joko dela berea.

Eta ikerketa joko horretan argi dauka zerk egiten dituen onargarri edo arbuiagarri bere pertsonaiek: konpartitutako komunikazio kodeak. Hau da, antzoki batean onargarri izan daitekeen pertsonaia bat (mozkorra, esaterako) ez da onargarri kalean, semaforo baten ondoan. Baina, kezkarriena ez da hori, kezkarriena da zenbateraino ari den mehetzen,

ahultzen (baita antzokien barruan ere) konpartitutako kode horretan kabitzen dena: gero eta gauza gutxiago dira onargarri komunikazioaren bi aldeetan, gero eta gutxiago dute konplizetik igorleak eta hartzaileak. Eta horrek komunikazio ekintza guztiei eta arte mota guztiei eragiten die.

*Urratzearen kontzeptu eskasa dugu*, dio Lipusek, eta Angelica Liddle aipatzen du. Hark «Mecago en la puta bandera de España, hijos de perra, os voy a matar porque sois todos...» eta halakoak idazten ditu, juxtu, irakatsi diotenaren kontra. Baina ikus al daiteke halakorik gure gaurko antzerkian, literaturan, bertsolaritzan? Ez ote gara gero eta politikoki korrektoagoak?

*Antzerkira joatea bazkaltzera joatea bezalakoa da, huskeria*. Bertso-saio batera joatea ere bai. Liburu bat irakurtzea ere, halatsu, normalean. Eta ados nago Lipusekin: euskal kulturari inpaktu handiagoa egon behar litzateke, horren beharrean gaudelako.

Baina nor aterako du poltsikotik traba egiten duen pertsonaia hori?¶



## Euskaltzaindiaren Jagon saila

Euskaltzaindiaren 90. urteurrena dela-eta, Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarrak burutu ziren Iruñean urriaren 6tik 9ra. Euskaltzaindia aipatzerakoan corpusaren lanketa bururazten zaigu: euskara batua, orotariko hiztegia... Gutxitan lotzen dugu euskararen akademia maila soziolinguistikoarekin, eta XVI. Biltzarren egitaraua begiratzekoan ere argia da corpusari eskainitako nagusitasuna. Dena den, akademiaren ekarpen soziolinguistikoa askotan gutxiesten da nire ustez. Hain agerikoa izan ez bada ere, oso garrantzitsuak dira Jagon sailak kaleratu dituen lanak; eta Siadeco ikerketa sakonak egiten hasi zenean, akademiak 1978an argitaratutako *Euskararen Liburu Zuria* Euskal Herriko egoera soziolinguistikoari buruzko lehenengotariko azterketa orokorra izan zen. Noski, liburua argitaratu zenetik, 80ko hamarkadatik hona, aldaketa dezente egon dira bai corpusaren plangintzan eta baita egoera soziolinguistikoan ere; eta Iruñeko Biltzarretan soziolinguistikarekin erabat lotzen den egitasmo polita aurkeztu zuen akademiak: Euskararen Historia Soziala deitutakoa, hain zuzen ere.

Proiektu horren helburua euskararen bilakaera historikoa maila sozialean aztertzea da, eta helburu historiko-soziolinguistikoa izanik, proiektuarekin aurrera egiteko aukeratu den metodologia, Mikel Zalbidek sortua, soziolinguistikoa da. Momentuz ez noa beste informaziorik ematera proiektu horri buruz, denborarekin ikusiko da oraindik gaztea den eta esperantza handiak sortzen dituen proiektu berri horri eskaintzen dituen fruitu guztiak ateratzeko gai garen. Proiektuaren aurkezpen labur bat egin zuen Joseba Intxaustik, egitasmoaren zuzendariak, *Euskera* aldizkarian («Joanes Etxe-

berri Egitasmoa (2007-2008) Euskararen Historia Sozialera-ko Proiektua»), eta laster Iruñeko aktak argitaratzen direnean proiektuaren beste aurkezpen bat izango dugu ere.

Euskararen bilakaera soziala historian zehar ikertzea alferrikako lana irudituko zaio hainbati, ez baita ikerketa aplikatu bat, gaurko egoera soziolinguistikoa maila praktikoan eta zuzenean hobetzeko helburuarekin sortutakoa. Ez, ez da halako proiektua, Euskararen Historia Soziala proiektua oinarrizko ikerketa da, eta denok dakigunez, momentu honetan, bereziki euskararen indarberritze ahaleginean, askoz gehiago bultzatzen dira ikerketa aplikatuak, oinarrizko ikerketa gutxietsiz. Errore bat da, zalantzarik gabe, ez baitago maila aplikatuan aurrerapen kualitatibo handirik egiterik teorizazio on eta sustrai sendorik gabe; eta horretarako oinarrizko ikerketa ezinbestekoa da. Bai soziolinguistikan, bai beste edozein zientzian.

Beraz, euskara etorkizunean kokatzeko eta salbatzeko iragana zertarako aztertu behar dugun galdetuko du hainbatek. Ez litzateke hobe indar guztiak plangintza aplikatuan jartzea? Utz dezagun iragana, eta etorkizuna begira dezagun!! Gogoeta horiek egiten dituenari galdera batzuk egin ahal izango genizkioke: euskarak plangintza behar badu, fisikoki gaixorik badago, ba al dago gaixotasunik sendatzerik gaixotasunaren garapena, zergatiak e.a. aztertu gabe? Gainera, soziolinguistek aztertu dutenez, euskararen gaixotasuna ez da hainbeste fisikoa, gehiago da mentala eta psikologikoa; ni ausartuko nintzateke sentimentala eta emozionala ere badela esatera. Ba al dago gaixotasun psikologiko askok pertsonen iraganarekin lotuta daudela ezeztuko duen psikologorik? Eta sendatzeko irtenbide bat iragana onartzea eta horri lasai begiratzea lortzea izan daitekeela?

Badakit, arrazoi askorengatik, azken paragrafo horretan idatzitakoa oso eztabaidagarria dela. Hasteko, Palo Altoko eskolaren fundatzaile batzuek zergatietan sartzea ez dela derrigorrezkoa esango lukete, haienezako «zergati»a begiratu beharrean «zer» zer den begiratu behar baita. Gainera, sen-

datzeko iragana onartu behar dela esaterakoan, zer esan nahi dut? Dena onartu behar al da? Onartu behar al dira jasanezinak izan diren tratuak? Gainera, hizkuntza bati buruz hitz egiten ari gara eta, noski, hizkuntzak berak, euskarak alegia, ez du hainbeste sufritu, sufritu duena euskaldun jendea da, pertsonak dira. Pertsona horiek bizi dutena, onartezina dena, orain onartu behar al da?

Ez, zalantzarik gabe, ez da onartu behar. Gainera, tratu horiek normaltzat onartuko bagenu, guk errepikatuko genituzke seguruenik. Gurea inposatzeko baliabide ez etiko batzuk erabiltzea, bat-batean biktima izatetik borrero bihurtzea litzateke. Ez, zentzu honetan ez da onartu behar, onartzea aipatzen dudanean, gure iragana izan den moduan begiratu behar dugula esan nahi dut, bere alde txarretan eta baita onenetan ere. *Hay que aceptar el hecho, no la práctica*, gertaera onartu behar da, ez bere praktika. Izan direnak izan direla begiratzea eta onartzea beharrezkoa da emozionalki oreka lortzeko eta etorkizunari lasai eta baikor begiratzeko. Modu berean, emozionalki baikorra eta aberatsa baldin bada izango da euskara erakargarria etorkizunean.

Norbera bere historiaren aurrean kokatzea eta historia hori onartzea ez da lan erraza. Ez da batere erraza, ez minorazioa, batzuek etnozidua esango lukete, jasan dutenentzat, ez maiorazioa bultzatu dutenentzat, borreroentzat alegia. Alemanek haien historiaren aurrean kokatzeko egin behar izan duten lana juduek egin behar izan dutena baino askoz txikiagoa izan al da?

Euskaltzaindiaren proiektua euskaldunok gure hizkuntzaren historia sozialaren aurrean kokatzeko funtsezkoa da, ditugun datuak objektiboki aztertzea eta ondorioak ateratzea baita modu bakarra<sup>1</sup>.

## Euskararen zaporea

Askotan aipatzen da: soziolinguistika diziplinartekoa da. Calvet bezalako autoreek beharbada ez lukete hori esango,

beraientzat ezin baita izan gizartearekin lotu gabeko linguistikarik, edozein linguistika beraz *sozio* izan behar du: *soziolinguistika*. Baina, tira, soziolinguistikaren diziplinartekotasuna onartuta dago, eta izaera horrek diziplinaren mugak iluntzen baditu, diziplina aberastu ere asko aberasten du.

20. mendearen bigarren erdian fisikaren arloan egindako aurkikuntza batzuk oso aberatsak dira guretzako. Denok dakigunez, garunaren funtzionamendua oso konplexua da, eta ekintza, emozio e.a. bakoitza lotzen da garunaren zati batekin, leku jakin batekin. Oso famatua da ezkerreko eta eskuineko hemisferioen artean egiten den dikotomia, asko ñabartu behar dena noski baina adibide moduan balio duena. Ezkerreko hemisferioa arrazoimenaren hemisferioa litzateke, hizkuntzarena, idazkerarena..., eta eskuinekoa erre-flexuen, sentimenduen eta abarren hemisferioa litzateke.

Garunaren funtzionamendua konplexua izanik, batzuetan espero ez diren loturak egiten dira: adibidez, zaporeak gogoramenarekin lotzen dira. Alegia, zaporeen kokagunea bat izanik eta gogoramenarena beste bat, laborategiko probak egitean, norbaiti zerbait probatzera ematen zitzaionean, askotan burmuinean zaporeak duen kokagunean ez zen islatzen mugimendurik, eta mugimenduak (stimuli elektrikoak) gogoramenaren kokagunean jasotzen ziren. Mota horretako beste ikerketa anitz egin eta gero, zientzialariak ondorengo ondoriora iritsi ziren: zerbait gustatzea edo ez, askoz gehiago lotzen da gogoramenarekin benetako zaporearekin baino. Harrigarria, ezta??

Ez dakit hizkuntzekin modu bereko ikerketarik egin den, baina zaporeekin horrela gertatzen bada, gure kasuan ere berdina gertatzen dela pentsa dezakegu, ezta? Behintzat hipotesi batzuk proposa ditzakegu: zaporeak gogoramenarekin lotzen badira, hizkuntzen kasuan berdina gertatzen al da? Alegia, hizkuntzak gogoramenarekin lotzen al dira? Galdera hipotesi horri erantzuteko dikotomia bat egin beharko litzateke. Alde batetik, maila teorikoa dugu. Hizkuntza bere maila teorikoan ulertuta: euskara hizkuntza bezala,



idea bezala, pertsonentzat zer den ikertzea. Beste alde batek, hizkuntzaren praxiak zer ondorioak dituen aztertzea: nik euskaraz egiten dudanean edo intentzio hori dudanean, gogoramenarekin lotzen al dut? Emozio batekin lotzen al dut? Emozio baten gogoramenarekin?

Galdera hipotesi horiei erantzuteko, soziolinguistikak pista batzuk ematen ditu. Badakigu euskaraz egitea ezberdina dela eraztuna ezagutu duenarentzat (alegia, eskolan euskaraz egiteagatik zigortu dutenarentzat) eta euskaldunberri batentzat. Lehen kasuan hizkuntza erabiltzea zigorrarekin lotuko da maila batean<sup>2</sup>; euskaldunberriarentzat, aldiz, euskara ikasteko ahalegina egin ondoren euskaraz aritzea lortzeak poztasuna sortuko du gehienetan. Zaporeen funtzionamendua ezagututa, pentsa genezake euskara hitz egiteko orduan emozio batzuk azalarazten direla: gustatzea/ez gustatzea, atsegina/desatsegina.

Katalanek aurkeztu zuten autogorrotoaren fenomenoak honela ulertzea zentzuzkoa litzateke: katalanez hitz egiteagatik emozio desatseginak sortzen bazaizkit baina hala ere katalanez egiten badut, autogorrotatzea zentzuzkoa litzateke; min ematen didan zerbait egiten badut, jakinda min emango didala, nire buruaren aurkako sententzio emozioak sortuko ditu, autogorrotoa.

Aurkikuntza horrek kognizioari buruzko beste ikerkuntza bat gogoratu zidan, disonantzia kognitiboaren ingurukoa. Festinger-ek 1957an egin zuen disonantzia kognitiboaren aurkezpena. Asko laburbiltzeko, disonantzia kognitiboa gertatzen da pentsaeraren eta ekintzaren arteko loturarik egiten ez den kasuetan. Festingerren arabera, uste, jarrera eta ekintzen arteko kohesiorik ez dagoenean, disonantzia gertatzen denean, abertsiozko emozio batzuk sortzen dira, eta horregatik disonantziak murrizten saiatzen da jendea. Disonantziak murrizteko modu bat izan daiteke ekintza aldatzea, autore batzuen arabera kasu ohikoena. Beste modu bat jarrera edo usteak aldatzea litzateke; ideologia marxistaren arabera hori da gehienetan gertatzen dena. Materialis-

mo historikoaren arabera, ekintzak bultzatzen du jarrera aldatzera.

Disonantzia kognitibo bat honako hauxe izan daiteke: modu batean pentsatzen dut, pentsamolde horren arabera modu batean aritu beharko nuke, baina, benetan, beste modu batean aritzen naiz. Adibidez, euskaltzalea izanik, benetan pentsatzen dut euskaraz egitea oso garrantzitsua dela, ezinbestekoa, eta euskara maite dut, baina benetako orduan, adibidez norbait aurkezten didatenean, euskara erabili beharrean erdara erabiltzen dut.

Disonantzia horiek aztertzeko, hasieran aipatu ditudan fisikaren ikerkuntzak kontuan hartzea oso baliozkoa litzatekeela iruditzen zait. Beste hipotesi bat botako dut: pentsaeraren maila eta ekintza maila bat ez dira etorriko, baldin eta emozionalki kontrajarriak badira. Pertsonen helburua ondo sentitzea bada, emozio positibo ahalik eta gehien edo behintzat stimuli ezkor ahalik eta gutxien jasotzea da<sup>3</sup>.

Gizarte honetan, eta hemen azalduko ez ditudan arrazoi estrukturalengatik<sup>4</sup>, pertsonak min psikologikoa, emozionala eta beharbada fisikoa jasateko duten ahalmena gutxitzen ari da (edo erasan iturriak ugariagoak izaten ari dira), eta ondorioz stimuli ezkor ahalik eta gutxien jasaten saiatzen gara, disonantzia kognitiboak ugarituz<sup>5</sup>. Lehen aipatu dudana adibidea berriz hartuta, euskaltzale izateak emozio baikor bat suposatzen badu niretzako, horrela pentsatuko dut; baina erdaraz egitea neutroa bada edo positiboa, erdaraz egingo dut, disonantzia onartuz. Aldiz, positiboa edo neutroa euskaraz egitea bada, euskaraz egingo dut. Beraz, euskaraz ez egitea gertatzen da euskara markatuta dagoelako edo balio positibo erantsirik ez duelako.

Dena den, adibide honetan ez dugu soluzionatu disonantzia kognitiboaren arazoa, bere horretan jarraitzen du: ekintza, jarrera eta usteen arteko kohesiorik ez dago. Euskaltzalea baina erdaraz aritzen naiz. Kasu askotan kohesioa lortzeko azpi uste eta jarrera batzuk sortzen dira, kasuan kasu. Euskaltzalea naiz baina ezezagun batekin erdaraz egin be-

har dut, bestela beharbada bera txarto sentituko da euskaraz egiten badiot... Kasu horretan desagertu egin da disonantzia kognitiboak sor dezakeen emozio ezkorra.

Disonantziak bere horretan zergatik jarraitzen duen ulerzeko, emozioen artean mailak daudela pentsa genezake ere. Alegia, disonantzia kognitiboak sortzen dizkidan abertsiozko emozioak euskaraz egiteagatik sortzen zaizkidanak baino botere txikiagokoak dira; beraz, horregatik egiten dut erdaraz.

Beti baikor izan behar dela uste dut eta seguruenik euskararen erabilera bultzatzeko balio emozional baikorrekin<sup>6</sup> lotu beharko da euskara, ez bakarrik maila teorikoan. Euskararen erabilerak emozio baikorrak sortu beharko ditu.

Hipotesi dezente aurkezten dira artikulutxo honetan, askotan gainera baieztapen ziur modura aurkeztuak. Eskertuko nioke irakurleari nire estiloa eta atrebentzia (buruga-bea?) barkatzea, hemen idatzitakoak gogoeta bultzatzea baitu helburu. Oker asko egongo dira, baina zientzia gogorrek frogatu duten bezala, hipotesi okerretatik baieztatutakoetatik bezainbeste ikasten da.¶

---

1. Modu honetako baieztapen asko daude testu honetan eta ez zait hori baxterere gustatzen, egiaren eta errealitatearen erlatibitatea zalantzan jartzen baitute; eta gauzak ez dira ez beltzak ez zuriak, errealitatea begiratzeko modu asko daude eta errealitatea aldakorra bihurtzen da horregatik. Dena den, artikulua mugak ideiak laburtzera bultzatzen nau eta horregatik agertzen dira baiezeko estruktura horiek.

Modu berean, euskara edo euskaldun jendea gaixo dagoela esatea ez zait batere egokia iruditzen eta ikuspuntu horren aurka nago erabat. Dena den, adierazi nahi dudana mezua helarazteko irudi egokia dela uste dut, eta gainera nahiko ohikoa.

2. Maila batean diot, zeren eta eraztuna ezagutu dutenentzako euskara beste gauza askorekin ere lotzen delako: eguneroko bizitzako hizkuntza baitzen euskara. Baina eskolaren eremuan eta beharbada beste eremu formaletan behintzat euskaraz egitea zigorrarekin lotzen dute/zuten euskaldun horiek.

3. Adibidez, deskarga elektrikoa stimuli ezkorra da; drogen mendekotasunaren neurria arratoiengan aztertzeke erabiltzen dira esate baterako, arratoiak berez deskarga horiek gustukoak izango balitu ez lukete balio izan-

go mendekotasuna neurtzeko. Emozioekin berdina gertatzen da; normalena emozio ezkorrak ukatzea da, gaixotasun psikologikorik ez badugu behintzat, edo eliteek emozio horiek arau bihurtu ez badituzte. Adibidez, melankolia erromantikoentzat (Baudelaireren *Les fleurs du mal*, esaterako, nahiko adierazgarria da).

4. Liburua bera nahiko nahasia bada ere, autorearen kezkaeren iturria antzekoa da: José Antonio Marina, *El misterio de la voluntad perdida*, Anagrama, Madril, 1997.
5. Gainera, mundua erlatiboa bada, muturrera eramanda errealiterik ez badago, ekintzen eta pentsaeraren arteko kohesiorik ez izatea normalagoa iruditu ahal zaigu, edo behintzat kohesio eza kasu gehiagotan onartuko dugu.
6. Emozio baikor horiek ez dira zertan erraztasunarekin lotu behar. Askotan ahaleginak berak sortzen ditu emozio baikor horiek helburua lortzen denean. Kontrakoa gertatzen da helburuak lortzen ez direnean, emozio ezkorrak sortzen dira. Horrela ulertzen da zein garrantzitsua den helburu errealista batzuk jartzea, baina aldi berean errazegiak izango ez direnak, bestela motibazioa galtzen baita.

## Bideo jokoak eskolan

Behin eta berriro aipatzen dugu teknologia berriak zein inportanteak diren, zer betebeharrak interesgarria duten irakas-kuntzan, zelako garrantzia duten euskararentzat..., baina bideo jokoak erabat ahaztuta ditugu, munduan horrelakorik ez balego bezala. Hala ere, estatistikek erakusten digute AEBetan bakarrik 2007an 9.500 milioi dolar saldu zirela bideo eta ordenagailu jokoetan. Hori nahikoa ez-eta, uste dugu bideo jokoak ez direla onak, bakartu egiten dituztela gure seme-alabak, eta biolentziaz josita daudela. Alemanian, berriz, bertako gobernuak erabaki du Bideo Jokoen Garatzaileen Elkar-tea bertako Kultura Kontseiluan sartzea, eta horrekin ezin garbiago adierazi du bideo jokoak kultura direla.

Errepikatzen ari gara gure gurasoen jokabidea komikien inguruan: haserretu egiten ziren komiki asko irakurtzen genituelako, esanez tontotu egingo ginela, haiek ez zirela gauza serioak. Ez zuten ulertzen oso ondo pasatzen genuela, eta, komikien bidez, irakurtzen ari ginela, eta sozializatzen, behin komikiak irakurrita, trukatu egiten baikenituen. Handik liburuetara pasatzea jauzi naturala izan zen. Baina orain, guraso egin garenean, gauza bera egiten ari gara bideo eta ordenagailu jokoekin. Haserretu egiten gara geure seme-alabak ikusten baditugu pantaila aurrean jolasten.

Hala ere, berandu baino lehen, hobe dugu aurreiritziak astintzea. Bideo jokoak aspaldi sortu ziren, lehena, 1947an. Hala ere, gizarte fenomeno bihurtu zirenetik, era askotako bideo jokoak egin dira, batzuk oso arrakastatsuak, eta milioika lagunek erabili dituzte denbora-pasa moduan. AEBetan, batez besteko jokalaria 35 urte ditu eta 12 urte daromatza jokatzen. Ikusita bideo jokoen eragina jende horren

heziketan, gero eta jende gehiago ari da eskatzen bideo jokoak erabiltzea irakaskuntzan.

Zorionez, gure artera ere iritsi dira ahots horiek. Uda honetan, EHUren Udako Ikastaroetan, gai hori jorratu zen: «Bideo jokoak: hezkuntza, sozializazioa eta berrikuntza». Eta bertako zuzendariak, Javier Echeverriak, garbi adierazi zuen hezkuntzan bideo jokoei eman beharko zaiela duten garrantzia. Horretarako komeni dela helduei, irakasleei bereziki, erakustea zelan dabilzan bideo jokoak. «Beste proposamen bat izan daiteke hautazko ikasgai moduan bideo jokoak erabiltzen ikastea. Hobe da hau taldean egitea barka baino, honela, buruko nahasteak saihestuko bailirateke [...]». Javier Echeverría ez da edonor, curriculum zabala du eta CSIC erakundearen irakasten du, Zientzia Ikerkuntzen Kontseilu Gorenean. Bada, haren iritzian,

Bideo jokoek xehetasuna, azkartasuna, egokitzapena, ikasketak eta gaitasun kognitiboak garatzen dituzte. Gainera, hezkuntzarako, berriztapenerako eta sozializaziorako garrantzitsuak dira. Era berean, horiei esker haurrak autodidaktak eta kooperatiboak dira eta sozializatzen laguntzen die [...].

Zeri begira gaude bideo jokoak gure curriculumean sartzeko?

## Hiru liburu interesgarri

Udako oporretan hiru liburu irakurri ditut, zein baino zein interesgarriagoa. Hirurek gaurkotasun handia dute, lotuta baitaude gaur egungo egoerarekin, batez ere teknologia berriak gure gizartean eragiten ari diren aldaketan inguruan. Ondo baderitzozue, aurkeztu egingo dizkizuet liburuok:

*The World is Flat* da lehena, Thomas L. Friedman kazetariak idatzia. Gaztelaniaz ere aurki daiteke, *La tierra es plana* izenburuarekin, Planeta argitaletxean. Mundua laua dela dio egileak, eta horrekin esan nahi du konektatuta dagoela: hesi ekonomikoen eta politikoen jausteak ekarri du, iraultza digitalarekin batera, aukera paregabea negozioak egiteko milioika lagunekin munduan barrena. Hau ez da gertatu

goizetik gauera, baina bai oharkabeen askorentzat, guztion begiak irailaren 11n eta Irakeko gerran zeuden bitartean. Globalizazioa 3.0, berak horrela deitzen baitio, ez da enpresa handiek bultzatua, baizik eta gizabanakoek eragina: *freelance* eta enpresa hasi berriak mundu osoan, baina batez ere Indian eta Txinan, gero eta pisu handiagoa hartzen ari dira, gai baitira lehendabizi soldata txikiko lanak bereganatzeko, baina baita goi mailako lan sofistikuak ere.

Friedmanen iritziz, mendebaldarrok azti eta zuhur jokatu beharra dugu mundu lau honetan, mundu bat non indiarrek eta baita txinatarrak ere nabarmentzen ari diren. Ikasi beharra dugu merkatu global batean lan egiten. Horrek arriskuak ekarriko dizkigu, orain lehen baino milioika lagun gehiago ari baitira beharrean, guk egiten ditugun lan asko guk bezain ondo eta merkeago egiteko prest. Baina, azti jokatuz gero, aukerak ere ikusten ditu egileak. Liburu mardula da, 660 orrialde, baina erraz irakurtzekoa, oso estilo bizian idatzita baitago.

*The Big Switch* (Aldaketa handia) da bigarren liburua, Nicholas Carr idazleak egina. Azpitulua ere adierazgarria du: «mundua birkableatzen, Edisonengandik Googlea». Dirudienean gaudela aurrekaririk bako iraultza teknologiko baten erdian, egileak dio iraultza digitalak antz handia duela, gero eta handiagoa, orain mende bat argindarrak ekarri zutenekin. Informatika dagoeneko ez da pertsonala, Carren ustez, eta laster bihur daiteke zerbitzu publiko bat, zenbait enpresak eskainia, eta gobernuek gainbegiratua. Garai batean, enpresek eurek sortzen zuten argindarra, joan den zenbakiko artikuluan idatzi nuen bezala, harik eta zenbait enpresa agertu ziren arte, Iberdueroren tankerakoak, zerbitzu hori merkeago eskaintzen zutenak. Carren aburuz, antzeko iraultza baten erdian gaude, aurrerantzean gero eta zerbitzu informatiko gehiago hodei informatikoan aurkituko ditugu, hor nonbaiteko zerbitzarietan. Trantsizio horren ondorio sozialak eta ekonomikoak ilun samarrak izango dira, egilearen ustez. Aberastasuna gutxi batzuen esku finkatuko da,

eta zenbait industria, prentsa idatzia bereziki, desagertzeko zorian izango da.

Hirugarren liburua da *Don't bother me mom —I'm learning* (Ez gogaitarazi ama —ikasten ari naiz), Marc Prensky-rena. Gure seme-alabek gero eta denbora gehiago igarotzen dute pantailaren aurrean, bideo edo ordenagailu jokoetan, eta horrek ika-mika ugari sortzen ditu gurasoon artean. Marc Prensky hezkuntza software garatzailea da, eta bideo jokoen alde dago. Haren ustez, «gazteak askoz ere gauza positiboagoak eta erabilgarriagoak ikasten ari dira bideo jokoe-tan eskolan baino». Prensky saiatzen da gurasoon eta irakasleon beldurra uxatzen, eta azaltzen du gaztetxoek zelan ikasten duten jolastu bitartean. Tartean, informazio ugari ematen du bideo jokoen gainean, eta argibide ugari, zelan hurbildu gazte horiengana.

Hiru liburuak oso ondo idatzita daude, eta erraz irakur-tzen dira. Hirurek, gainera, lan ona egiten dute gure ingu-ruan gertatzen ari diren aldaketak hobeto ulertzen. Horre-gatik, hirurak dira gomendagarriak.

### 3.000 ordenagailu gehiago euskaraz

Oraingoan, Gipuzkoa Donostia Kutxak eman du ezuste-koa, eta ez uko egin diolako bat-egiteari EAEko beste kutxe-kin, baizik eta konfiguratu dituelako bere ordenagailu guz-tien nabigatzaileak euskaraz. Horrek esan nahi du iraila ez-keru 3.000 ordenagailu gehiago ari direla euskaraz nabiga-tzen Interneten. Uste izatekoa da ez zela erabaki erraza izango, Kutxaren erabiltzaileen heren bat euskararen espa-rrutik kanpo ari delako, beste hizkuntza batzuetan: gaztela-niaz, katalanez eta galegoz. «Baina haientzat ere aldaketa orokorrak ez zuen albo kalterik. Bilatzen ziharduten horrek orria euskaraz bazuen, horixe aterako zien, baina orriaren hizkuntza aldatzea beste lanik ez», azaldu zuen erabakia Mi-kel Irizar Kutxako Hizkuntza Plangintzaren arduradunak. Aldaketa egin da aprobetxatuta Kutxak sistema eragilearen



migrazio bat egin behar zuela. Hori dela eta, beraz, «3.000 ordenagailu gehiago dabilta sarean euskararen banderarekin».

Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Luistxo Fernandezek horrela ikusi du Kutzaren erabakia:

Interneteko euskal presentzia areagotzeko orduan, sekulako eragina du horrek. Microsoft-ek Klik Egin Euskarari kanpainan lortu duen datu estatistiko absoluto tristearekin konparatuz (apenas 1.700 ordenagailu euskaldun gehiago), egun batetik bestera, Googleren barne-estatistiketan 3.000 euskaldun gehiago ageri dira; Kutzako ordenagailu horietatik bakoitzak Googlen bilaketa bat egiten duen unean, haren erabiltzaile hizkuntza grabatua geratuko da estatistiketan, euskara. Euskal erakundeek (administrazioek edo enpresek) sekulako eragina izan dezakete euskararen Interneteko presentzia indartzen Kutzak eman duen urratsa errepikatuko balute.

## Wiki bat glosategi bat osatzeko

Mondragon Unibertsitatearen Huhezi fakultateko irakasle talde batek wiki bat sortu du, Glosategia Komunikazioaren gainean, baina dagoeneko Euskal Herriko beste unibertsitate batzuetako irakasleak ere parte hartzen ari dira proiektu horretan, glosategia irekita baitago bertan irakasleek eta profesionalak parte har dezaten. Glosarioak honako atal hauek lantzen ditu: diseinua, ikus-entzunezko komunikazioa, informatika, Internet, kazetaritza, komunikazioa, komunikazio korporatiboa eta tipografia. Informazioa eta Komunikazioa departamentuko kideek sortu dute glosategia, PBwiki izeneko plataforman.

Glosategi bat izan arren, oso erraza da bertan nabigatzea, wikia hiztegi moduan antolatuta baitago, alfabeto hurrenkerara duela, eta erabiltzaileak orri guztietan izango baitu aukera nahi duen letran egiteko klik. Erabili ere, jende askok erabil dezake glosategia: irakasleek eta ikasleek, komunikazio alorreko profesionalak eta kazetariak, besteak beste. Kontsulta tresna interesgarria izan daiteke hori, baina baita ariketak egiteko erreminta ere, ikasleekin batera lantzekoa.

Horrelako lan batek hainbat onura ekar diezaguke: bizkortu egin lezake lexikoaren normalizazioa, batez ere bere erabilera benetan zabaltzen bada irakasle, ikasle eta profesionalen artean, eta jende askok hartzen badu parte proiektuan; lagun lezake irizpideak bateratzen hitzak aukeratzeko orduan; lagun diezaguke wikiak hobeto ulertzen eta gehiago erabiltzen; bultza gaitzake jakintza partekatzerara; eta lagundu komunikazioaren esparrua hobeto ulertzen.

Glosategiak blog bat du lagun, Hitz batez, elementu osagarri gisa, eta bertan azalduko da zer ezaugarri dituen wikiak eta zer bilakaera duen. Glosategitik bertatik irits daiteke blogera (Glosategia Komunikazioaren gainean: <http://komunikazioglosategia.pbwiki.com/FrontPage>).¶



GLOKALIA

AITOR ZUBEROGOITIA

## Enbido txikira...

Ia ez dabil beste konturik inguruotan: krisia gora eta krisia behera. Zorioneko krisia, hori bai, oso pedagogikoa ari da izaten; argi utzi du, esate baterako, gure sentiberatasuna oso arbitrarioa dela: zerbaitek zuzenean eragiten digunean, orduan bai, aztoratu egiten gara; haatik, aldamenean triskantzarik handiena gertatuta ere, nekez mugituko gara. Esan bai, esango dugu izugarria dela Afrikatik batel txikietan datozenekin gertatzen ari den odolustea, edo goseak den jendearen atarramentua, edo Irak, Palestina eta enparauen paraderoa, baina deus gutxi egingo dugu tabernako aldarri itxuraz haserre baina funtsean otzanez harago. Egitez edo egin ezaz, mundu-ordena honi eusten diogu guztiok; oharkabean bada ere (?), berorren zutabe diren erakunde eta jokamoldeak erreproduzitzen ditugu egunero-egunero.

Gogora dator, ezinbestean, Sarrionandiak *Hitzen ondoezako* «oinazea» sarreran itzulitako Milan Kunderaren aipua:

Jendea asko da, ideiak guti. Denek pentsatzen ditugu guti gora behera antzera, ideiak batak besteari ematen dizkiogu, uzten edo lapurtzen dizkiogu elkarri.

Baina inork oina zapaltzen badit, oinazea nik bakarrik senditzen dut. Nitasunaren oinarrian ez dago pentsamendua, giza sendimendurik funtsezkoena sofrimendua da.

Sufrimendu... partikularra, geurea, zuzenean eragiten diguna, lehen esandako moduan. Horregatik hain zuzen, inork gutxik egin zuen zirkin gure mundu aurreratuan FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak irailean emaniko datuen berri izatean. FAOren arabera, nabarmen handitu da goseak daudenen kopurua: egin kontuiaz 2006an baino 75 milioi lagun gehiago zeudela oinarriz-

ko elikagairik gabe; hau da, 923 milioi lagun (ez ziren bada transgenikoak gosearen aurkako txertorik eraginkorrena?).

Ez da gainera hor amaitzen kontua: NBEk 2015erako go-seak zeuden pertsonen kopurua erdira jaisteko helburua ezarri zuen 1996an, baina, egungo datuen argitan, guztiz ezinezkoa da hori betetzea, are gehiago jakinik elikagaien prezioa %52 igo dela iaztik eta ongarriena ere bikoiztu egin dela.

Horiek horrela, ez dira harritzekoak Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) duela hilabete inguru emaniko datuak: herrialde aberatsen eta pobretuen artean 40 urteko aldea izan dezake bizi-itzaropenak.

Eta, panorama hori izanik, zertan da NBE? Txikira enbidoka, hasiera batean handira jokatzearen plantak egin arren. Duela zortzi urte, mendea aldatzearekin batera, 2015erako bete beharreko Garapenerako Milurteko Helburuak zehaztu zituen erakunde horrek. Honako zortzi helburu hauek, hain justu: muturreko pobrezia eta gosetea desagerraraztea, lehen hezkuntza unibertsala bermatzea, genero berdintasuna sustatzea, haur hilkortasuna murriztea, hiesari aurre egitea, garapenerako nazioarteko elkarteak eratzea, amen osasuna hobetzea eta, azkenik, garapen iraunkorra ziurtatzea.

## **Sinesgarritasuna ments**

Orduko hartan helburu horiek betetze aldera 100.000 milioi € ematea hitzartu zuten gobernuek, fundazioek eta enpresa pribatuek. Haatik, gero ia inork ez zuen agindutakorik bete. Orain, New Yorken eginiko bileran, NBEk orduko zortzi xedeak berretsi ditu, eta 11.000 milioi € jaso ei dira Garapenerako Milurteko Helburuok ebaluatzeko. Hori dela-eta, espero izandakoa baino diru gehiago bildu dutela iritzi dio Ban Ki-moon NBEren idazkari nagusiak; ez hori bakarrik: jasotako dirua «nazioarteko elkartasunaren adierazle» dela dio gizonak, finantza krisia indarrean izan arren herrialde askok baikor erantzun dutelako.

Egongo da, bistan denez, Ban Ki-moonen berbak sinesten dituen borondate oneko lagunik, baina Haitiko lehendakari René Préval ez dago behintzat horien artean. «Karitateak ez du azpigarapena gainditzen laguntzen», gogorarazi du Prévalek, puntuan zera erantsita: «Merkatuaren liberazioa hipokrisiarik eta mistifikaziorik gabe eta denentzat gardenak diren arauetan oinarrituta egiten ez bada, ez dugu laguntzarik behar». Haitiko presidentek, horrez gain, NBE demokratikoago egiteko aldaketak eskatu ditu, beste hainbat herrialdetako zenbait estatuburu eta gobernuburuk bezala.

Egia esan, azken aldian aldaketa ñimiño batzuk izan, izan dira erakunde horretan: pasa den irailaz geroztik, berbarako, Miguel d'Escoto da NBEren Batzar Nagusiko presidentea. Ausart mintzatu da nikaraguarra karguaz jabetu berri-tan, «herrialde pare batek kontrolatzen duten erakundera demokrazia eroateko asmoa» agertu baitu.

Zertaz ari da d'Escoto? Bere ustez, «denbora pasatu ahala, Batzar Nagusia indargabetu egin da Segurtasun Kontseilua-  
ren aurrean, eta haren ebazpenak gomendio huts bilakatu di-  
ra». Hori ikusirik, Batzar Nagusia indartu gura du, begi-bis-  
tako arrazoi bategatik: NBEren organo legegile horretan esta-  
tu bakoitzak boto bana eman dezakeen arren, gaur egun be-  
netako boterea Segurtasun Kontseiluak daukalako (NBEren  
organoko eragileak, alegia).

Hamabost kide ditu Segurtasun Kontseiluak; horietako hamar Batzar Orokorrak hautatzen ditu eta bi urtero txan-  
dakatur doaz (bost kide berri hautatu ohi dira urte batean  
eta beste bost hurrengoan; aurtengo urrian, adibidez, Japo-  
nia, Turkia, Austria, Mexiko eta Uganda hautatu dituzte,  
Iranen hautagaitza kanpoan utzita).

Gainerako bost kideak, ordea (AEB, Txina, Errusia, Fran-  
tzia eta Erresuma Batua), kide iraunkorrak dira; pribilegio  
hori nahikoa ez nonbait eta, gainera, beto eskubidea dauka-  
te (arrazoia, bistan denez, ez da estatuon pisu demografi-  
koa, hala balitz Indiak eta Indonesiak ere hor behar lukete-  
lako), beto eskubidea daukate, nioen... *zergatik bai*, eta aka-

bo eztabaida. Hori da daukaguna, beraz, eta segi dezagun jokia, jardunak ez baitu etenik behar: orain, joko-arauak errespetatzera denok.

## Presio taldeen mendeko demokraziak

Egiturazko defizit demokratikoa dauka, beraz, NBEren organo eragileak. Erakunde horrek badu ordea beste gabezia bat ere, bere defizit demokratiko hori nabarmen areagotzen duena: zorrak. Bai, diru-arazo handiak ditu NBEk, eta horiek zelan edo halan konpontze aldera, Nazioarteko Merkataritza Ganberarekin hitzarmena sinatu zuen 1998an, artean Kofi Annan idazkari nagusi zela. Hitzarmen horretan, multinazionalen presioei men eginez, nazioarteko merkataritza librea eta kapitalen zirkulazio askea (krisia baino lehenagoko kontzeptuak dira, argi dago) sustatzeko konpromisoa hartu zuten Nazio Batuek. Politika eta ildo ideologiko batzuen alde lerratu zirela, berba batean, horren ondorioak zein ziren ondotxo jakin arren (azken urteotan gose direnen kopurua areagotu izana ez da kasualitatea).

Hori da, hain zuzen ere, nazioarteko erakunde askoren arazo nagusia: batetik, legitimazioari euste aldera, erretorika humanista darabilte (orain Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrenarekin gertatzen ari den moduan), baina, bestetik, ez da bitartekorik jartzen aldarrikatutakoa errealitate bihurtzeko. Eta ez da bitartekorik jartzen, azken beltzean, azken hitza gobernu eta nazioarteko erakundeek ez baina euren azpian dauden presio taldeek daukatelako.

Europar Batasunean, adibidez, Europako Kontseiluak sustaturiko politikak ERTk agindutakoak dira. ERT (European Round Table of Industrialists) Europako 47 multinazional nagusietako presidentek elkartzen dituen taldea da, eta Europako industria fakturazioaren %60 kontrolatzen du. Ikus dezagun zer zioen 1993an Keith Richardsonek, artean ERT-ko idazkari nagusi zela:

Agintari nagusienenganako irispidea daukagu. Horrek esan gura du, adibidez, Kohli deitu eta txosten jakin bat irakur dezala aholkatzea. Esan gura du, halaber, John Majorren deia jasotzea ERTren ikuspegiagatik eskerrak emanaz, edo Suediako lehen ministroarekin bazkaltzea justu Suedia Europar Batasunean sartu ala ez sartu eztabaidatzen ari denean (*Opciones 2*, 2002ko martxoa-apirila; helbide honetan artikulua osorik: [www.opcions.org/articles/ert.html](http://www.opcions.org/articles/ert.html)).

Europar hori bada legea, zer esan AEBei buruz. Bill Clintonek berak argi eta garbi utzi zuen afera Alderdi Demokratik 1994an Kongresurako hauteskundeak galdu zituenean: «Kongresuan berriz gailendu ez bagara izan da errepublikarrek guk baino 135 milioi € gehiago jaso dituztelako» (*Opciones 1*, 2002ko urtarrila-otsaila).

### ... eta hordago handira

Ez da harritzekoa, beraz, milaka lagunek beste eredu politiko bat eskatzea. Suediako Malmon, adibidez, 15.000 lagun bildu ziren irailean, Europako V. Gizarte Foroaren baitan eginiko kale-agerraldian. Manifestazioaren leloa, honako hau: *Herriarentzat boterea, kapitalismoaren eta ingurumenaren suntsipenaren aurka: beste mundu bat posible da.*

Ez gaitezen engaina, dena dela: lantzean behingo ekitaldi horiek gorabehera, europarrak eroso bizi izan gara egungo sisteman, berorren alderdi ilunen jakitun (kontinentera bidetan hiltzen diren ehunka lagunak, beste herrialde batzuetan europar hegazkin eta soldaduek akabatzen dituztenak, politika geroz eta neoliberalagoak...), baina alfonbrapean larregi arakatu gura barik, badaezpada ere.

Orain, ordea, krisia ate-joka etorri zaigu geuri ere. Europar ez ezik, udagoien honetan Ameriketan ere egin da Gizarte Foroa eta, berak ohi duen moduan, torpedo galanta bota du bertan (barrez lehertzeaz zegoela bota ere) Hugo Chávez histrionikoak:

*Mister Danger* [George Walker Bush] bankuak nazionalizatzen ari da. Ni infernuko etsaia naiz enpresa estrategiko ba-

tzuk nazionalizatzegatik, eta berak bankuetako akzioak erosiko dituela iragarri du. Une honetan ni baino ezkerreago dago (Gaur 8, 2008-10-18).

Bai jauna, zaila da gertatzen ari dena deskribatzeko berba egokia hautatzea: esperpentoa, tragikomedia... Hiztegi ekonomiko-politiko guztia hankaz gora goizetik gauera. Bistartu dira kartak eta dena geratu da agerian. Handira jokatzeko (kapitalismoa salbatzeko) bai, badago dirua; txikira jokatzeko (goseaz, miseriaz eta enparauez arduratzeko), ogi-papurak baino ez. Oso pedagogikoa, aurrez esaniko moduan, gure sentiberatasunaren neurria emateaz gain lehendik ere guztiok genekiena oso argi utzi duelako: badago dirua, borondatea da falta dena.

Bien bitartean, berriak samaldaka datoz: WWF Naturarentzako Mundu Funtsak Europar Batasunari eskatu dio bere gain hartzeko dagozkion ardurak, klima aldaketa uste baino erasokorrago eta bizkorrago datorrelako, baina Europar Batasuneko estatu batzuek diote lehentasuna ez dela hori, industria berrindartzea eta ataka hau gainditzea baizik, eta Bush, Sarkozy eta Barrosok krisia (bankuena, bistan denez, ez goseak dakarren giza hondamendi hori) aztertzeko goi bilera iragarri dute, *e la nave va...*¶